ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko urtarrilaren 25a > Astelehena > VI. urtea > 262. zenbakia > 1,10 euro
www.goiena.net TOKIKOM

"Gorputzean bizitasuna ematen digu sukaldaritza naturalak eta energetikoak"



**Jose Luis Rubio**
Aditua sukaldaritza energetikoan > 08

**G2a** Non entseatzen dute gure musika taldeek? > 29

**EGUNKARIA**
**Aurpegi ezagunak auzipetuen alde batu ziren Arantzazun** > 05

**ESKORIATZA**
**Eskola inguruko eta Gaztainaduiko argiteria publikoa aldatuko dute** > 11

**FUTBOLA**
**UDA puntu barik baina joko ona eginda itzuli da Zornotzatik** > 23

**ERASOA** > DES-KONTROL

# Ondo prestatutako erasoa izan dela salatu dute taldekideek

**ZAURIAK** Ospitaletik pasa behar izan zuten taldekide denek, bariku gauean. Puntuak, ubeldurak eta zauriak dituzte

**ERASOTZAILEAK** 50 lagun inguruk egin zuten euren kontra, Barakaldoko San Vicente auzoko jaietan

**ERASO BORTITZA** Salatu dute burdinazko barrak, botilak eta *ukabil* amerikarrak erabili zituztela euren kontra > 32

## Aniztasun Asteak atzerritarren eta bertakoen arteko mugak apurtu ditu

Elkar ezagutu eta harremanak sortzea zen helburua eta bete da. Eguenean hasita, askotariko ekintzak izan dira herrian eta erantzun ona jaso dute. Arraskastarik handienekoak bi izan dira, ordea; zapatuan, Aniztasun Egunean egindakoak biak: herri bazkaria, batetik; eta trikitiarekin eta Afrikako perkusio doinuekin egindako kalejira herrikoia, bestetik. > 13



**ARRASATE** > UDALTZAINAK

## Gaurtik, egoitza berrian

Nafarroa etorbideko egoitzan artatuko dituzte herritarrak aurrerantzean > 14

**ALDUNDIA** > ERREPIDEAK

## Bidesariak hedatzea, aztergai

Bidesari bako hainbat errepidetan ordainsaria ipini edo ez eztabaidatuko dute Batzar Nagusietan. Helburua da errepide sarea finantzatzea eta N1-etik ibilgailuak ateratzea. Aurreikuspenen arabera, proposamenak aurrera egiten badu, 2.200 kamioi gutxiago pasako lirateke Zumarraga eta Bergara artean. > 04

**TELEBISTA** > LTD

## GOITB digitalean ikus daiteke

Leintz bailarara iritsi da Goiena Telebistaren seinale digitala > 06

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39
**Eskelak** > 39
**Azkena** > 40

**HEZKUNTZA** > TEKNOLOGIA BERRIAK

## Ordenagailuak ari dira iristen gure ikastetxeetara

Teknologia berriak lanerako tresna bihurtzen ari dira Debagoieneko ikastetxeetan. Jaurlaritzaren *Eskola 2.0* programa ikastetxe publikoetara eta itunpekoetara iritsiko da eta, jada, prestakuntza lanetan murgilduta daude horietako hainbatetan. Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgelak digitalizatzea da helburua. Ikastolen Elkarteak, bere aldetik, urteak daramatza teknologia berrien alde lanean; 3 eta 16 urte arteko ikasmaterial guztiak aplikazio informatikoa du aspalditik. Iaz egindako probak emaitza onak eman ditu eta aurten *Ikasyz* programa jarriko dute martxan. > 03

Goiena kluba
Umeendako euskarazko jostailuak opari.
Nahi?
Zoaz 7. orrialdera



# Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

## Ongi etorri Goiena Klubera

Goiena Komunikazio Zerbitzuak Goiena Kluba aurkezten dizu.
Orain arte **Asteleheneko Goienkaria**-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

## Goiena Klubeko txartela

Bazkide-txartel personalizatua jasoko duzu etxean. Bazkide-txartelarekin harpidetzak dakarren abantaila eta onura esklusiboetan parte-hartzeko aukera izango duzu. Askotariko ekitaldi eta zerbitzuetan bazkide-txartela erakutsi, onurak aprobetxatu, eta gozatzera!




## Goiena Klubeko bazkideen abantailak

Asko dira Goiena Klubak eskaintzen dituen abantailak.

- **Goienkaria** astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak...

**eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat**

## Deskontu bereziak

Goiena Klubeko txartela aurkeztu, eta ondorengo enpresetan deskontu eta abantailak izango dituzu.

### BARCELÓ BIDAIAK
**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

### LILURA EDERTZE INSTITUTUA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

### NAREN FISIOTERAPIA ZENTROA
**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

### IKER SUKALDEAK
**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

### LARRAÑAGA AUTOESKOLA
**BERGARA**
- **-%15** matrikula ordaintzean.

### ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

### MONDRAGON LINGUA
**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan. Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

### AUTOBERRI
**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa **20 euro**.
- Erosketaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

### CLINICA DENTAL BERGARA
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

### ZIENTZIEN KUTXAGUNEA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

### AQUARIUM
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu

### TXURI-URDIN IZOTZ JAUREGIA
**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu**

2010 urteko kuota: **45 €**
Telefonoa: **943 25 05 05**
Posta-e: ***kluba@goiena.com***

**HEZKUNTZA** > TEKNOLOGIA BERRIAK

# Ordenagailuak Debagoieneko ikastxeetara ari dira iristen

**'ESKOLA 2.0'** Ikastetxe publiko eta itunpekoetara iritsiko da Jaurlaritzaren 'Eskola 2.0' programa; prestakuntza lanekin daude hainbat herri eskolatan

**'IKASYZ' PROGRAMA** Iaz emaitza "onak" eman zituen probaren ostean, 'Ikasyz' programa jarri du martxan Ikastolen Elkarteak aurtengo ikasturtean

**ERAKARGARRIA** Arizmendi, Aranzadi eta Txantxiku ikastoletan baieztatu egin digute 'Ikasyz' programa oso erakargarria dela ikasleendako

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Teknologia berriak Debagoieneko ikastetxeetara iritsi dira. Herri eskoletan *Eskola 2.0* programa martxan jartzeko prestakuntza lanekin dabiltza. Helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko 539 ikastetxe publiko eta 401 itunpekoetako Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasgelak digitalizatzea. Horretarako, besteak beste, 18.159 miniordenagailu eramangarri, arbel digital interaktiboa, bideoproiektagailua eta armairu elektrifikatu metalikoa banatuko dituzte.

Bergarako San Martingo zuzendari Begoña Otxoak azaldu digu bailarako ikastetxe publikoetan lehenengo fasean daudela; hain justu ere, *Eskola 2.0* geletara dagoeneko armairu elektrifikatuak iritsi direla. Miniordenagailuen bateriak kargatzeko eta garraio-poltsak batzeko balioko dute horiek. Otxoaren esanetan: "Arbel digitalen zain gaude orain, egun batetik bestera iritsiko dira; eta gero, konektagarritasuna eta ordenagailu eramangarriak faltako dira. Otsailerako programa ezarrita egotea espero dugu, martxan jartzeko".

Hori iristen den bitartean, ikastetxe publikoetako irakasleak horren gaineko formazioa jasotzen ari direla esan digu: "Irailaren bukaera ezkero, astero prestakuntza saio bat dugu Lehen Hezkuntzako 5. mailako tutoreek eta gela horietan sartzen diren Ingeles eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleek, Eibarko Berritzegunean. San Martinen, esaterako, 5. mailako hiru gela dauzkagu; hain justu ere, 57 ume".

Otxoak esan digu programa horren helburua bikoitza dela: batetik, alfabetatze digitala egongo litzateke; hau da, ikasleei teknologia berriak erabiltzen irakastea. Eta bestetik, ikaskide eta ikastetxeen arteko harremanak sendotzea.

**ERABILERA NORMALIZATUA**

Hori, ikastetxe publikoei dagokienez. Bada, ikastolen elkarteak urteak daramatza teknologia berrien gaineko programak gertatzen. 3 eta 16 urte arteko ikasmaterial guztiak aplikazio informatikoa du aspalditik. Aranzadiko zuzendari Ane Barrusoren esanetan, "gai bakoitzak hainbat ariketa dauzka ordenagailuan egin beharrekoak. Esaterako, 3 urteko umeek ipuin bat landu behar dutenean, antzerkia eta horma-irudiak gelan egingo dituzte, baina ordenagailuetara ere joan behar dute ipuin hori lantzeko. Berdin, gainerakoekin. Haur Hezkuntzakoek *Urtxintxa* metodoa dute hiru urtetan; Lehen Hezkuntzakoek, *Txanela*; eta DBHn, *Ostadar*. Erabilera, hortaz, oso normalizatuta dago".

**'IKASYZ' PROIEKTUA**

Ikasturte honetan, baina, programa berria jarri dute martxan Debagoieneko ikastoletan: *Ikasyz*, hain justu ere. Horren harira, gogorazi behar da joan den ikasturtean emaitza "onak" eman zituen proba aitzindaria (pilotua) egin zutela 16 ikastetxetan; tartean Arizmendikoa zegoen.

Barrusoren arabera, "*Ikasyz*-ek dakarrena da ume bakoitzak ordenagailu eramangarria duela eta ariketak txertatuta daudela. Edukiaz gain, beste hainbat alde ditu *Ikasyz*-ek *Eskola 2.0* programarekin alderatuta: ikastoletako programarekin umeek ez dituztela ordenagailuak etxera eramaten eta *Eskola 2.0* 5. mailako ikasleei bakarrik dagoela zuzenduta eta *Ikasyz*-en hainbat mailatakoak daudela. Arizmendin, Lehen Hezkuntza osoko neska-mutikoek erabiltzen dute gaur egun; Txantxikun, 3. eta 6. maila artekoek; eta Aranzadin, 1. eta 4. maila bitartekoek. Bestalde, Arizmendin proba aitzindaria jarriko dute datozen egunotan, DBHn.

Barrusoren esanetan, "gelako armairuan gordeta dagoen ordenagailua hartzen du ume bakoitzak; gakoa dute sartu ahal izateko. Egunero ordu erdiko saioa dute eta bost ikasgai jorratzen dituzte: matematika, ingelesa, gaztelania, euskara eta ingurumena. Egun bakoitzean bat landuko dute eta programak berak jakinarazten die umeei noiz pasatzen diren mailaz. Guztira, prestatuta dauden 5.000 ariketa inguru ditu".

Horren harira, Txantxikuko Lehen Hezkuntzako koordinatzaile Susana Uribetxebarriak gaineratu du umeendako hori oso "erakargarria" dela: "Ariketa bukatzean programak umearen lana txalotzen du. Bitartean, gainera, ikasleak aukera dauka bere ordenagailutik ikasle bakoitza zein mailatan dagoen ikusteko".

**IKASLEAK, POZIK**

Arizmendiko IKT arduradun Arantza Arregi ere bat dator horrekin: "Ikasleak oso pozik dabiltza, ohituta daude-eta ordenagailuarekin ibiltzen, eta, hortaz, baliabide erakargarria da". Barruso ere iritzi berekoa da: "Eurendako oso erakargarria da. Ariketa bat paperean edo ordenagailuan egitearen artean, nahiago dute azkena; gainera, ikasle bakoitza bere erritmora joateko aukera eskaintzen du".

Bestalde, ikastoletara ere *Eskola 2.0* iritsiko da. Jasotzen dituzten ordenagailuak "lagungarriak" izango dira egun "masifikatuta" dauden informatika geletan "arnas emateko". Arregik dio: "Erabili ahal izango ditugu beste lan batzuetarako. Argi dago horrek hedatu beharra duela, gaur egungo ingurunea teknologikoa daeta".



Arizmendi ikastolako ikasleek ordu erdiko saioa dute egunero ordenagailuekin. ARIZMENDI IKASTOLA

ESANAK

**"Otsailerako 'Eskola 2.0' programa ezarrita egotea espero dugu, eta jarraian ikasleekin martxan jarriko dugu"**

**Begoña Otxoa** > Bergarako San Martin herri eskolako zuzendaria

**"Ikasleek egunero ordu erdiko saioa dute 'Ikasyz'-ekin; bost ikasgai jorratzen dituzte"**

**Ane Barruso** > Bergarako Aranzadi ikastolako zuzendaria

**"Ikasleak oso pozik dabiltza, ohituta daude-eta ordenagailuarekin ibiltzera"**

**Arantza Arregi** > Arizmendi ikastolako IKT arduraduna




Eibar eta Gasteiz arteko AP-1 autobidean, bidesaria ordaindu behar den tokia. GOIENKARIA

**ALDUNDIA** > ERREPIDEAK

# Bidesari bako hainbat errepide ordaindu behar diren aztertzen

Datozen asteetan eztabaidatuko dute Batzar Nagusietan ordaindu behar diren edo ez

Bidesariaren helburua da errepide sarea finantzatzea eta N-1ean ibilgailuak murriztea

**MIRARI ALTUBE** > BERGARA

Bidesaririk ez duten Gipuzkoako autobide eta errepideak ordaindu beharrekoak diren edo ez eztabaida jarri du abian Aldundiak. Batzar Nagusiek datozen asteetan erabakiko dute bidesaria jarri edo ez, eta ondoren Aldundiak zehaztuko du zein eratako sistema erabili kobratzeko. Eztabaida hasteko Aldundiko Errepide Saileko diputatu Eneko Goia hainbat errepide ordaintzearen aldeko azaldu da. Errepideen mantenu gastuei eta inbertsio berriei aurre egiteko izango litzatekeela bidesari hori dio Goiak. Eztabaidaren gakoa AP-1 autobidean dago, oso erabiltzaile gutxi dituelako. N-1 errepidea, ostera, beti dago beteta, tartean kamioi asko elkartzen direlako eta ondorioz arazoak dira nagusi bertan.

**ORDAINDUTA, KAMIOI GUTXIAGO**

Azterketa egiteko agindu du Aldundiak, errepideei tarifak ezarriz gero zein eragin izango lukeen jakiteko eta tarifa horiendako irizpideak ezartzeko. Ez da egindako lehen azterketa, aurreko agintaldian ere egin zutelako. Orduan egindakoak agerian utzi zuen hainbat errepidetan bidesariak jarriz gero N-1etik ibilgailu gutxiago pasatuko liratekeela eta era berean, errepide sarea finantzatu ahal izango litzatekeela. Horretarako, baina, ordainsariak jarri beharko lituzketela N-1ean –Etxegaraten– eta Beasain-Durango errepidean dio azterketa horrek. Hala bada, hiru euroko bidesaria jarrita N-1ean eta euro batekoa GI-632 errepidean, 2.200 kamioi eta 1.500 automobil gutxiago pasatuko lirateke Zumarraga eta Bergara artean (GI-632) eta ia 4.000 kamioi gehiago Bergara eta Epele artean (AP-1).

DATUA

**2.200**

**KAMIOI GUTXIAGO**

Aurreko agintaldian agindutako ikerketak dio N-1ean hiru euroko ordainsaria jarriz gero eta GI-632 errepidean euro batekoa, 2.200 kamioi gutxiago pasatuko liratekeela Zumarraga eta Bergara artean.

IRITZIAK



**Esteban Muruamendiaraz**
Garraiolaria

"Garraiolariok derrigorrez ibili behar dugu errepidean eta oso nekeza da gero eskatzen duten kostu hori bezeroari eskatzea, sekulako presioa dagoelako prezioak jaisteko. Lehenengo kamioiendako jarri eta gero gizarte osora zabaldu gurako dute, hortaz, indarrak batu behar ditugu guztiok".



**Mikel Lizarzaburu**
Taxi gidaria

"Ez dut uste errepide horiek kobratzeko arrazoirik dagoenik, ondo ordainduta daude. Baina noski, AP-1 autobidearen gastuetarako nonbaitetik atera beharko dute dirua; izan ere, oso gutxik erabiltzen dute. Hala ere, ez dut uste konponbidea hortik etorriko denik, garraiolariak dagoeneko hasi dira protestaka".



**Clemente Jimenez**
Mezularia

"Autobidea egin aurretik ikerketa egin behar zuten beharrezkoa zen jakiteko. Errepide gutxiago eta ondo egindakoak behar ditugu, eta ez bazter guztiak errepidez bete. Ez dut erabiltzen autobidea, ez delako errentagarria niretako eta orain ordainsaria jarri gura dutela beste errepide batzuetan? Zergak dagoeneko ordaintzen ditugu".

> ELKARTASUNA

## Haitirako materiala batuko du Oñatiko GKEk gaurtik

Beasainen egoitza duen Herriak Elkarlanean GKEk Haitirako materiala batzeko kanpaina egingo du gaurtik aurrera Gipuzkoan. Materiala batzeko hiru puntu zehaztu dituzte, eta horietako bat Oñatiko Hermansoloña GKEren lokala izango da. Horren harira, Debagoieneko eta Debabarreneko materiala Oñatin batuko dute. Bi astez, egunero egongo dira Bidebarrieta kaleko lokalean 10:00etatik 12:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Batuko dutena izango da: pasta, azukrea, arroza, lekaleak, olioa, analgesikoak, antibiotikoak, bendak, eskularruak, toallak, izarak, mantak eta udako arropak.

> EUSKARA

## Eskaintza konbinatua eskaintzen du AEK euskaltegiak

Debagoieneko AEK euskaltegia ikaskuntza konbinatuak eskaintzen hasi da. Horren harira, *on-line* eta aurrez aurreko saioak uztartzen dituzten ikastaroak ematen hasi dira, besteak beste, taldekako lana eta autoikaskuntza batzen dituztelako.

Dagoeneko martxan dute 3. mailako eskaintza. 120 orduko ikastaroa izango da, otsailaren 1etik ekainaren 18ra arte. Astero aurrez aurreko saio bat egingo dute, eta lana *on-line* egingo dute.

Eskaintza berriaren gaineko informazioa eskatzeko edo izena emateko AEK euskaltegira dei dezakete interesatuek, 943 77 03 69 telefonora; edo *www.aek.org* webgunean begira dezakete.

> POLITIKA

## Arantzabal eta Garaiondo bi urte gehiago espetxean

Auzitegi Goreneko Arlo Penaleko Salak beste bi urteko zigorra jarri die Aittor Arantzabal eta Mikel Garaiondo bergararrei. Vicente Gonzalez fiskalak zigor bera jarriko die dagoeneko espetxean dauden Pernando Barrenari, Karmelo Landari, Jose Manuel Juradori, Mikel Etxabururi, Nuria Altzugarairi, Joseba Zinkunegiri eta Eusebio Lasari. Aurretik, irailean, Joseba Permachen, Joseba Alvarezen eta Juan Cruz Aldasororen kartzela zigorra luzatzea erabaki zuen fiskalak.

Herriko tabernei, EAE-ANVri eta EHAKri buruzko sumarioengatik daude auzipetuta.

**Mikel Otxotorena** > On:Giz elkarteko kidea

# "Oinarrizko gauzetan, sexuen arteko ezberdintasuna komuna da mundu osoan"

**MIREIA BIKUÑA** > ESKORIATZA

**Elkarhezitzenek antolatuta, emakumeen eta gizonezkoen arteko ezberdintasunen gaineko tailerra egin zuen On:Giz elkarteak, Eskoriatzan zapatuan. Elkarteko kide Mikel Otxotorenarekin egin dugu berba gai horri buruz.**


On:Giz taldeko Mikel Otxotorena. JOSETXO ARANTZABAL

**Emakumeak eta gizonak izatez ezberdinak gara, ala ezberdin egiten gaituzte?**

Duda barik, ezberdin egiten gaituzte. Gizonak eta emakumeak berdinak gara jaiotzez, baina txikitatik erakusten digute nolakoak izan behar dugun.

**Zer egin dezakegu egoera hori bukatzeko?**

Aspalditik dabiltza gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasuna bultzatzen, eta horien kontra egitea ez da erraza. Gizartean aldaketak poliki-poliki gertatzen dira.

Dena den, bide onean goazela uste dugu, azken urteotan aldaketak antzeman ditugulako. Mugimendu feministak hasi ziren emakumeen eskubideak aldarrikatzen, eta eurek zabaldu zuten bidea. Orain, gizonezkoen talde batzuk eurekin lanean hasi gara, eta hortxe dihardugu gure eskuetan dagoena egiten.

**Zer egiten duzue On:Giz elkartean?**

Elkartasunaren alde lan egiten duen elkarte mistoa gara. Gehienbat, sentsibilizazio lana egiten dugu. Bestalde, formazioari garrantzia ematen diogu, edozein aldaketa bultzatzeko ezinbestekoa da-eta. Era berean, berdintasunaren gaineko ebaluazioak eta txostenak egiten ditugu ikuspegi maskulinotik.

**"Ezinbestekoa da inposatu zaizkigun genero sistema eta rolak hankaz gora ipintzea"**

Garbi daukagu genero sistemak bide honetatik jarraitzen duen bitartean, hortik jaiotzen diren injustiziek jarraitu egingo dutela. Gure ustez, ezinbestekoa da inposatu zaizkigun genero sistema eta rolak hankaz gora jartzea, eta alde batera uztea sexuen arteko zatiketak eta jarrerak.

**Sexuen arteko ezberdintasuna leku guztietan gertatzen da?**

Bai. Hau ez da aberats diren herrialdeetako arazo esklusiboa, herrialde pobreetan ere gertatzen da. Agian, testuinguru eta kultura ezberdinak dira, baina oinarrian arazo berbera da. Berdin da non jaio zaren. Oinarrizko gauzetan sexuen ezberdintasuna komuna da mundu osoan: emakumea gizonarekin etengabeko menpekotasunean bizi da. Noski, toki batzuetan gizartea matxistagoa da, eta arazoa askoz larriagoa izaten da.

**Badago berdintasuna lortzeko biderik, edo hori badagoela pentsatuta, optimistegiak gara?**

Irtenbidea baduela uste dugu, eta agian optimistak garela erakusten du horrek. Arazoa da berdintasunerako aldaketa gertatzeko sistema bera aldatzea beharrezkoa dela; besteak beste, sistema kulturala, ekonomikoa eta politikoa.

---

etxeko leihotik


Iker Barandiaran > 'ibarandiaran@goiena.com'

## Bizitzari begiratzeko eta bizi izateko moduak

Ni bizi naizen etxeko leihotik ez dut Debagoien osoa ikusten, ezta askori jaten ematen dioten eta ibarra ezagun egiten duten kooperatiba bat bera ere. Horren ordez, Kurtzebarri ikusten dut, aretxabaletarrendako sinboloa dena. Arrasaten bizi nintzenean, berriz, Udalatx neukan erreferente, arrasatear gehienon moduan. Gauza bera gertatuko zaie eskoriatzarrei Atxorrotzekin, oñatiarrei Aloñarekin eta abar.

Mendi arteko bailara baten bizitzeak baditu gauza batzuk: ezin dugu begi bista bakarrean inguru guztia ikusi eta pareko tontorrei so egiten diegu. Haien handitasunean neurtu eta txiki sentitzen gara, tamainan ikusten dugu gure burua. Mendi artean bizitzeak herri bakoitzaren nortasuna eta inguruekiko desberdintasuna areagotzen badu ere, erakusten digu gauzak beste modu baten ulertzen eta neurtzen, handikeriarik gabe, eta askotan kontziente ez izan arren, naturarekiko begirunez.

**"Mendi artean bizitzeak gauzak bere tamainan ulertzen erakusten digu"**

Euskal Herria ere, hein batean, horren parekoa da eta gure nortasuna garatu arren, ez gara handikeria-zaleak. Eta gainetara igo barik, gure begiradaren jomuga urrun heltzen ez bada ere, gai gara ulertzeko bertakoendako gauza onik ekarriko ez duen tren handinahirik ez dugula gura. Bizitzari begiratzeko eta bizi izateko modua, biak, bat-batean aldatzea ez da guk eskatu duguna.

**> Datuak eman**

**Orain dela gutxi ekonomialari oso ezagun batek esan zidan jakin gura duela AHT egin izanagatik Sevillako ekonomiak Malagakoarekin alderatuta zertan hobetu duen, zerbaitetan hobetu badu; konparatiba bat egin gurako luke.**

**> Lehentasunak**

**Gizartearen zati handi batek bizi duen krisi larriaren aurrean, justifikatuta dago inoiz EAEn egin den gastu handiena AHT eraikitzeko izatea? Ez dago beste lehentasunik? Gastua baino onura handiagoa ekarriko du?**

---

**JENDARTEA** > ADIERAZPENA

# 'Egunkaria'-ko auzipetuen alde batu ziren Arantzazun

Euskal gizartearen ordezkaritza zabalak bat egin zuen Arantzazun 'Egunkaria libre!' aldarrikatzeko

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Egunkariaren Alde Elkarteak deituta, hainbat aurpegi ezagun batu ziren zapatuan Arantzazun, "Euskal Herriaren bihotzean", *Egunkaria*-ko auzipetuei elkartasuna adierazteko. Hala, euskal gizartearen ordezkaritza zabalaren babesa izan zuten auzipetuek, eta argazkia atera zuten babes hori irudikatzeko.

Ondoren, Gandiaga Topagunean, Juan Mari Torrealdaik hartu zuen hitza. Jasotako babesagatik eskerrak eman zituen, eta absoluzioa lortzeko gizartearen babesaren beharra azpimarratu zuen.

**AURPEGI EZAGUNAK**

Babes taldearen izenean Xabier Mendigurenek eta Txaro Arteagak berba egin zuten. Baina, han ziren, besteak beste: Arzallus, Garaikoetxea, Muguruza, Basterretxea, Etxenike eta Atxaga.


Auzipetuak eta babes taldeko aurpegi ezagunak, Arantzazuko santutegiaren aurrean. JOSETXO ARANTZABAL

**TURISMOA** > FITUR AZOKA

# Jendearengan interesa sortu du 'Ignaziotar Lurraldea' ekimenak

Krisiagatik erakusmahai gutxiago izan da aurten, baina jendea ibili da informazio eske

'Ignaziotar Lurraldea' ekimenak, Gipuzkoako hiru santutegiren ibilbideak batzen ditu




Etxe-Aundi jatetxeko Marga Romariz eskuratutako diplomarekin Bernabeu, atzean daukala. GOIENKARIA

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Atzo, domeka, itxi zituen ateak Fitur azokak. Krisiaren mamua gertutik izan duen arren, jendea gerturatu dela azaldu digu Ernesto Murgiondo, Oñatiko Kultura zinegotzi eta Gipuzkoako Diputazioko Turismo zuzendariak. Murgiondo, profesionalei zabaldutako egunetan izan da Fiturren: "Krisiaren eragina erakusmahai kopuruan eta tokian igarri da, baina jendea ibili, ibili da azokan".

Gipuzkoan azpimarratu diren hainbat toki eta ekimenen artean, Donejakue urtea, Zumaiako *flysch*a eta lurpeko turismoa daudela adierazi digu. Lurpeko turismoaren barruan, Arrikrutzeko kobak, Ekain-Berri eta Arditurri daude. Hain zuzen ere, hiru dira ikurrak: Ekain-Berri, Arditurri eta Arrikrutz. Baina, turismo erlijiosoak izandako gorakada nabarmendu nahi izan dute *Ignaziotar Lurraldea* proiektuaren bidez. Hiru santutegi batzen ditu: Loiola, Antio eta Arantzazu.

Ana Heriz, Mankomunitateko Turismo teknikariak balorazio positiboa egin du: "Jendeak interesa erakutsi du eta informazio asko eskatu du". Natura eta erlijioa batzen dituzten ibilbideek interes handia piztu dute. Herizek adierazi digunez, *Ignaziotar Lurraldea* egitasmoaren barruan, ibilbide berriak prestatu gura dituzte: esaterako, San Francisco de Borjarena; baita taldeendako ibilbideak ere.

**KALITATEA OINARRI**

Asmoen artean dago alojamendu eta jatetxe ezberdinekin kalitatezko programak garatzearena. XVI.mendeko erretaulen ibilbidea eta ildo tematiko ezberdinak sakontzeko nahia ere azaldu dute bultzatzaileek.

ESANAK

**"Ildo tematiko ezberdinetako ibilbideak landu nahi ditugu, adin tarte guztietara iristeko eta disfruta dezaten"**

**Ana Heriz** >Turismo teknikaria

DATUA

**21**

**IBILBIDE**

Ibarreko mendi ibilbide sareak 21 ibilbide ezberdin eskaintzen ditu. Natura zein erlijio turismoak indarra hartu du eta publiko zabal baten eskaerak asetzea du asmo.

**AZPIEGITURAK**

## Bidea moztuta, Mugarritte parean

Arrasateko saihesbidea izango da Aretxabaletara joateko bide bakarra

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Bariku arratsaldeaz geroztik Arrasateko saihesbidea da Arrasatetik Aretxabaletara joateko zabalik dagoen bide nagusi bakarra. Izan ere, moztuta dago bide zaharra. 2009 urtearen amaieran izandako lur mugimendu bat da mozketa horren arrazoia; Mendebaldeko saihesbidea egiteko lanetan gertatu zen lurjausia, Mugarritte parean.

**IRAUPENA ZEHAZTEKE**

Bariku arratsaldean, urtarrilak 22, itxi zuten bide zaharra eta hala jarraituko du lanek irauten duten bitartean; zirkulaziora berriz noiz zabalduko duten ezin zehaztu daiteke, beraz, oraindik.

Bien bitartean, auto-gidariek Arrasateko saihesbidea –GI-627 errepidea– hartu beharko dute Arrasatetik Aretxabaletara joateko. Gipuzkoako Foru Aldunditik jakinarazitakoaren arabera, baina, beste bi puntutatik ere desbideratuko dute zirkulazioa: Azbe eta Mugarritte dira igorritako prentsa oharrean jasotako bi puntuak.

**TELEBISTA** > LTD

## GOITB modu digitalean ikus daiteke dagoeneko Leintz bailaran

Orain helburua da prozesua ahalik eta azkarren amaitzea eta laster Debagoiena guztian ikusi ahal izatea Goiena Telebista modu digitalean

**A.B/G.A** > BERGARA

Goiena Telebistak pausu garrantzitsua eman zuen joan den astearen bukaeran: aro digitaleranzko lehenengo pausua, hain justu. Murun kokatuta dagoen antena da Goiena Telebistako antena printzipala; bada, Muruko antena piztu zuten barikuan. Hemendik aurrera, Goiena Telebistaren seinale digitala emitituko du antena horrek, Leintz Bailara guztian.

Zalantza barik, pausu garrantzitsua izan da hori Debagoieneko telebistarentzat eta bertako bizilagunentzat. Izan ere, urtarrilaren 22tik, Arrasaten, Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan Goiena Telebista Lurreko Telebista Digitalaren bitartez ikusteko aukera dago; bai behintzat, telebista edota antena horretarako egokituta izanez gero.

**ARAMAIOKO KASUA**

Aramaion ere badira telebistaseinalea Murutik jasotzen duten etxebizitzak eta, beraz, gauza bera gertatuko da horietan ere. Gainontzekoetan, baina, oraindik ez: Aramaioren kasuan, Goiena Telebista herri guztian modu digitalean ikusi ahal izateko, Gureiako dorrean ekipo digital berriak ipini beharko dira. Hori egin ezean, GOITBren seinale digitala ez da herriko etxe denetara ailegatuko.

**DESKODEATZAILEAREKIN 52.EAN**

Lurreko Telebista Digitala ikusi ahal izateko deskodetzailea izanez gero, 52. kanalean aurkitzen da Goiena Telebista. Sintonizatzeko probak egin eta Goiena Telebista aurkitzen ez dutenak tekniko batekin ipini beharko dira harremanetan, hark arazoa konpondu eta antenan beharrezkoak diren egokitzapenak egin ditzan.

Joan den astekoa lehen pausoa izan zen, beraz, baina datozen egunetan, apurka-apurka Goiena Telebistaren seinale digitala Debagoieneko gainontzeko herrietara ere iristen joango da. Hori da azken helburua: Goiena Telebista, laster, Debagoiena osoan, Lurreko Telebista Digitalaren bitartez ikusi ahal izatea. Gauzak horrela, Goiena Telebistako arduradun teknikoen nahia da prozesua ahalik eta azkarren bukatzea.

> EKONOMIA

### Mekanikalan enpresak Erregulazio Espediente berria aurkeztu du

Mekanikalan ixtekotan dabiltza: enpresak Erregulazio Espediente berria aurkeztu du, langile guztien kontratuak suntsitzeko proposamenarekin. Epailearen esku dago kontua eta uste dute otsailean edo martxoan jakinaraziko duela enpresarekin zer gertatuko den. Hori horrela, oso kolokan dago une honetan Mekanikalaneko 42 langileen etorkizuna; horietatik erdiak, gainera, Arrasate, Aramaio eta ingurukoak dira.

Egoera horren aurrean, hainbat langilek mobilizazioak egin dituzte, CCOO sindikatuaren eskutik; barikuan Arrasaten egindakoa izan da orain arteko azkena. Sindikatuak kalte-ordainik handiena eskatu du langileentzat –45 egunekoa– eta salatu du "enpresak 25 egunekoa" eskaintzen duela. Mekanikalaneko ugazabak Arrasate Irratiari adierazi dio erabateko porrot ekonomikoan dagoela enpresa.

> EKONOMIA

### Mendigoiako langileak mugagabeko greba hasteko prest daude

Mendigoia Hoteleko langileek 24 orduko greba egin dute barikuan eta zapatuan. Soldatak ordaindu ez izana salatu dute eta egoerak hobera egiten ez badu, mugagabeko greba egiteko prest daudela azaldu dute.

Mendigoiako langileek adierazi digutenez, ordainketen arazoak urtebete baino gehiago darama. Hiru hilabetetako soldata kobratu gabe egon ostean, iazko irailean greba egin zuten. Enpresarekin hitz egin eta soldaten zati bat ordaindu zien. Hala, langileek zuzendaritzari konfiantza ematea erabaki zutela kontatu digute. Hala ere, egoerak okerrera egin duela gaineratu dute: "Kaleratzeak egon dira eta langileok lan gehiago egiten ari gara, kobratu gabe. Ez dugu erantzunik jaso eta mugagabeko greba egiteko prest gaude". ASTELEHENEKO GOIENKARIA zuzendaritzarekin harremanetan jartzen saiatu da; ez du erantzunik jaso.

auzorik auzo

**SANTXOLOPEZTEGI** > Oñatiko auzoa da Santxolopeztegi, herrian Madalena moduan ezagunagoa dena. Azken 14 urteetan Juan Gordoa izan da auzo-alkatea, baina orain, alkate barik daude; inork ez du gura ardura hori hartu.



Migel Angel Ormazabal *Mala*, ermitaren aurrealdean. A.E.

**Migel Angel Ormazabal** > Santxolopeztegiko auzotarra

# "Ermita barrutik guztiz berritu da, orain falta da kanpoko harria ateratzea"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Ormazabalek dio Madalenako auzotarrak auzo-laneko beti egoten direla prest, auzo bizia dela. Orain, baina, auzo-alkate barik daude: inork ez du gura ardura hori hartu. *Mala*-k azaldu dizkigu auzoko gorabeherak; baita San Francisco de Borja bizi izan zen tokia ere.**

**Santxolopeztegi izenaz baino gehiago, Madalena moduan ezagutzen da auzoa!**

Santxolopeztegi auzoa beti Madalena izan da. Errekatik gora dagoen zatia da Madalena auzoa. Gaur egun 17 baserri daude, eta denetan bizi da norbait. Gainera, azkenaldian etxeren bat ere egin da. Beste aldera, Oñatirantz, Garibai auzoa dago, baina auzo hura ere eliza kontuetarako Madalena da.

**Auzo-lan handia egiten duzue Madalenan.**

Auzo-lanetarako, dagoen auzo jatorrena da. Frontoian elkartzen gara. Obra hau orain dela 5 urte inguru egin genuen; Udalak dirua ematen du materiala erosteko, eta beste guztia auzotarrek egiten dugu. Jende gaztea lanerako prest dago.

**Zein da gaur egun auzoak duen arazo edo kezka nagusia?**

Arazo nagusia bideekin izan dugu orain arte. Lehengo kamino ofizialak goitik joaten ziren; baina jarri dituzten lantegiekin denak desagertu dira. Azkeneko urteetan asko aldatu da auzoa; lehen dena zelaia zen, eta orain dena aldatu da. Pena da, niretzat, behintzat.

**Zubi bat egin dute industrialde berrian, eta dirudienez ez zaudete gustura.**

Ulmak egin du zubi bat oso altura txikikoa, eta egurra botatzen dabiltzan kamioiak ezin dira hortik pasa; hortaz, pinuak ditutenei eragiten dien arazoa da.

**Ermita orain dela gutxi berritu duzue. Zer falta da egiteko?**

Fatxadan, harria ateratzea da falta dena. Barrutik guztiz berritua dago, baina kanpoko zatia da falta dena. Zapatu guztietan izaten dugu meza, eta kanpaiak egunero jotzen ditugu: 12:00etan eta 20:00etan.

**Madalenako jaiak oso ezagunak dira herrian. Zer dute berezia jaiok?**

Auzoko jende gazteak oso ondo egiten du lan. Oso jai onak antolatzen dituzte: harri-jasotzaileak, musika... egoten da. Zapatuan, erromeria egoten da 23:00etatik 06:00ak arte.

Gainera, zapatu gauean, Madalenan hain ezagunak diren berakatz-zopak egoten dira, gura duenarentzat. Gainera, esan behar da data aukerakoa dela jaiak ospatzeko: uztailaren 22a.

**Azkeneko urteetan, gainera, gauez autobusa egoten da herritik auzora etortzeko!**

Bai, hala egin dute azkeneko hiru urteetan. Hori oso ondo dago. Azken finean, jendea herrian ibiltzen da, edaten, eta dena ixten dutenean etortzen dira hona. Ondo dago autobus zerbitzua izatea jaietara etortzeko. Euro baten truke izaten da bidaia.

BITXIKERIA

## "San Francisco de Borjaren ohe zati bat dago ermitan"

1551. urtean San Francisco de Borja Madalenako ermitara etorri zen. "Loiolako San Ignaziok bidali zuen Oñatira, hemengo jendea lasaitzera", dio *Mala*-k. Madalenan bizi izan zen, eta ermitan kapera bat egin zioten. "Hark meza esaten zuen kapera ikusgai dago; hark erabilitako kaliza, kanpaitxoa... daude ermitan", azaldu du *Mala*-k. Gainera, kaperan, San Francisco de Borjarena izan zen ohe zati bat dago: "Beste zatiak hona etorritako gotzainek eraman dituzte, oroitzapen moduan", dio.

Madalenako ermitan dagoen kanpaitxoak umeek berba egiten ikasteko balio omen du.



Sukaldaritza natural eta energetikoaren gaineko ikastaroa egingo dute sei zapatutan Bergarako Angiozar auzoan, hango Haizeberri elkarteak antolatuta. Sukaldaritza mota horren azalpenak eta zehaztasunak eman zituen joan den eguaztenean Bergarako kultura etxean Jose Luis Rubiok; azken 10 urteotan sukaldaritza energetikoa egiten du hark.

**Jose Luis Rubio** > Sukaldaritza energetikoan aditua

# "Gorputzean bizitasuna ematen digu sukaldaritza natural eta energetikoak"

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

**Jakien energia gure gorputzaren beharretara egokitzen duen sukaldaritza mota da sukaldaritza energetikoa. Sukaldaritza makrobiotikoaren oinarri batzuk hartzen ditu eta ez du produkturik baztertzen, naturalak eta biologikoak badira, behintzat.**



Jose Luis Rubio, Bergarako kultura etxean egindako hitzaldia hasi aurretik. TXOMIN MADINA

**Zein da sukaldaritza energetikoaren definizioa?**

Jaki bat hartzen dugunean bere propietateetan, mantenugaietan jartzen dugu arreta: kaltzioa, burdina, A bitamina... Baina ahaztu egiten dugu jaki horrek eman dezakeen energia neurtzea. Adibidez, sagar bat jaten dugunean zaporea eta testura antzemateaz gain, efektu bat nabaritzen da, eragin energetikoa. Aldiz, sagar horrek dituen mantenugaiak zazpi-zortzi ordu barru barneratuko ditu gorputzak, digestio prozesua egin eta gero.

**Produktuak ez ezik, jakia nola prestatzen den ere badu zerikusia energia hartzeko?**

Bai, eta hori da bigarren zatia, jan behar ditugun elikagaiak prestatzeko modua, alegia.

Jakien energia gure beharretara egokitzen duen sukaldaritza mota da sukaldaritza energetikoa. Adibidez, janaria ez dugu berdin prestatuko etxera nekatuta heltzen garenean edo bazkalostean lanean jarraitu behar dugunean.

**Nola prestatu behar dugu janaria egoera bakoitzean, bada?**

Adibidez, etxera nekatuta heltzen naizenean, erlaxatuko nauen zerbait jan behar dut. Eta hori, janaria astiro-astiro prestatzen lortuko dut; esaterako, barazkien erregosia, ordubetez su geldoan prestatutakoa.

Eguerdian, berriz, arratsaldean lanean segitzeko adina energia ematen didan zerbait jan behar dut. Lekalea, barazkia zein arraina izan, modu arinean prestatu behar dut, bazkaria ez dadila astuna izan. Entsalada bat prestatzen badut, adibidez, eta negua dela kontuan izanda, hobe da entsalada epela jatea eta, ahal dela, ozpin askorik ez erabiltzea edo horren ordez limoia erabiltzea.

**Prestatu behar ditugun produktuak ere ezberdinak dira kasu bakoitzean?**

Izan daitezke, baina prestatzeko moduak garrantzi handiagoa du elikagai motak baino.

**Erabiltzen dituzuen elikagaiak, produktuak, denok ezagutzen ditugunak dira?**

Bai. Gozagarri ezberdin batzuk erabiltzen ditugu, hala ere, eta baita algak ere, mineral asko dituztelako eta garbitzaile oso onak direlako. Horrez gain, ondutako sojaren eratorriak ere prestatzen ditugu; tamaria eta misoa, esaterako.

Erabiltzen ditugun produktu gehienak, hala ere, denok ezagutzen eta jaten ditugunak dira; hori bai, biologikoak edo organikoki landutakoak direnak bakarrik jaten ditugu. Arrazoia da askoz energia handiagoa dutela produktu naturalek eta mantenugaiek ere indar handiagoa dutela.

**Sasoian sasoikoak?**

Bai. Neguan, esaterako, beroa ematen diguten jakiak, udaberrian barne indarra sustatzen digutenak eta udan, hoztu egiten gaituzten produktuak.

DEFINIZIOA

**"Jakien energia gure beharretara egokitzen duen sukaldaritza mota da energetikoa"**

GAKOA

**"Elikagaiek baino garrantzi handiagoa du jaki horiek prestatzeko moduak"**

LOTURA

**"Sukaldaritza makrobiotikotik abiatzen da eta begetarianoaren ezaugarri batzuk ditu"**

**Norberak duen lanbidea, adina edo osasun egoera baldintza izango da, ezta?**

Noski. Lana eserita egin eta buru-lana duen lagile batek, adibidez, energia trinkoa, sendoa ematen dioten jakiak hartu beharko ditu; mijoa, esaterako. Hazten ari den ume bat eta hirugarren adineko bat ere ez dira berdinak, ezta kirol asko egiten duena eta ez duena egiten ere.

Gure indarra, bizitasuna, lantzeko eran prestatu behar dugu janaria, bizi izateko gogoa indartuko duen moduan.

**Sukaldaritza energetikoak badu loturarik makrobiotikoarekin edo begetarianoarekin?**

Sukaldaritza makrobiotikotik abiatzen da sukaldaritza modu hau, eta begetarianoaren ezaugarri batzuk ere baditu.

**Baztertzen du elikagairen bat, produkturen bat?**

Ez, produktu guztiak erabiltzen ditugu, baina neurrian jaten ditugu.

**Non du jatorria sukaldaritza energetiko eta naturalak?**

Espainian, esaterako, Montse Bradford kataluniarrak zabaldu du. Argibide praktikoekin, errezetekin eta egoera bakoitzarendako onena zer den azalduz egin du zabalkundea. Jatorria, hala ere, ez dakit zehazten, Amerikako herrialdeetan zein europarretan agertzen da-eta sukaldaritza mota hau.

**Zenbateraino da ezaguna Euskal Herrian?**

Gero eta ezagunagoa da. Arrasaten eta Donostian, esaterako, badakit jendea dagoela sukaldaritza energetikoa praktikatzen duena. Itziarko jatetxe batek, bestalde, aukera ematen du modu horretara prestatutako jakiak eskatzeko.

Euskal Herrian, hala ere, jakien zaporeari, usainari, koloreari ematen zaio garrantzia, eta zaila da gorputzari onura ekar dakiokeen jaki kulturaren berri ematea eta hedatzea.

**Bergarako Angiozar auzoan Haizeberri taldea sortu dute, sukaldaritza energetikoa gehiago ezagutzeko.**

Bai. Anton Otaolak koordinatzen du, eta Inmaculada Ortiz de Orruñok zuzendu. Azken hori, gainera, Montse Bradforden ikaslea eta kolaboratzailea da.

**Udazkeneko ikastaroak arrakasta izan zuelako antolatu dute bigarrena?**

Egia esan, horrelako ikastaroetarako ez du jende askok izena ematen. Angiozarkoan ere zortzi-bederatzi lagunek hartu zuten parte, baina interes handia agertu zuten guztiek eta gaia zabaldu nahi dugulako antolatu dute bigarren ikastaroa. Amantal eta guzti sartzen dira sukaldera, eta hantxe ikasten dute zer den sukaldaritza natural eta energetikoa.

**Zergatik probatu behar dugu sukaldaritza mota hau?**

Bizirik gaudela sentitzen laguntzen digulako. Horrez gain, ordea, produktu naturalak erabiltzen ditugu, eta, ondorioz: batetik, mantenu-gai aberatsagoak barneratzen ditugu eta, bestalde, gure lurrak, nekazari lurrak bizirik iraun dezan laguntzen dugu.

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**IMANOL ITURGINTZA**
Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behea
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

**TXORROTA**
Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdarak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behea C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

**IZBAR**
BERGARA
• Leiho eta ate isolatzaileak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleiho errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea,
Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**kale inkesta**

# Gaur egun oso modan daude sare sozialak, baina badakizu zer diren? Eta, erabiltzen dituzu?



**Aintzane Arana**
Langilea
Bergara

"Badut halakoen berri. Gainera, zortzi urteko alaba daukat eta haren bidez *zugaz.com* ezagutzen dut. Aukera onak direla uste dut, baina jakin egin behar da erabiltzen; beldur pittin bat ematen didate, egia esan".



**Lide Oregi**
Erretiratua
Bergara

"Bai, ezagutzen ditut baina ez ditut erabiltzen, ez zait gogoa piztu. Ordenagailua erabiltzen dut, Internet ikastaroa egin dut-eta. Teknologien aukerak onak diren arren, norberak jakin behar du erabiltzen".



**Iban Etxaniz**
Ikaslea
Azpeitia

"Ez ditut erabiltzen. Orain dela urte batzuk *messanger*ra erabiltzen nuen, baina orain ez. Uste dut erlazionatzeko modu hotza eta inpertsonala dela. Galtzen dabil kalera irten eta jendearekin berba egiteko ohitura".



**Wendy Estrada**
**Lorea Palacios**
Bergara

"Ezagutzen ditugu, baina ez ditugu erabiltzen. Ordenagailua jolas egiteko erabiltzen dugu; lagun artean berba egiteko, ostera, telefonoa edo sms mezuak erabiltzen ditugu. Inguruan, badugu erabiltzen dituen jendea".

**zorroztailea**



Elena Laka

# Internet gabeko eguna

"Internet gabeko egun bat imajina ezingo dugun garaia helduko da. –Igor Garcia, automatika eta industria elektronika ingeniaria–. Hamar edo hamabost urtean, Internet asko aldatuko dela uste du Igor Garciak, bai erabileran bai teknologian."
Berria > 2010-01-23



Amama, zu txikia zinenean bazegoen ordenagailurik? Gure semeak bost bat urte izango zituen serio-serio amandreari galdera hori egiten ziola entzun nionean. Ordurako, berak ohitura hartuta zeukan Google-en Garfio kapitainaren –bere orduko idoloa– izena tekleatu, eta haren marrazkiak ikusteko. Egun, amama txunditu egiten da, herritik kanpo egonda kaxa lau bat besterik iruditzen ez zaion gauza batean, ilobak "Gipuzkoako bibliako" eskelak erakusten dizkionean.

Zaila egiten zaie umeei ordenagailuak eta Internet gaur goizekoak direla ulertzea; gu txikiak ginenean horrelako ezer ez zegoela imajinatzea; edo bere gurasoak bideojokorik gabe bizi zirela pentsatzea. Ostera, gure umeen lagunen guraso gehienek xehetasun osoz konta dezakete noiz ikusi edo erabili zuten lehen aldiz ordenagailu bat, itsasoa nagusitan ikusten duenak bezalaxe. Eta, seguru asko, ondo gogoratzen dute, dezente beranduago, orain boligrafo bat hartzea bezain ekintza arrunta den lehen mezua noiz idatzi zuten. Alegia, gure belaunaldia Internet bariko bizitzan hazitakoa eta ikasitakoa izanda, segituan egin du bere tresna berria, nork bere behar eta gustuen arabera, jakina. Gertatu da azkeneko bi mendeetan belaunaldi bakoitzak aurrekoak baino asmakizun eta berrikuntza gehiago eduki eta bereganatu dituela, agian erabat konturatzeke gauza berria zenik. Horrela gertatu zaio gure gurasoen belaunaldiari argi-indarrarekin, Gizarte Segurantzarekin edo etxeko elektratresnekin. Eta geureari, eguneroko dutxarekin, automobilarekin edo telebistarekin. Zeinek irudikatu bizitza horiek barik! Ariketa moduan bakarrik, beraz, interesgarria deritzot umeei kontatzea bazela garai bat telebista egun osoa piztuta ez zegoena, automobilean GPS eta DVD barik ibiltzen zena, kalean ordu jakin batean elkartzeko bost telefono dei egiten ez zirena, edo mendira gore-tex barik joaten zena. Gure seme-alabentzat, Olentzeroren ipuina errealitate gordina da, guk gure haurtzaroaren egunerokotasunaz konta dezakegun fantasiazko ipuinaren aldean.

**"Zaila egiten zaie umeei Internet gaur goizekoa dela ulertzea"**

**"Interesgarria deritzot lehengo garaiak azaltzea"**

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

ARRASATE
**> Errepideetako asfaltoa egoera txarrean**

Irakurle batek adierazi digu egoera txarrean dagoela, orokorrean, gure errepideetako asfaltoa. "Pentsatzen dut elurteei aurre egiteko botatako gatzaren eragina izango dela, baina lastima da Arrasateko Hiper Eroski inguruan saihesbidea zein egoeratan dagoen ikustea", esan du.

"Denbora gutxi da inguru horretan asfaltoa berritu zutela, baina ez du asko iraun egoera onean".

ESKORIATZA
**> Santa Ana aretoa berritzeko egitasmoa**

Eskoriatzar bat pozik agertu zaigu. "Entzun dut azkenean aurrera egingo duela Santa Ana aretoa berritzeko egitasmoak. Pozik nago albistearekin eta ez ni bakarrik. Uste dut herriak behar duela horrelako azpiegitura bat. Onuragarria izango da herriarendako. Ea lanak lehenbailehen hasten dituzten".

ANTZUOLA
**> Zorionak Iñaki Toledo oilagor ehiztariari**

Arrasatetik dei bat jaso dugu Iñaki Toledo antzuolarrak egindakoa nabarmentzeko. "Espainiako txapelketa irabazi du oilagor ehizan", adierazi digu.

"Sekulakoa iruditzen zait euskaldun batek –zer esanik ez, debagoiendar batek– txapelketa hori irabaztea. Zoriontzeko modukoa dela uste dut", esan digu.

**usteak uste**

Maider Arregi

# Interesa & korrupzioa

Thailandiako tsunamiarekin gertatu zen gauza bera gertatu da orain Haitiko hondamendiarekin. Falta zitzaiena haitiarrei! Mafiak umeak bahitzen hasi dira. Dagoeneko, 15 bat ume desagertu dira ospitaleetatik. Hondamendien atzean beti daude etekin ekonomikoa zein politikoa atera nahi dituzten bihotz gabeak. Baina umeen bizitzarekin horrela jolasteak ez dauka izenik! Ume hauendako trauma handia da *lehen munduko* lurralde batera joatea; zertarako, aberatsek berehala ume bat kartara izateko duten desioa betetzeko? Adoptatu nahi dutenek, agian, euren borondate guztiarekin egingo dute. Baina jakin dezatela ume hauendako horrelako tragedia baten ostean, bat-batean, euren burua bestelako lurralde batean ikustea guztiz traumatikoa dela. AEBetako armada *boteretsuak* ezin du ezer egin?

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Goiatz Arana **Erredakzioa** Larraitz Zeberio, Arantzazu Ezkibel, Maider Arregi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati> 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19
Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20




**> ARRASATE**
Udaltzaingoak gaur, astelehena, estreinatuko du Nafarroa etorbideko egoitza **> 14**



**> BERGARA**
Ozaeta auzoan, 40 bat autorendako aparkalekua egokitu du Udalak; asteon amaitu dituzte lanak **> 16**



**> OÑATI**
Ikasle etorkinak behar dituzte Udal Euskaltegian, euskaraz berba bat bera ere ez dakitenak **> 18**



Liburutegiaren eta Herri Eskolaren inguruari lehentasuna ematea erabaki du Udalak. JOSETXO ARANTZABAL

**ESKORIATZA** > AZPIEGITURAK

# Eskola inguruko eta Gaztainaduiko argiteria publikoa aldatzeko bidean

**ZAHARKITUTA**
Neurketa batek agerian laga du instalazioak, oro har, zaharkituta daudela

**INBERTSIOA**
Estatu Fondoko 40.000 euro inguru inbertitu nahi ditu Udalak egitasmoan

**LARRAITZ ZEBERIO** > ESKORIATZA

Udalaren susmoak baieztatu egin dituzte neurketaren emaitzek: Eskoriatzako argiteria publikoa oso egoera eskasean dago. "Ez bakarrik ekipoak txarrak direlako edo zaharkituak daudelako, kontratuak ere oso gaizki daude orokorrean", adierazi du Pedro Lasagabaster alkateak.

Herriko zortzi gune aztertu dira neurketa horretan. "Ikusi da kontsumoa altua dela, gure sarea eta gure farolak zaharrak direlako. Leku batzuetan nabariagoa da beste batzuetan baino, baina egoera orokorra dela esan daiteke". Udalak emandako lehenengo pausoa kontratuak berrikustea izan da. Kasu batean baino gehiagotan kontratatutako potentzia behar baino handiagoa zen, eta ondorioz kostua neurriz kanpokoa.

**INSTALAZIO BERRIAK**

"Gure proposamena, orain, argiteria sistema bi gunetan berritzea da; Luis Ezeiza herri eskola inguruan eta Gaztainadui kalean", aurreratu du Lasagabasterrek. "Egubakoitzeko batzordean aztertu genuen gaia, eta aste honetako osokoan onartuko dugu. Lanak lehenbailehen hasi nahi ditugu".

Lasagabasterrek azaldu du bi guneak aukeratzeko lehentasunak finkatu behar izan dituztela: "Uste dugu liburutegi-eskola inguruak baduela lehentasuna besteekin alderatuta. Badakigu beste auzoetan ere beharrezkoa dela, baina apurka-apurka txoko guztietara heltzea da gure asmoa".

**OBRA ZIBILA, TXIKIA**

Pedro Lasagabasterrek aurreratu duenez, bi guneotan egin beharreko obra zibila txikia da: "Teknikoek esan digute gune horietan argiteriaren sarea nahiko ondo dagoela; beraz, ez da aldatu behar. Batez ere farolak aldatuko ditugu".

Ez omen da gauza berdina gertatuko herriko beste zenbait guneetan: "San Pedro auzoan, esaterako, erreforma integrala egin behar da. Koadroak, sarea eta faroak... guztia berritu beharko dugu".

## Bi guneotan, LED teknologia aplikatuko dute; etorkizuneko sistema dela diote adituek

LED argiteria sistema nahikoa hedatuta dago etxebizitza partikularretan. "Askoz ere potentzia gutxiagorekin funtzionatzen dute luminariek eta, ondorioz, kontsumoa eta honen kostua askoz ere txikiagoak dira", azaldu du Lasagabasterrek. "Iraupena ere dezente luzeagoa omen da, eta mantenua merkeagoa". Eskoriatzako Udalak adituak kontsultatu ditu inbertsio hori egin aurretik. Aldaketa egitearen arrazoiak bi dira: kostuak murriztea eta jasangarritasuna bultzatzea. "Orokorrean, sistema inbertsio ona dela diote adituek", esan du alkateak. "Pentsatzen dugu momentua dela kontu honekin aurrera egiteko eta hasiera batean, behintzat, herriko bi gunetan egingo dugu inbertsioa". Alkateak kalkulatzen du hilabete beharko dutela baimen guztiak lortzeko. "Lanak lehenbailehen hastea da gure asmoa".



Gizonezko bat sagardo-tragoa egiteko gertu. JOSETXO ARANTZABAL



Trikitilari eta pandero jotzaile talde zabala izan zen Iturrietan eta ederki berotu zuen giroa. J. A.

**ARAMAIO** > SAGARDOA

# Iturrietan ere egin dute txotx! zabalik daude upelak

Martitzenean ireki zuten sagardo denboraldia Arrasaten; zapatuan, Aramaion

**GOIATZ ARANA** > ARAMAIO

Sagardo egarriz zeuden aramaioarrak. Zapatuan, 20:00ak iristeaz bat, zabaldu zituzten upelak eta egin zituzten denboraldiko lehen tragoak, mokadu goxoz lagunduta. Irekiera ekitaldia herrikoia izan zen eta trikitilari eta pandero jotzaileek ez zuten hutsik egin. Hasi eta ordu erdira, ikusi genituen lehen dantzak eta entzun genituen lurrera erorotako baso apurtuen hotsak; gauza normalak biak, sagardotegian.

Aramaioko eta inguruko; herrietako jende asko batu zen, jende gaztea, batez ere. Eta aurpegi ezezagunen artean, baziren ezagunak ere: Manex Agirre bertsolaria, Lierni Altuna gai-jartzailea edota Asier Agirre alkatea.

**SAGARDO HELDUA**

Aramaioko sagarzaleen eta Arabako sagar eta sagardogileen elkarteetako lehendakari Juan Antonio Aretxagak azaldu zigun aurtengoa sagardo ona dela oraindik ere hobetu daitekeela apur bat baina nahiko helduta dagoela sasoi honetarako. "Nahiko txinparta dauka, oso aromatikoa da eta hori kolorekoa", esan zigun. Hiru upel dituzte Iturrietan; 6.000 litro sagardo inguru.

Egun, bi sagardotegi daude Araban: Iturrietan bat eta Askartzan bestea. Poliki, baina, lurralde horretan ere sektorea ari dela indartzen erakusten du horrek, Aretxagaren ustez.



Jende ugari batu zen Partaittin, txakolina probatzeko. J.A.



Hainbat lagunek jardun zuten txakolina banatzen. J.A.

**BERGARA** > TXAKOLINA

# Urteko Kataide txakolina iritsi da Partaittira

Probatu dutenek egiaztatu egin dute Arregi ekoizleak esandakoa: aparta dago aurtengoa

**G.A** > BERGARA

Javier Arregi Kataide markako txakolin ekoizleak baditu pozik egoteko arrazoiak: 2009 urtea ona izan da txakolinarentzako, eta atzo zortzi egindako Getariako Txakolin Egunean dastatu zuten berak ekoitzitakoa ere.

Getariatik bueltan eta ohiturari jarraituz, gogoan izan ditu Angiozarko Partaitti auzoko bizilagunak eta eurekin izan zen atzo. Eguraldiak ez zuen asko lagundu eta aurreko urteetan baino jende gutxixeago batu zen. Zazpi kaxa hustu zituzten.

**BERGARA** > ANIZTASUN ASTEA

# Aniztasun Eguneko ekitaldiak primeran txertatu dira herrian

**GOIATZ ARANA** > BERGARA

Bukatu da Aniztasun Astea; zapatuan eman zioten amaiera Aniztasun Egunarekin. Askotariko ekintzak jasotzen zituen egitarauak egun horretarako, eta guztiak egin ziren bakarra izan ezik: Jon Maia egitekoa zen *Riomundo* liburuaren gaztelerazko bertsioaren aurkezpena bertan behera geratu zen. Afrikarrek bete zuten sortutako hutsunea, euren musikarekin.

Gaztetxean egindako perkusio eta txalaparta tailerrarekin abiarazi zuten Aniztasun Eguna. Artatse elkartean zen hurrengo hitzordua: herri bazkaria. Eta horixe izan zen, hain justu, arrakasta handiena izan zuten ekintzetako bat: 70 bat pertsona batu ziren.

**EZOHIKO ZAPOREAK**

Egunak agintzen zuen moduan, berezia izan zen egun horretako bazkaria, noski: senegaldarrek arroza arrainarekin prestatu zuten eta pakistandarrek oilaskoa saltsa pikante batekin. Horixe izan zen menua eta gustura jan zuten bertan batutakoek. Baina bada beste arrazoi bat gehiago bazkari berezia izan zela esateko: bukaera aldera arte ez ziren eseri. Izan ere, zutik egin zituzten mokadurik gehienak, elkar ezagutu, mugak apurtu eta harremanak sendotzeko helburuarekin.

**EUSKAL ETA AFRIKAR DOINUAK**

Nahasketa platerean, eta nahasketa musikan, arratsalde-iluntze partean trikitiak eta Afrikako perkusioek bat egin zutelako herriko kaleetan. Musikariek bikain uztartu zituzten etxeko eta atzerriko instrumentuak, eta bergararrek gozatu egin zuten emaitzarekin. Herriko plazatik abiatu ziren eta geldialdiak egin zituzten, besteak beste, Domingo Iralan eta Simon Arrietan; eta bergararrek dantzan egin zuten.

Senegal, Pakistan, Maroko, Txile edo Holandako jendeak parte hartu du, toki horietako eta gehiagotako jendea bizi delako herrian. Errealitate hori plazaratu nahi izan dute bultzatzaileek, kanpotik etorritako eta bertan jaiotakoen arteko harremanak sortzeko. Aurreikuspenak bete egin dira eta udal ordezkariak pozik daude oso emaitzarekin.



Ohiko jakiak beste modu baten prestatu zituzten zapatuko bazkarirako. J.ARANTZABAL



Elgetan, une oro izan zen jendea karpan. JOSETXO ARANTZABAL

**DEBAGOIENA** > INGURUMENA

# Beira birziklatzeko jakin beharrekoak

**G.A.** > BERGARA

Beira birziklatzeko kanpainak osatu du bere ibilbidea. Debagoieneko Mankomunitatearen ekimenez, herri denetatik pasa da karpa. Elurra zela-eta ez zuen Bergaran eta Elgetan egoterik izan hasiera baten zehaztutako datan, baina asteburu honetan toki bietara ailegatu da: zapatu goizean Bergarako plazara, eta bariku arratsaldean Elgetara.

**JAKIN MIN HANDIA**

Herri bietan izandako monitoreei galdetuta jakin ahal izan dugunez, beira birziklatzeko informazio-kanpainak oso erantzun ona izan du. Jakin minak bultzatuta, jende asko gerturatu da, eta ez da gutxiagorako; gezurra dirudien arren, oraindik ere asko dugulako ikasteko. Askok uste dugunaren kontra, beira eta kristala ez dira gauza bera, beirak ez bezala kristalak beruna duelako. Lehen multzoan sartzen dira botilak, potoak eta fraskoak, eta edukiontzi berdean sartu behar dira; bigarrenen multzokoak dira edalontziak, leiho eta ateetako kristalak, portzelana, zeramika... eta horiek ez dira edukiontzi berdera bota behar, zakarrontzira baizik. Garrantzitsua da hori argitzea, askotan errepikatzen den akatsa delako.

Gainerako debagoiendarrek moduan, asteburu honen ondotik, bergararrek eta elgetarrek ere ikasi dute lezioa. Pizarra bana jaso dute opari.

**BERGARA** > JAIAK

# Giro aparta izan dute Ubera auzoko San Paulo jaietan



Uberako auzotarrak dantzan. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Giro paregabean pasa dute aste bukaera Uberako auzotarrek. Egubakoitz ilunkaran hasi zituzten jaiak, bakailao-janarekin. Jesus Mari Elortza auzo-alkateak esan digu 45 lagun batu zirela afaritan.

Zapatua, berriz, jolasen eguna izan zen: igel jaurtiketa, mus txapelketa, umeendako kukaina... izan zituzten. Ondoren, txokolate-jana.

**GAUR, MEZA**

Atzo, domeka, 100 lagun inguru batu ziren eliza inguruan. Meza entzun ondoren dantzariak eta abesbatza izan zituzten.

Uberako San Paulo jaiak gaur amaituko dituzte. 11:00etan meza nagusia izango dute, eta ondoren salda eta txorizoa Jaolatzan.



JOSETXO ARANTZABAL

**ARETXABALETA** > JAIA

## Kanuto deuna eguna ospatzeko 100 lagun batu ziren bazkaritan

Aurten, hamargarren urtez ospatu dute Kanuto deuna Aretxabaletan. Giro aparta izan zuten, betiko moduan; baina, aurten, bazkaritan beste urte batzuetan baino lagun gutxiago egon ziren: 100 lagun inguru. Arratsalde partean kontzertuak izan zituzten herriko tabernetan, eta iluntzean Txikibarren salda hartu ondoren, kalejira egin zuten Orkestra taldearekin. Antolatzaileek aitortu digute bultzadatxo bat behar dutela; hau da, laguntza gustura hartuko dutela.

**ZERBITZUAK** > NAFARROA ETORBIDEAN EGOITZA BERRIA

# Udaltzaingoak gaur, astelehena, estreinatu du egoitza berria

Udaltzainen bat egunero egongo da udaletxeko orain arteko bulegoan, herritarrei harrera egin eta informazioa emateko

**U.M.** > ARRASATE

Gaur hasi dira Arrasateko udaltzainak egoitza berritik zerbitzua ematen. Nafarroa Etorbidean dago Udaltzaingo berria, Mankomunitatearen egoitzaren azpiko aldean.

Hamar egunean ibili dira udaltzainak material guztiaren trasladoa egiten, eta dagoeneko handik dabiltza jardunean.

**BAITA UDALETXEAN ERE**

Dena den, guztiak ez dira INEMen pareko egoitza berrian lanean egongo: "Egunez udaltzainen bat udaletxean egongo da, betiko lekuan, sarrera-eta kontrolatzen eta behar duenari informazioa helarazten", azaldu du Jose Luis Etxeberria udaltzainburuak. Udaletxeko langile horren ordutegia ere zehaztu du: "07:00etatik 21:00etara jardungo du".

**GAUEAN, ZER?**

Gaueko funtzionamenduaren gaineko azalpenak ere eman ditu udaltzainburuak: "Orain arte moduan emango dugu zerbitzua, eta udaletxeko bulegoan ipiniko dugu beharrezko informazioa, (telefono zenbakiak eta beste) herritarrak gurekin harremanetan jarri ahal izateko gauez ere".




Udaltzainak Nafarroa etorbideko egoitza berriaren atarian, barrura sartzeko bidean. U.M.

**GAUEKO LANTALDEA INDARTUTA**

Horrez gainera, eta gaueko zerbitzuarekin lotuta, jakinarazi du, baita ere, euren asmoa dela gaueko lantalde hori indartzea, hiru barik agente gehiago bideratuta: "Langile berriak ditugunez taldean, lau edo bost langile ibiliko dira, akaso", azaldu du Jose Luis Etxeberriak.

**ORAIN ARTEKO MODUAN LANEAN**

Edozelan ere, egoitza estreinatzeak ez du ekarriko aldaketa handirik Udaltzaingoaren eguneroko funtzionamenduan. Esaterako, 24 orduko zerbitzua ematen segituko dute, astean zazpi egunean. Eta eurekin harremanetan jartzeko telefono zenbakiek orain artekoak izaten segituko dute: 943 79 14 39 edo 943 20 20 10.

**LANTALDEAN 35 LAGUN**

Bestalde, egoitza aldatzeko arrazoia da orain artekoa txiki geratu zaiela. Gaur egun 35 lagunek osatzen dute Arrasateko Udaltzaingoa. Udaletxeko egoitza, berriz, sei-zazpi langile hartzeko dago prestatuta.

ZELAKO EGOITZA

### Mankomunitatearen azpiko hiru lokal dira Udaltzaingoarendako

Udaltzaingoaren egoitza berriaren ezaugarriei dagokienez, Mankomunitatearen egoitzaren beheko aldeko hiru lokal egokitu dituzte.

Nafarroa etorbidetik du sarrera, eta sartu eta berehala mostradorea kokatu dute, herritarrei harrera egin ahal izateko. Mostradoreak, gainera, gurpildun aulkietan dabiltzanendako egokitutako gunea ere badauka. Haren atzean, berriz, bi bulego daude.

Horrekin batera, sartu eta ezkerreko aldean, beste gela txiki bat ere badu, herritarrek behar dituzte tramiteak intimitatea zainduta egin ahal izateko, salaketa edo bestelako kontu pertsonalak lantzeko, hain zuzen ere.

Eta barruko instalazioei dagokienez, udaltzainei eurei zuzenduta egokitu dituzte. Hori horrela, adibidez, aldagela bi, komun bat eta *office* bat ere baditu egoitza berriak.

---

**GIZARTEA** > GERTAERAK

# Atxiloketak, lapurreten harira

Hiru lagun atxilotu zituzten egubakoitzean, ustez herriko hainbat gunetan lapurretan egiteagatik

**U.M.** > ARRASATE

Lapurreta saiakerak herriko erdigune eta inguruan gertatu ziren egubakoitzean goizaldeko bostetan. Zarugalde kalean, furgoneta baten ahalegindu ziren lapurreta egiten. Eta baita Corinto tabernan ere; azken horretan leiho baten kristalean zuloa egin zuten.

Erdigunean, berriz, Zur-Lur jostailu-dendan ere erakusleihoaren kristalak apurtu zituzten; eta erdiguneko beste pare bat lekutan ere ahalegindu ziren lapurretan egiten: perfume-denda baten eta arropa-denda baten, hain zuzen ere.

**OSO GAZTEAK**

Herrizaingo Sailaren informazioaren arabera, diligentziak zabalik dituzte. Eta atxilotutako hiru gazteei egotzitako delitua da lapurretan egitea indarra erabilita. Emandako xehetasunen arabera, oso gazteak dira hiru atxilotuak.

**GARAJEETAN LAPURRETAK**

Egubakoitzekoaren ostean, azpimarragarria da hamabost egunen bueltan lapurreta gehiago ere izan direla herrian: orain pare bat aste, San Andres auzoko Kurtzetxiki plazako parkingeko 35 bat garajetan sartu ziren lapurrak. Orduan, baina, ez zituzten atxilotu.

---

**ZERBITZUAK** > ORTU EKOLOGIKOAK

# Garagartzako 80 ortu ekologikoetatik, 39 bueltatu egin dizkiote Udalari

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ezustekoa hartu dute Udalean Garagartzako ortu ekologikoen kontura izan duten erantzunarekin: azaroaren erdialdean entregatu zizkien Udalak ortuak erabiltzaile berriei, eta dagoeneko ia erdiek bueltan eman diote ortua Udalari, ez dutelako erabili gura.

**SUSMOA: DIRU KONTUAK**

Udaleko Ingurumen Sailetik jakinarazitakoaren arabera, ezezko horien arrazoiak aztertzen dabiltza orain. Baina susmoa dute batzuek, behintzat, arrazoi ekonomikoengatik erabaki dutela ortuari uko egitea.

Hilero 18 euro ordaindu behar dira ortua erabiltzeagatik; bestela esanda, hiru hilean behin 54 euro. Horrez gainera, 200 euro ere aurreratu behar dira, garantia modura.

**ARRAZOIAK AZTERTU EGIN BEHAR**

Hori, beraz, Udalaren ustez, batzuen koska, bereziki orain askok egoera ekonomiko larria bizi dutela jakinda. Beste batzuen kasuan, berriz, uste dute izena eman ostean egin beharreko lan eta jarraipenarekin jabetuta erabaki dutela ortuari uko egitea.

**ZAZPI BANATZEA FALTA**

Kontuak kontu, arrazoiak aztertzen dabiltzan bitartean, libre dauden ortuak berriro ere banatu egingo ditu Udalak. Ortuen itxaron-zerrendara jo dute horretarako eta dagoeneko 32 ortu banatu dituztela jakinarazi dute. Beraz, zazpi entregatzea besterik ez zaie falta. Behin guztiak entregatu ostean, nekazaritza ekologikoaren gaineko beste ikastaro bat antolatuko dute, erabiltzaile berriei nekazaritza mota horren oinarriak erakusteko.

---

**oharrak**

ERRETIRATUAK

**> Abaroako urteko kuotak**

Abaroa erretiratuen elkartetik jakinarazi dute zabalik dutela 2010eko kuotak ordaintzeko epea. Hain justu, eguenean (urtarrilak 21) zabaldu zuten, martxoaren 18ra arte. Egoitzako ordezkariek azpimarratu dute "ezinbestekoa" izango dela zortzi euroko kuota ordaintzea "Abaroako edozein ekintzatan parte hartzeko eskubidea izateko". Euskadiko Kutxako edo Kutxako kontu korrontea eraman beharra dago kuota ordaintzeko.

ODOL EMAILEAK

**> Odol ateratzeak**

Odol ateratzeak egingo dituzte datorren astean Arrasaten. Hitzorduak dira bihar, martitzena (urtarrilaren 26ean), eguaztenean eta eguenean. Lekua, berriz, betiko bera: anbulatorioa. 16:30etik 20:00ak bitartean dago odola emateko aukera. Eta iragarri dute otsailaren 3an eta 4an ere etorriko direla Arrasatera.

**Roman Martinez** > Besaide mendizale elkarteko lehendakaria

# "Elkarteak dinamika bat hartu du eta hori mantentzeko gai da, Besaide bizirik dagoen seinale"

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

**Joan den eguenean egin zuen Besaide mendizale elkarteak urteko batzar orokorra, eta 2010erako ekintzak eta diru kontuak izan zituzten berbagai. Roman Martinez (Arrasate, 1966) lehendakariarekin egon gara, eta Besaide "bizirik" dagoela dio.**

**Nola heldu zara elkarteko lehendakari izatera?**

Beste zuzendaritza batzorde batean egondakoa naiz. Elkartearekiko nolabaiteko atxikimendua izan dut betidanik, gaztaroko aisialdiko hamaika une erlazionatzen ditut elkartearekin, oso une ederrak bizi izan nituelako.

**Iaz zuzendaritza taldeak errelebo falta izan zuen...**

Hala da. Zuzendaritza taldeak erreleboa eskatu zuen, baina ez zen inor aurkeztu, *in-pass* egoeran sartu zen elkartea. Ekintzak bertan behera geratzeko mehatxua ere zabaldu zen.

Hori ikusita, lagun talde bat elkartu eta erreleboa hartzea erabaki genuen. Bederatzi lagun batu ginen eta niri egokitu zitzaidan lehendakari izatea; finean, norbaitek izan behar duelako. Zuzendaritza taldekoez gain, sail ezberdinek arduraduna daukate. Ondo funtzionatzen dugu, eta, iazko eskarmentuaren ostean, ilusio eta gogoz ari gara lanean. Orain, askoz lasaiago gaude.

**Besaide elkartea antolatzen dituen hamaika ekintzengatik da ospetsu. Zer aurreratuko zenuke urte berrirako?**

Azken urteetako dinamikarekin jarraituko dugu. Mendi eskiari dagokionez, urtarriletik apirilera lau irteera aurreikusi ditugu: lehena hilaren 17 eta 18ko asteburuan egin genuen; autobusa bete egin zen, gainera. Beste hiru geratzen dira, eta hilero bat egingo dugu.

Bestalde, eski alpino eskaintza ere mantenduko dugu eta hilero aste bukaerako irteera bat egingo dugu. Aurten ere Formigalera joango gara. Gainera, astebeteko egonaldia ere egingo da Alpeetan.

Eta, nola ez, mendi irteerak ere egingo ditugu. Otsailetik abendura bitartean hilero irteera bat egingo dugu Euskal Herriko paraje ezberdinetan. Mendiarekin jarraituz, mendi bizikleta irteera bi egingo dira, bat udaberrian eta bestea udazkenean.

**Baduzue berritasun aipagarririk? Ala erronka berririk?**

Aurten espeleologia sailari bultzada berezia eman gura diogu. Izan ere, azken urteetan etenda egon da eta sail hori suspertzeko asmoa dugu. Lehen esperientzia egin genuen abenduan, eta, jende askorik agertu ez bazen ere, irteera aberasgarria izan zen oso. Hala, *Debagoieneko barrunbeak ezagutuz* lelopean aurten beste hiru irteera egitea pentsatu dugu.

Bestalde, gaztetxoak hurbiltzeko erronka jarri diogu elkarteari. Nerabezaroan dauden gaztetxoei mendia gerturatu gura diegu, mendizaletasuna piztu. Bi ekintza aurreikusten ditugu, baina oraindik zehaztu gabe daude. Gainera, ez du kartelak jartzeak balio, gaztetxoekin zuzenean jarri behar dugu harremanetan; liderra dena edo jendea dinamizatzeko gai dena detektatu, eta harekin berba egin.

**2009a, urte ona Besaiderentzat?**

Datu bat: iaz 1.320 erabilera izan genituen. Erabilera, eta ez erabiltzaile; ez da berdina. 1.320 horietatik asko errepikatu egiten dira. Hala ere, zifra nahiko esanguratsua dela deritzot, eta elkartea herrian presente dagoela adierazten du. Beste datu esanguratsu bat da ekintza guztietatik bi bakarrik ezin izan zirela gauzatu: mendi eskiko irteera bat elur larregi zegoelako eta eski alpinoko beste bat jende faltagatik.

Elkarteak dinamika bat hartu du eta dinamika hori mantentzeko gai da. Elkartea bizirik dagoen adierazle garbia da.

**Hainbat elkartek diru arazoak izaten dituzte. Nola dago Besaide ekonomikoki?**

Elkartea diru aldetik osasuntsu dago, kudeaketa ona egin den seinale. Ekintzak egiteko dirua egon badago.

ESANAK

**"Elkartearekiko atxikimendua izan dut betidanik, gaztaroko aisialdiko hamaika momentu Besaiderekin erlazionatzen ditut, oso une ederrak"**

**"Elkartea diru aldetik osasuntsu dago, kudeaketa lan ona egin delako; ekintzak egiteko dirua egon badago"**

**Roman Martinez** > Lehendakaria



Roman Martinez, egueneko batzar orokorra hasi aurretik. J.B.



Iaz benetako piratak izan genituen; *Playa de Bakio* berriro bahitu zuten. GOIENKARIA

**JAIAK** > ARATUSTEAK 2010

# 750 txarteletatik 160 inguru geratzen dira bazkarirako

Otsailaren 1ean gaztetxea irekiko dute karrozak egiteko; aurten sari indibidualak ere egongo dira

**J.B.** > ARRASATE

*Ez izan xomorroa eta jantzi mozorroa!* Horra 2010erako Aratusteetako batzordeak aukeratu duen leloa. Aurten ere, beraz, mozorrotzen ez dena ez da ongietorria izango...

Azken urteetako joerari jarraituz, zapatuko –otsailak 13– festa bultzatzea da batzorde horren helburua. Hala ere, martitzeneko jaiarekin ere bat egin dute. Herri bazkarirako txartelak duela aste bi jarri ziren salgai –18 eurotan–eta atera zituzten 750 txarteletatik 160 bat geratzen dira. Basatin eta Kajoin amaitu egin dira; oraindik txartelik ez duenak Iluntz eta Monte tabernetara jo beharko du.

**SARI BERRIAK**

Zapatuko egitaraua iazko bera izango da: 12:30ean pregoia Biteriko *gasolineran* eta txarangaz girotutako kalejira. 14:30ean herri bazkaria Uarkapen, eta bazkalostean, sari banaketa eta kalejira batukadarekin. Batukadak huts egin zuen iaz, baina aurten Arrasaten izango direla ziurtatu du batzordeak. Amaitzeko, berbena izango da Herriko Plazan, 19:30ean.

Berritasun nagusia da karroza, koadrila eta taberna onenaz gain, sari indibidualak ere egongo direla: mozorro ero eta bitxiena saritu egingo da. Bestalde, karrozak egiteko gaztetxea zabalduko da, otsailaren 1etik 13ra.

**IKASTAROAK** > EMAKUME TXOKOA

# Otsailean eta martxoan, denen gusturako ikastaroak

Urtarrilak 25 eta 29 bitartean amaituko da ikastaro guztietan izena emateko epea

**J.B.** > ARRASATE

Emakume Txokoak dagoeneko kaleratu du otsail eta martxorako egitaraua. Zortzi ikastaro izango dira eta horietako baten izena emateko epea asteon amaituko da; gaur hasi eta hilaren 29ra bitartean itxiko dira izenemate guztiak. Besteak beste, bertsogintza, emozioak, sexualitatea, autoestimua eta gorputzaren mugimendu kontzientea landuko dira ikastaro horietan. Bestelako preziorik zehaztu ezean, Arrasaten erroldatutakoek 40 euro, kanpokoek 45 eta langabeek 20 ordaindu beharko dituzte ikastaroko.

**HAURTZAINDEGI ZERBITZUA**

Ikastaro eta tailerrak, besterik zehazten ez bada, emakumeendako dira, baina bestelako ekimenetan gizonezkoek ere har dezakete parte. Ekintzetan parte hartu ahal izateko, haurtzaindegi zerbitzua egongo da.

**AUZOAK** > OZAETA

# Asteon amaitu dituzte aparkalekuak

Ozaeta auzoan, erreka ondoan, 40 bat autorendako aparkalekua egokitu du Udalak



Udal brigadako langileak egubakoitzean, aparkalekuko zoruan argibideak marrazten. OIHANA ELORTZA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Beste 40 bat aparkaleku egokitu berri ditu Udalak. Ozaeta auzoan egokitu ditu, erreka ondoan zegoen orubean.

Egokitze lanak hasi zituzten udako opor aurretik eta asfaltatze lanak bukatu bezain pronto eta herrian, oro har, dagoen aparkaleku arazoa kontuan izanda, erabilgarri jarri zuten gunea, lanak erabat bukatzeke egon arren. Abendu erdialdera izan zen hori, eta aste honetan bukatu dituzte azkeneko eginbeharrekoak Udaleko brigadako langileek.

Egokitzapen lan horietan egin dute gunea garbitu, asfaltatu eta zoruko marrak eta bestelako zirkulazio argibideak marraztu. Horrekin batera, errekara ez erortzeko segurtasun hesia jarri dute eta baita argiztapen egokirako zazpi farola ere.

Bestalde, 40 aparkaleku horietako bat mugikortasun arazoak dituztenendako gorde dute eta litekeena da besteren bat zamalanetarako gordetzea, Udaleko iturrien esanetan.

**MARTOKON BESTE 27**
Martoko gainean beste 27 aparkaleku egin nahi ditu Udalak eta horretarako lagapen akordioa egin du lurjabeekin. Udalak ahalik eta azkarren egokitu nahiko lituzke aparkalekuok, auzoan dagoen gabezia kontuan izanda. Eraikitze datarik ez dagoen arren, lanok aurtengo aurrekontuetan jasotzeko asmoa dute Udaleko agintariek.

**JENDARTEA** > IKASTAROAK

## Oinarrizko joskintza eta defentsa pertsonal ikastaroak antolatu ditu Bizikasik

Otsailean izango dira bi ikastaroak eta izenematea dagoeneko zabalik dago; gainera, doan dira

**M.B.** > BERGARA
Oinarrizko joskintza eta nork bere burua defendatzen ikasteko doako ikastaroak antolatu ditu Bizikasik. Oinarrizko ikastaroari dagokionez, otsailaren 1etik 12ra izango dira eskolak, astelehenetik egubakoitzera, 10:00-12:00 ordutegian. Defentsa pertsonal ikastaroaren kasuan, otsailaren 22an hasi eta martxoaren 31ra arte izango da, astelehen eta eguaztenetan, 17:30-19:00 ordutegian.

Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu 943 76 93 94 telefono zenbakira (Miren) edo idatzi *info@bizikasi.com* helbidera.

**BEKAK, ATZERRIAN IKASTEKO**
Gazte Informazio Bulegoak atzerrian ikasteko beka eta dirulaguntzen gaineko informazioa duela jakinarazi nahi die herriko gazteei.

Beka zein dirulaguntza horien gaineko informazio zehatza Udaleko webgunean (*www.bergara.net*) kontsulta daiteke. Daude 24 sarrera ezberdin, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundikoa, Jaurlaritzarena, Erasmusena eta Injuvena.

> ERRETIRATUAK

### San Joxepekoek bazkaria egingo dute Inauterietan

San Joxepe elkartetik jakinarazi dute aurten ere ospatuko dituztela Inauteriak. Horretarako, antolatu dituzte bazkaria eta dantzaldia eta izango dira otsailaren 16an, San Joxepe erretiratuen elkartearen egoitzan.

Inauterietako bazkari horretan parte hartu nahi duten bazkideek izena eman beharko dute. Horretarako, jo behar dute Boni Laskurain kaleko egoitzako bulegora, 11:30etik 12:30era eta 17:30etik 18:30era bitartean.

**oharrak**

ODOL ATERALDIA
**> Urtarrilaren 27an izango da hurrengo odol ateratzea**
Ohi bezala, Seminarioko egoitzan egingo dute, 18:30ean hasita.

IKASTAROA
**> Erromeria dantzak eta dantza soltea, Jardunekin**
Erromeria dantzak dira otsailetik maiatzera, martitzenetan, 19:30-21:00 ordutegian. Fandangoa eta arin-arina, eguenetan, 19:30-21:00 ordutegian, otsailetik maiatzera. Izenematea eta argibide gehiago Jardun elkartean, 943 76 08 19 zenbakian.



ARANZADI IKASTOLA

## Aranzadiko ikasleak ETBko 'Sut&Blai' saioan gaur eta bihar

Euskal Telebistako *Sut&Blai* zientzia saioko kazetari eta kameralariak Aranzadi ikastolako batxilergoko lehenengo mailako eta DBHko 3.eko ikasleekin egon dira. Ur koheteen gaineko esperimentua grabatzera joan ziren Aranzadira. Ur koheteak ikusgarriak dira: koheteak plastikozko botila sinple batzuk dira, baina, Newtonen hirugarren printzipioa eta erregai moduan ura erabiliz, 50 metrotik gorako altueratara iristen dira. Irudian, Aranzadiko ikasleak ageri dira Nerea Alias aurkezlearekin.




GOIENKARIA

## Guraso elkarteak eman du saria

Angiozarko guraso elkarteak banatu du auzoko eskolaren alde antolatutako zozketaren saria. Unai Ziarsolo izan da irabazlea, eta pozik ageri da, argazkian, eskolako hiru umerekin. Irabazleak jaso du aste bukaerako egonaldia Abeziako (Araba) Munialdeko Etxea landetxean.

**JAIAK** > ARATUSTEAK

# Herri afaria azokan Aratuste-zapatuan

## Izenematea eguaztenean zabalduko dute eta txartelak 15 eurotan jarriko dituzte salgai

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Aratusteen atarian, egubakoitzean zabaldu zuten kultura etxean Udalak deitutako kartel lehiaketako lanen erakusketa. Sei lan jaso zituzten eta Ruben Montero izan da irabazlea. Diseinu grafikoa ikasi ondoren, gaur egun produkzio editoriala egiten ari da Ruben Montero Urnietan. 20 urte ditu eta aurretik beste lehiaketa batzuetan saritu dute; orain dela bi urteko Aratusteetako kartel lehiaketa irabazi zuen Bergaran eta joan den urtean Aretxabaletako Aratusteetan lehen saria eraman zuen. Oraingoan, 350 euroko saria eskuratu du eta Aratusteetako egitarauaren azala apainduko du haren kartelak.

Kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, esan bezala, kultura etxean dago ikusgai otsailaren 19ra arte, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara.

**PAILAZOAK ETA MOZORRO AFARIA**

Aratuste-domekan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Irrien lagunak* ikuskizuna izango da Udal Pilotalekuan, 16:00etan eta 18:30ean. Sarrerak otsailaren 1ean eta 2an jarriko dituzte salgai, 18:00etatik 22:00etara, Udal Pilotalekuko leihatilan. Gehienez, 6 sarrera hartu ahal izango ditu pertsona bakoitzak eta sarrera guztiak aurretik agortuz gero, emanaldi egunean ez dira zabalduko leihatilak.

Bestalde, Aratuste-zapatuan mozorro afaria izango da azokan, 21:30ean. Txartelak eguaztenetik –urtarrilak 27– aurrera eskuratu ahal izango dira Pol-Polen, Ariznoan, Kortazarren eta kultura etxean. Txartelak 15 eurotan izango dira salgai otsailaren 7ra arte. Norbaitek janari berezia behar badu (zeliakoen kasu) aurrez kultura etxean eman behar du abisua.



Ruben Montero Aratusteetako kartela erakusten. E.M.


GOIENKARIA

## Juan Arjona ipuin kontalaria eguenean Pol-Polen

Oihulari Klown antzerki taldeak aspaldian abian jarritako ahozko narrazio zirkuituarekin jarraituz, eguenean, urtarrilaren 28an, Juan Arjona ipuin kontalariaren saioa izango da Pol-Pol tabernan, 22:30ean. *Memorias de mi suburbio* izenburuko ipuin saioa eskainiko du sevillarrak. "Mi barrio está situado concretamente al margen derecho del Guadalquivir, por la parte que siempre se inunda...", hasten da esaten. Umorea eta kritika uztartzen ditu Arjonak. Eguenean duzue hitzordua harekin.

**MUSIKA** > ZABALOTEGIN

# Joseba Irazokiren emanaldia, apirilaren 16an

## Berakoaren kontzertua bertan behera geratu zen joan den urtarrilaren 10ean, elurragatik

**E.M.** > BERGARA

Urtarrilaren 10ean elurragatik bertan behera geratu zen Joseba Irazokiren emanaldiak badu data berria: apirilaren 16an izango da Berakoaren kontzertua Zabalotegin. *Euria ari du* diskoa aurkezteko birarekin dihardu Irazokik eta kritika onak besterik ez ditu jaso. Lan berriko kantuek folkaren iturritik edaten dute. Aurretik, *Negurdin EP* (2006) lan intimista eta *Olatuetan* diskoa kaleratu zituen Irazokik.

Musikari askorekin lan egin izan du beratarrak: Atom Rhumba, Gari, Barrence Whitfield, Petti, Rafa Rueda… Azken urteetan bakarkako ibilbideari ekin dio eta, esan bezala, *Euria ari du* da haren azken lana. Apirilaren 16an, beraz, Zabalotegin izango da, 22:30ean, eta sarrerak 5 eurotan jarriko dituzte salgai.

**ADI HOLDEN ETA HOT DOGS**

Bestalde, zapatuan, hilaren 30ean, Txapa Irratiak urtean zehar antolatzen dituen kontzertuen barnean, Hot Dogs eta Adi Holden taldeen kontzertua izango da gaztetxean, 22:30ean. Hamaika kantu batzen dituen diskoa kaleratu berri du Adi Holden talde bergararrak. Zapatuko kontzertua zuzenean entzuteko aukera izango da Txapa Irratian, FMko 97.25ean, eta *www.txapairratia.org/* webgunean.


Joseba Irazoki. GOIENKARIA

Altzari denda
Ikerleku zeharbidea
BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK

Aroztegia
San juan 1a
BERGARA
Tel.: 943 76 54 91
Faxa: 943 76 08 04

K21

• Proiektuak
• Koltxoiak
• Horma-armairuak
• Altzariak neurrira
• Ateak
• Eskailerak
• Leihoak
• Tarimak
• Egur lanak orokorrean






Euskaltegiko ikasleetako batzuk Koldo eta Xabier irakasleekin, eguazteneko eskolak hartu aurretik. MIREIA BIKUÑA

**HEZKUNTZA** > EUSKARA

# Ikasle etorkinak behar dituzte Udal Euskaltegian

## Euskaraz berba bat bera ere ez dakiten pertsonendako eskolak emango dituzte

## Otsailean hasiko dute ikastaroa eta 60 ordukoa izango da, astean lau edo sei ordurekin

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak etorkinendako ikastaro berezia egingo du. 60 ordukoa izango da, eta astean lau edo sei orduko erritmoan eman gura dute, otsailetik maiatzera arte. Interesatuek euskaltegian bertan eman dezakete izena hilaren 29a baino lehen, 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 18:00etara, 10 euro ordainduta. Ikastaroa martxan jartzeko zortzi ikasle beharko dituzte, era horretan HABEren finantzazioa lortuko dute-eta.

**"HASIERA MAILAKO IKASLEAK"**

Etokinendako ikastaroa euskaraz berba bat bera ere ez dakiten pertsonendako da. "Hasiera mailako ikasle etorkinak behar ditugu; alegia, gurekin euskara ikasiko dutenak. 10 edo 15 astean nabaritu egingo zaie ikasi dutena", esan digu euskaltegiko zuzendari Roberto Altunak.

Ikastaro berezia antolatzearen arrazoiaz galdetuta, hauxe esan digu: "Azken urteotan, herrira toki guztietako etorkinak etorri dira. Gehienak gazteak dira, eta askok zerbitzuetan egiten dute lan; besteak beste, tabernetan, jatetxeetan, baserrietan eta etxeetan. Horiei guztiei euskara menderatzeko aukera eman gura diegu euskaltegian".

**OÑATIKO HISTORIA, DVD-AN**

Euskaltegiak iaz 25 urte bete zituen, eta Oñatiko historiari buruzko lau hitzaldi antolatu zituzten. Horiek guztiak grabatu egin zituen Aitor Perosterenak, eta DVDan jaso dituzte. Herritarren eskura jarriko dituzte, baina kopiak egin aurretik eskaera egin beharko da euskaltegiko bulegoan hilaren 29a baino lehen. DVDa lau eurotan salduko dute.

**AISIALDIA** > HAURRAK

## Gaurtik egubakoitzera arte ate irekiak ludotekan

**M.B.** > OÑATI

Txaloka ludotekak ateak irekiko dizkie gaurtik egubakoitzera arte 4 eta 10 urte arteko neska-mutiko guztiei eta haien gurasoei. 17:00etatik 20:00etara askotariko ekintzak egingo dituzte; besteak beste, marrazkiak eta eskulanak egin, eta aurpegiak margotuko dituzte. Gainera, bihar eta egubakoitzean ekintza bereziak egingo dituzte.

Ludoteka gustuko dutenek otsailaren 1etik aurrera eman ahalko dute izena.

**'FAMILIXAN' EGITASMOA**

Bestalde, zapatuan 18:00etan *Familixan* egitasmoa martxan jarriko dute ludotekan. Helburuak dira, besteak beste, gurasoak eta seme-alabak ludotekan batera integratzea eta elkarren arteko hartu-emanak sendotzea.



Ludotekako umeak begiralearekin jolasean. TXALOKA LUDOTEKA

> ALDAKETA

### Gaurtik aurrera digitalean ikusi ahalko da telebista

Gaur egin dute itzalaldi analogikoa Oñatin, eta Belarretik emititzen duen telebista analogikoa itzali egin dute. Udalari aurreko astean jakinarazi zion data Itelazpik, Eusko Jaurlaritzako Justizia eta Herri Administrazio Sailaren menpeko sozietate publikoak. Hortaz, telebista kate guztiak digitalean ikusiko dira gaurtik. Dena den, itzalaldi analogiko horrek ez du GOITB harrapatuko: Goiena Telebista, digitalean abiatzen den arte, analogikoan ikusi ahalko da. Goiena enpresa etxekolanak egiten ari da ahalik eta azkarren hasteko digitalean emititzen, baina, esan bezala, analogikoan emititzen jarraituko du.

> ZABORRA

### Bihar egingo dute urteko lehenengo plastiko bilketa

Debagoieneko Landa Garapen Elkarteak baserri ingurunean sortutako plastikoen lehen bilketa egingo du etzi. Oñatin lau puntutan jasoko dituzte plastikoak: Zañartun, Zuazola inguruan; Murgian, Asentzio ermita ondoan; Olabarrietako autobus geltoki ondoan; eta ETEO ikastetxearen atzealdean.

Siloa estaltzeko eta belar boletako plastiko beltza; berotegietan erabiltzen den plastiko beltza; eta berotegietako plastiko zuria batuko dituzte. Hurrengo bilketak otsailaren 23an, martxoaren 23an, maiatzaren 25ean, uztailaren 27an, irailaren 28an, azaroaren 23an eta abenduaren 28an egingo dituzte.

### oharrak

DEIALDIA

**> Inauterietarako entsegua eguaztenetan eta zapatuetan**

Oñatz dantza taldeak Inauteri-zapatuan kalera aterako dituen dantzen entseguak eguaztenetan (20:00etan) eta zapatuetan (12:00etan) egiten dituzte Errekaldeko lokalean.

ZINEMA

**> 'Still walking' pelikula zineklubean**

Hirokazu Koreeda zuzendari japoniarraren *Still walking* pelikula emango dute eguenean, 20:00etan, kultura etxean. Gurasoak bisitatzera doazen bi anai-arrebaren istorioa kontatzen du. Abe Hiroshi, Natsukawa Yui, Takahashi Kazuya eta Kiki Kirin dira protagonistetako batzuk.



Coprecik aparkaleku moduan erabiltzen duen lurzoruan eraikin berria egin nahi du. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > UDALA

# Copreci aztergai gaurko osoko bilkuran

Arau subsidiarioetan aldaketa puntuala onartu behar dute eraikin berria egin ahal izateko

Horren harira, Udalak zabaldutako parte-hartze prozesuan bi iradokizun baino ez dira jaso

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA
Gaur, astelehena, arratsaldean, Aretxabaletako udaletxean egingo duten osoko bilkuran, Copreciko aparkalekuaren Hiri Antolaketa Arauen elementuen aldaketa puntuala onartuko dute, besteak beste.

Copreci lantegiko arduradunen asmoa da aparkalekua dagoen tokian eraikin berria egitea, egungoa txiki geratu delako. Bi planta izango ditu, eta beheko solairuan aparkalekua. Eremu hori eraikigarri egiteko, baina, Udalak aldaketa bat egin behar du arau subsidiarioetan eta onartu aurretik parte-hartze prozesua zabaltzera derrigortuta dago, Lurzoruaren Legeak hala dioelako.

**BI BATZAR ETA BI IRADOKIZUN**

Gaiaren gainean herritarren iritziak jasotzeko, Udalak bi batzar egin ditu eta horietatik ondoriozlatu du aretxabaletarren artean horrek ez duela aparteko kezkarik eragin.

Launa herritar agertu dira batzarretara eta bi iradokizun jaso dituzte: bata planta berria erdigunean egitearekin dago lotuta; eta bigarrenean, herritarra eraikin horren kokagunearekin ados azaldu bada ere, enpresarendako oso irtenbide erosoa dela eta Udalak trukean zerbait gehiago eskatu beharko liokeela dio aretxabaletar horrek.

Herritarrek egindako bi iradokizunak Hirigintza batzordean aztertu ostean, gaur 18:00etan hasiko den osoko bilkuran udal ordezkariek hartuko dute horren gaineko behin-behineko erabakia.

## Gabonetako saria, Pepa Maciarendako

Herriko merkatariek Gabonetan egindako *Eskoitzan erosi eta sari bikainak* kanpainaren irabazlea ezagutarazi dute. Pepa Macia izan da bi lagunendako afari ederra eta herriko dendetan gastatzeko 1.000 euroko bonua irabazi dituen eskoriatzarra. Argazkian, Leibar arrandegiko arduradun Maria Eugeni Sasianekin azaltzen da; denda horretan jaso zuen Maciak txartel irabazlea.




ESKORIATZAKO MERKATARIAK

> ARETXABALETA

### Egubakoitzetik astelehena bitartean, 'Avatar' arrakasta handiko filma ikusi ahalko da Arkupen

Hainbat film ikusteko aukera izango dute aretxabaletarrek datozen egunotan. Zineklubaren harira, eguenean, *El baile de la victoria* eskainiko dute, 19:30ean, lau euroren truke. Zinema komertzialari dagokionez, zinemazaleen artean harrera oso ona izan duen filma ikusi ahalko da: *Avatar*, hain justu ere. Egubakoitzean eta zapatuan, hilak 29 eta 30, 22:00etarako dago hitzordua eginda; domekan, 19:30erako; eta astelehenean, 16:00etarako. Lehen hiru egunetan sarrerak lau euro balioko du eta astelehenean, berriz, bi. Haur zineman, azkenik, domekan, *Alvin y las ardillas* izango dute umeek gertu, 17:00etan.

**ARETXABALETA** > AZPIEGITURAK

## Zarataren aurkako pantailak jartzen ari dira saihesbidean

Bi ingurunetan egongo dira horiek: hegoaldeko eta herrigunerako sarreretan

**M.B.** > ARETXABALETA
Debagoieneko hainbat herritan dagoeneko jarri dituzte zarataren aurkako pantailak, eta orain, Aretxabaletaren txanda iritsi da. Joan den astelehenean hasi ziren saihesbidean horiek jartzen. Lehenengo, astelehenetik eguaztenera bitartean, herriko hegoaldeko irteeran egon ziren lanok egiten; eta eguenean, herriko erdialdera sartzeko sarreran hasi ziren.

Pantailak jarri bitartean, saihesbideko bide bat moztu egin behar izan dute eta zirkulazioari semaforo baten bidez eman diote paso.

Saihesbide ondoan bizi diren aretxabaletarrek eskertuko dituzte bereziki pantaila horiek. Ibilgailuek sortzen duten zarata murrizteaz gain, ondoan dauden etxebizitzetakoek intimitate handiagoa izan dezaten balioko dute.



Langileak, erdiko irteeran pantailak jartzen. MIRIAN BITERI

**oharrak**

ESKORIATZA

**> Ur eta estolderia tasa ordaintzeko epea zabalik barikutik**

Eguenean, iazko laugarren hiruhilekoko erroldari dagozkion estolderia eta ur hornikuntzaren tasak argitaratu zituzten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Tason borondatezko ordaintze-epea barikuan, hilak 29, zabaldu eta martxoaren 22an itxiko dute.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA



Soran Etxea hoteleko ugazaba Montse Valerio, jangelan. MIRIAN BITERI

**LEINTZ GATZAGA** > SORAN ETXEA

# Sagardotegiko menua eskainiko dute Soranen

Aste bukaeran abian jarriko dute eta martxoa bukatu arte iraungo du ekimenak; 50 litro sagardo dituen kupela ekarriko dute eguen guztietan

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Oraindik ez du bete urte eta erdi Soran Etxea hotelak baina ekitaldi asko antolatu dituzte tarte horretan. Datorren aste bukaeran beste ekimen bat jarriko dute abian: sagardotegiko menua kupel eta guzti. Egueneán ekarriko dute kupela eta jangelan jarri; hala, afaltzen daudenek gura dutenean hartu ahal izango dute bertatik. Eta eguen guztietan ekarriko dute kupel berria, aste bukaeran sagardo freskoa izateko. Menuari dagokionez, gainerako sagardotegietan eskaintzen dutena izango da: bakailao tortilla, bakailaoa piperrekin eta txuleta. Baina ez dute menu bakarrera mugatu gura eskaintza eta beste era bateko menuak ere eskainiko dituztela jakinarazi du Soran Etxea hoteleko ugazaba Montse Valeriok eta gaineratu: “Ond badoa ekimena martxoa bukatu arteko egubakoitz eta zapatu guztietan eskainiko dugu”. Soraneko jangelak 50 bat lagunendako lekua du eta koadrilak hartzeko gertu daude.

### BERTSOLARIAK EKARRI

Soran Etxeko ugazaba kataluniarra da baina oso gustuko du sagardotegiko giroa. Eta bertsolariak ere etorriko direla aste bukaeraren baten jakinarazi du: “Berandu ibili gara orain ekartzeko, denboraldia hasteko, baina jende asko daukagun egunen baten ekarriko ditugu. Hotelaren urteurrena ospatzeko ere izan genituen irailean eta oso giro polita jarri zuten, nahiz eta nik neuk ez ulertu diotena”, esan du.

2008ko irailean zabaldu zuen Soran Etxea hotela Montse Valeriok senarrarekin batera. Aurretik Gaztainuzketako mendi etxeen ardura izan zuten. Urte eta erdi eskasean, Debagoieneko Mankomunitateak antolatutako gastronomi jardunaldien bi ekimenetan hartu dute parte, arrakasta handiarekin.

**ARAMAIO** > GAZTEAK

# Udala oraingoz pozik dago gazte lokaleko erabiltzaileak erakusten ari diren jarrerarekin

Gabonetan ireki zituen ateak berriro ere gazte lokalak eta ordutik pare bat bilera egin ditu Udalak gazteekin

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Herriko gaztetxoen eta Udalaren arteko harremana tirabiratsua izan da azken urte honetan. Dena dela, badirudi harremanak hobera egin duela. Urtebetez itxita egon ondoren, gazte lokalak Gabonetako oporretan ateak ireki zituen berriro ere. Aurretik Udaleko ordezkariek hainbat bilera egin zituzten gazteekin eta baita euren gurasoekin ere. Udalak hainbat baldintza ipini zizkien gazteei lokala irekitzeko: oinarrizko arau batzuk errespetatzea, herrian antolatzen diren ekintzetan parte hartzeko interesa azaltzea eta udaleko ordezkariekin eta Gazte Asanbladako ordezkariekin bilerak egitea hilean behin; izan ere Gazte Asanbladako kideekin partekatzen dute gazte lokala.

Badirudi, oraingoz, gauzak bide onetik doazela. Dagoeneko pare bat bilera egin dituzte udal ordezkariek, Gazte Asanbladako kideekin eta herriko gaztetxoekin, eta pozik daude azken hauek erakutsitako jarrerarekin. Dagoeneko Aratusteetara begira ipinita daude eta gaztetxoek jaietan parte hartzeko interesa azaldu ei dute.

### TAILERRAK GAZTE LOKALEAN

Datorren zapaturako, urtarrilak 30, antolatuta zegoen gazteendako tailerra bertan behera geratu da. Otsailaren 27an egingo dute hurrengoa: bitxigintza tailerra. Martxoaren 27an txalaparta tailerra egingo dute eta apirilaren 24an hanka paluena. Guztiak 16:30etik 18:30era izango dira, gazte lokalean.

**ANTZUOLA** > JAIAK

# Bihar izango da Aratusteetako lehenengo entsegua

Aratusteetako domekan (otsailaren 14an) egingo dituzte dantzok; aurten, Lantzeko Inauteria irudikatuko dute antzuolarrek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Bihar, martitzena, egingo dute Aratusteetako lehenengo entsegua: Torresoroan izango da, 20:00etan. Hala, martitzenero egingo dituzte entseguak.

Aurtengo Aratusteetan Lantzeko Inauteriak irudikatzea erabaki du Oinarin dantza taldeak. Esan digute aurretik ere egin dituzten dantzak direla; eta, gainera, samurrak direla. Hortaz, herritarrak animatu gura dituzte Aratuste-domekan parte hartzera.

Lantzeko Inauteriaz gain, Antzuolan ohikoa den sorgindantza ere egingo dute, eta ez dira faltako hartza, tximinoa eta hezitzailea.



Antzuolako Aratusteetako hartza, herriko plazan. GOIENKARIA

**ELGETA** > IKASTAROA

# Parte-hartze ona hiru ikastaroetan

Mendekotasunari buruzko ikastaroan 18 lagun ari dira, eta umeendako antzerki tailerrean, berriz, 20 bat gazte

**LARRAITZ ZEBERIO** >ELGETA

Asteon amaitu da web orrien diseinuari buruzko ikastaroa, baina martxan dira beste bi. Ana Gillegi zinegotziak balorazio positiboa egin du. "Mendekotasunari buruzko ikastaroak harrera ona izan du. 20 laguneko taldea zen muga, eta 18k eman dute izena".

Ikastaro hori dependentzia duten pertsonak zaintzen dituztenei bideratuta dago: eguneko zentroko profesionalei, etxezetxeko zerbitzua eskaintzen dutenei edo etxean dependentzia duen senideren bat dutenei, esaterako.

### ANTZERKI TAILERRA

Asteburuan egin dute antzerki tailerraren bigarren saioa. Proposamen honek ere harrera ona izan du, 20 gazte inguru elkartu dira-eta.

Eibarko Zurrumurru taldeko bi dinamizatzailek, jokoen bitartez, hainbat gaitasun lantzen dituzte umeekin. Taldearen kohesioa, inprobisazioa, intonazioa, irakur zaletasuna...

Ikastaro amaieran gurasoen aurrean ipuin bat antzeztea da euren asmoa. Bien bitartean, talde jokoak eta antzerki jokoak egingo dituzte, zapatu arratsaldetan, ludotekan.




**> FUTBOLA**
Bergarak 1-1 egin zuen etxean Ordiziaren aurka zapatuan **> 22**





**> SASKIBALOIA**
Soraluce BKE-k ezin izan zuen irabazi Zarautzen aurka: 68-75 **> 24**





**> ELKARRIZKETA**
Mikel Otero Bergara futbol taldeko kapitainarekin izan gara **> 27**




Partidu amaieran, bi taldeetako jokalariak batu, elkarren artean nahastu eta argazkiak ateratzeko gertu jarri ziren. ARANTZAZU EZKIBEL

# San Antonio Arrate baino gehiago izan zen lagunartekoan

**ASOBAL LIGA**

Atsedenaldia aprobetxatuz jokatu dute lagunartekoa

**J.D. ARRATE**

**23-26**

**REYNO DE NAVARRA SAN ANTONIO**

**Arrate** > Voncina, Cid (7), Gartzia, Obrvan (2), Beljanski, Berrios (1), Arroyo (3), Moyua, Harsanyi (1), Redei (4), Tokic, Serrano (1), Garate, Cutura (3) eta Petricevic (1).

**San Antonio** > Ristanovic, Guardiola (2), Mindegia (1), Vargas, Dominikovic (1), Ruesga (3), Hernandez, Gonzalez (1), Crowley (7), Besirevis, Alvarez (4), Agirrezabalaga (7).

**Epaileak**> Juan Jose Gupe eta Carlos Javier Gupe. Mahai epailea: Gorka Vicente.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Beste behin ere, Zubikoa kiroldegia bete egin zen lehenengo mailako eskubaloia ikusteko. Ikusleek ez zuten hutsik egin, ezta jokalariek ere: lagunarteko lehia izan arren, duten guztia eman zuten Arrate eta San Antonio taldeko mutilek, Zubikoan zapatuan. Alberto Agirrezabal San Antonio taldeko jokalariak esan zigun: "Jokalariek %200 eman dugu; izan ere, ligan jokatzea gura baldin badugu, horrelako partiduetan ere jokatu egin behar dugu".

**OMENALDIA ETA OPARIAK**

Talde bietako jokalari, entrenatzaile eta delegatuek opari bana jaso zuten Aloña Mendikoen izenean partidua hasi aurretik. Gainera, Arrateko delegatu Jose Antonio Alberdik aipamen berezia izan zuen urteetan Aloña Mendirekin izan duen harremanagatik. Banan-banan aurkeztu zituzten talde bietako jokalariak. Esan behar da, Igor Moiua Arrateko atezainak harrera beroa izan zuela Zubikoan bildutakoen partetik; izan ere, Moiua erdi *txantxikuarra* da.

Bestalde, Aloña Mendiko kadete mailako mutilak omendu zituzten, Gipuzkoako txapelketa irabazi berri dutelako.

Behin aurkezpenak eta omenaldiak eginda, lehia hasi zuten.

**SAN ANTONIO, HOBETO**

Hasieratik aurre hartu zuen markagailuan Iruñako taldeak. 15. minuturako 2-7 aurretik ziren nafarrak. Eibarko taldea ahalegindu zen gauzak ondo egiten, baina erritmoa hartzea kosta egin zitzaien. "Lehenengo zatian erritmo gutxirekin jokatu dugu eta, gainera, akats asko egin ditugu", azaldu zigun Igor Moiua atezainak. Atsedenaldira 7-10 aurretik iritsi ziren nafarrak. Bigarren zatian, intentsitate gehiagorekin jokatu zuten eibartarrek. Hala, aldea murriztea lortu zuten lehenengo 10 minututan: 14-16. Baina, hurrengo bost minututan 1-5eko partziala egin zuten nafarrek, markagailua 15-21 utziz. Hala, beti atzetik eta ezinean ibili ziren gipuzkoarrak. Partidua 23-26 amaitu zen.

**PARTIDUZ PARTIDU**

Agirrezabal pozik zegoen partidua irabazita: "Lagunartekoa izan arren, irabaztea gustagarria da. Aste gogorra izan dugu, korrika asko egin dugu eta uste dut nabaritu dela kantxan", azaldu zuen. Asobal ligan, Toledo izango dute hurrengo aurkaria. Bi puntu horiek irabaztea derrigorra ikusten du ligan aurrera egiteko. Arratek, ostera, jaitsiera postuak bi puntura besterik ez ditu. Partiduz partidu joan eta etxeko lehiak irabaztea ezinbestekoa izango dute.



San Antonioko Adrian Crowley jaurtiketa egiten. JOSETXO ARANTZABAL



Zubikoako harmailak jendez lepo bete ziren partidua ikusteko. JOSETXO ARANTZABAL

**ESANAK**

**"Bakoitzak bere postua lortu behar du; hala, ligan jokatzea gura baduzu, hemen ere ondo jokatu behar duzu"**

**Alberto Agirrezabal** > Jokalaria

**"Berezia izaten da Oñatin jokatzea; iaz ere izan nintzen. Egia esan, pozgarria da kantxara irten eta txaloak jasotzea"**

**Igor Moiua** > Arrateko atezaina



Agorrosin futbol zelaiaren egoera ez zen onena; lokatza zen nagusi eta astuna egin zitzaien jokalariei. JOSETXO ARANTZABAL

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA** > 19. JARDUNALDIA

# Bigarren zatian merituak egin arren, berdinketa azkenean Bergararendako

Etxekoen hutsegite bat baliatuz sartu zuen gola Ordiziak lehenengo zatiaren 38. minutuan

Bigarren zatian berdintzea lortu arren, garaipena eskuratzeko ahaleginek ez zuten fruiturik eman

BERGARA

**1-1**

ORDIZIA

**Bergara** > Belategi, Elorriaga, Arazkonaga, Nafarrate, Urteaga (Catalan, 85. min.), Markel, Agirre, Loiola, Alzola (Josu, 72. min.), Iñurrieta eta Cabanillas (Ibañez, 56.min.).

**Ordizia** > Arsuaga, Alvarez (Yassine, 80. min.), Iruin, Mikel, Zuluaga (Jauregi, 76. min.), Agirre, Julen (Fernandez, 80. min.), Luzarraga, Esnaola (Jauregi, 60. min.), Crespo eta Gisasola (Mendez, 80. min.).

**Epailea** > Ander Ruiz del Portal. Zenbait gauza etxean ahaztuta etorri zen. Bergarako taldeak utzi zizkion epaile lanak egiteko prakak eta akta jasotzeko inprimakia. Partidu amaieran ez zeuden oso gustura bere lanarekin Agorrosinen.

**Bestelakoak** > Ikusle mordoa batu zen Agorrosin futbol zelaiko harmailetan. Ordiziako taldeak jarraitzaile taldea ekarri zuen Bergarara eta animazio lan polita egin zuen euretako batek.

**LARRAITZ ZEBERIO** > BERGARA

Bigarren zatian lehenengoan baino joko hobea egin zuten zapatuan Manu Diazen mutilek. Ez zen, ordea, nahikoa izan mahoneroek hain beharrezkoa duten garaipena eskuratzeko.

Aldapan gora ipini ziren gauzak etxeko taldearendako norgehiagokaren 38. minutuan. Etxekoen defentsa akats batean, gola egin zuen Mikel Urreta ordiziarrak eta, hortik aurrera, lana gogotik egin zehar izan zuten mahoneroek.

Ordiziako taldea ona da, baditu aurrez hirugarren mailan jokatutako hainbat aurrelari. Norgehiagokaren lehenengo zatia, argi eta garbi, kanpoko taldearena izan zen. Diazek Iñaki Muxikaren lanaz baliatu nahi zuen; azpitik gehiago jokatzea, alegia. Zelaiaren egoerak eta Ordiziakoen jokoak, baina, nabarmen zaildu zituzten gauzak. Atsedenera aurkako markagailuarekin iritsi ziren Bergarakoak.

**BIGARREN ZATIAN, HOBETO**

Berdinketaren gola 51. minutuan iritsi zen. Unai Agirrek gauzatu zuen, Ordiziako atezainaren aldaratze bat aprobetxatuz. Gol garrantzitsua izan zen. Hortik aurrera, partiduari neurria hartu eta joko hobea egin zuten etxekoek.

Norgehiagokaren bigarren zatia oso borrokatua izan zen. Aukerak sortu zituzten bai etxekoek bai ordiziarrek, baina esan beharra dago baloiaren jabetza, txanpa horretan, mahoneroena izan zela.

Zortea, ordea, ez zen euren alde egon. Nahiz eta ordiziarren atera behin baino gehiagotan iritsi ziren, ez zuten jaurtiketetan asmatu eta denbora azkar joan zen Diazen mutilendako.

**DATORREN ASTEAN LIDERRA**

Sailkapeneko erdi pareko postuetan jarraitzen du Bergarako taldeak. Egia da garaipen bat eskuratzea komenigarria izango litzatekeela Diazen mutilen animuak altxatzeko.

Datorren astean Zarautz izango dute aurrez-aurre. Ez da nolanahiko arerioa. Mailako talde onenetarikoa da, eta igoera du helburu. Hark ere ezinbestekoak izango ditu garaipenaren hiru puntuak. Ikusi egin behar!

**Manu Diaz** > Bergarako entrenatzailea

## "Uneotan beharrezkoa dugu partidu batean hiru puntu batzea"

**L.Z.** > BERGARA

**Badira sei norgehiagoka Bergarak garaipenik lortzen ez duela. Entrenatzaileak uste du garaipen bat lortzea ezinbestekoa dela.**



L.Z.

**Nola ikusten dituzu gauzak denboraldiaren une honetan?**

Guretzako maila hau nahiko zaila da. Talde ia guztiek dituzte hiruzpalau jokalari onak, batez ere, aurreko aldean. Hutsegite bat egitea nahikoa da eurek aprobetxatzeko. Hori gehiago landu behar dugula uste dut.

**Landu beharreko gauzak zeintzuk diren argi duzu, orduan?**

Kontzentrazio mailan eta defentsan nik uste dut ondo gaudela. Aldiz, beste gauza batzuetan hobetu egin behar dugu. Guk ere arerioen hutsegiteak aprobetxatzen ikasi behar dugu. Kosta egiten zaigu puntu horretara heltzea.

**Nola aurreikusten dituzu hurrengo jardunaldiak?**

Garaipen bat behar dugu eta lehenbailehen. Badira sei jardunaldi lortzen ez dugula eta gogorra da hori. Azkenean puntuz puntu joatea oso aspergarria da, eta burua ere nekatu egiten da. Datorren astean Zarautzen aurka jokatu behar dugu. Liderra da baina garaipen hori behar dugu. Ez dakit Zarautzen aurkako partiduan edo hurrengoan izango den baina dagoeneko beharrezkoa da guretako hiru puntu partidu baten batzea.

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

# Garaipen garrantzitsua lortu zuen atzo Aloñak Zarautzen aurkako partiduan

Mikel Ibabe eta Iker Olalde –penaltiz–izan ziren atzokoan golegileak

Lasai egoteko beste bizpahiru garaipen behar dituztela diote Aloñan

ALOÑA MENDI
**2-1**
ZARAUTZ

**Aloña Mendi** > Iñigo I., Gorka, Jon, Iker, Endika (Sanchez, 75. min.), Ibabe, Palacios (Josu, 84. min.), Aritz (Iker, 45. min.), Zubia, Xabi (Unai, 63. min.) eta Roberto (Arregi, 78. min.).

**Zarautz** > Jaka, Mikel, Luis, Aitor, Alex, Axi, Ekai (Jon, 60. min.), Oier, Aitzol, Iñigo eta Pani (Alfonso, 66. min.).

**Epailea** > Ibon Gallego.



Aloña Mendiko mutilak, Mikel Ibabek egindako gola ospatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > OÑATI

Ondo hasitakoa ondo amaitu zuten atzo Aloñako mutilek, baina ez sufrimendurik gabe. Partidua hasi eta berehala ipini ziren markagailuan aurretik. Korner batean gola egin zuen Mikel Ibabek, eta partidua alde ipini zen etxekoendako. Joko ona egiten jarraitu zuten baina, ordu erdi pasata, zarauztarrek irabaztera etorri zirela erakutsi zuten. Jokoa dominatzen hasi ziren, arriskua sortzen eta aukerak izaten. 35. minutuan berdinketaren gola egin zuten.

Atsedenetik bueltan, etxekoak zelaian kokatu ezinik zebiltzala, beste zorte kolpea izan zuten; txartel gorria eta penaltia alde. Iker Olaldek egin zuen jaurtiketa, baita gola sartu ere.

Markagailua alde egonda eta arerioa jokalari bat gutxiagorekin gelditua pentsatzekoa zen norgehiagoka lasai amaitzeko moduan egongo zirela etxekoak. Ezta gutxiago ere! Zarauztarrek erakutsi zuten garaipenaren bila etorri zirela, eta ez zutela borrokatu barik amore emango. "Hamar jokalarirekin geratuta ere baloi luzeak egiten jarraitu dute", zioen partidu amaieran Aloñako jokalari Roberto Idigorasek. "Jokalari garaiak dituzte aurreko aldean eta zaila egin zaigu baloiak kentzea. Arrisku handiko jokaldiak egin dizkigute partiduaren azken minutura arte".

Kanpotarrek bost korner eta alboko bi sake izan zituzten norgehiagokaren azken 10 minutuetan. Benetan saiatu ziren, eta etxekoak adi egotera behartu zituzten. "Garaiera handiko jokalariekin tentsioa handia izan dugu, azken unera arte ", azaldu du Idigorasek.

**GARAIPEN GARRANTZITSUA**

Pozik zeuden norgehiagokaren amaieran Oñatiko jokalariak. Badira hiru aste Pablo Diez entrenatzaile berriaren aginduetara daudela. "Sailkapenean uneotako gure egoera ez da onena", zioen Idigorasek. "Bospasei talde ditugu hiru puntura eta gaurko emaitzarekin hortxe kokatzen gara. Gaur irabaztea garrantzitsua zen".

Taldeko kapitainaren esanetan, bizpahiru norgehiagoka irabazita lasaitasunez jarraitzeko aukera izango lukete: "Hori izango da gure egitekoa denboraldi amaierara bitartean".

---

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

## Puntu barik baina joko maila ona erakutsita itzuli dira UDAkoak Zornotzatik

Emaitza alde batera laga eta liderraren aurka UDAko jokalariek erakutsitako jarrera nabarmendu dute taldeko arduradunek

AMOREBIETA
**2-0**
UDA

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARETXABALETA

Sailkapeneko liderra da Amorebieta eta aste bukaeran beste hiru puntu lortu ditu igoerarako bere lasterketan. Aretxabaletarrak porrotarekin itzuli dira Zornotzatik, baina eman beharreko guztia eman izanaren uste sendoarekin. "Itxura ona eman genuen, eta nahiko zapore onarekin amaitu genuen norgehiagoka", esan du Igor Arenazak. "Futbol zelaia ez zegoen egoera oso onean eta kosta egin zitzaigun egoera horretara moldatzea, baina hortik aurrera ondo moldatu ginela esango nuke".

Norgehiagoka hasi eta ordu erdira iritsi aurretik egin zuen Amorebietak lehenengo gola. Bigarren zatia hasi eta gutxira, berriz, bigarrena. "Lehenengoa jokaldi zalantzagarri batean, eta bigarrena gure hutsegite baten ondorioz", azaldu du Arenazak. Aretxabaletarrek penaltia ere izan zuten, baina ez zuten aprobetxatu.

Liderraren aurka jokatu dute eta datorren astean Realaren bisita izango dute, sailkapeneko bigarrenarena. "Ez gaude sailkapenera begira", azaldu du Arenazak. "Partiduz partidu goaz eta jakin badakigu bigarren buelta osoa gelditzen dela. Gogorra izango da, baina talde guztiendako. Realaren aurkako partidua dugu orain buruan". Norgehiagoka hori domekan, hilak 31, jokatuko da Ibarran 16:30ean hasita.

**LIGA NAZIONALEKO GAZTEAK**

Iban Rodriguezen mutilek, berriz, berdinketarekin konformatu behar izan dute jardunaldi honetan. Zapatuan Antiguoko taldearen bisita izan zuten Ibarran. Etxekoek laster lortu zuten markagailuan aurretik ipintzea baina larregi lasaitu ziren, bizpahiru aukera garbi kale egin zituzten eta azkenean bi gol egin zizkieten kanpokoek. Bigarren zatiaren erdi aldera lortu zuten berdinketa egin eta emaitza txukuntzea. Asteon bi partidu dituzte: eguaztenean, elur kontuengatik atzeratutako Alavesen aurkakoa; eta zapatuan, Aurrera taldearen kontrakoa.

---

> OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

### Mondrak gehiago merezi zuen Pasajes taldearen aurkako norgehiagokan; 2-1 galdu dute

"Partidua nahiko kontrolpean izan dugu, baina 2-1 galdu dugu azkenean". Andoni Azkargortaren hitzak ziren norgehiagoka amaitu eta gutxira. Markagailuan aurreratzea lortu zuten, eta 0-1 emaitzarekin iritsi ziren atsedenera. Bigarren zatian okertu ziren gauzak. "Pena bat izan da. Gehiago merezi genuela uste dut".

> EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA

### Mondrako neskek ondo hasi dute igoera fasea (0-3), Arizmendik berriz, okerrago (8-0)

Aste bukaeran eman diote hasiera igoera faseari emakumezkoen ligan. Hasiera gogorra izan da Arizmendikoendako, 8-0 galdu dute-eta Lagun Onak taldearen aurka. Mondrako neskak hobeto hasi dira: 0-3 irabazi dute Zumaiakoren zelaian. Tarteak hasieratik zabaldu behar direla esan digute, gainera.

> ERREGIONAL PREFERENTEA

### UDAk 4-2 galdu du Zumarragan, eta Antzuolak 1-0 irabazi du etxean jokatutako norgehiagoka

Urola baino askoz ere gehiago izanda 4-2 galdu zuen UDAk zapatuan. Atezaina bota zuen kalera epaileak, eta bat gutxiagorekin gainbehera etorri zen. Antzuolak, bere aldetik, 1-0 emaitzarekin garaitu zuen Lagun Onak Estalan. Etxekoen gola Iker Cabrerak egin zuen 2. zatia hasi eta berehala.

**GIPUZKOAKO LIGA** > 15. JARDUNALDIA

# Partidu ona egin arren, puntuek ihes egin zuten

Bergarak intentsitate handiz jokatu zuen, baina Zarautz liderra ez zen edonolako aurkaria izan

SORALUCE BKE

**68-75**

LEIHOAK ZARAUTZ

**Soraluce BKE** > Morais, Blazquez (5), Arazkonaga (8), Gartzia, Mancha, Ugarte (4), Beiztegi (8), Arteaga, Larrañaga (2), Murillo (17), Alonso (13) eta Eraña (11).
**Leihoak Zarautz** > Barrio, Gonzalez, Gonzalez (3), Lizarriturri, Lasa (6), Sanz (18), Collantes, Eguskitza (30), Alberdi (4), Iruretagoiena (6), Agirre (6) eta Gurrutxaga.
**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 15-23. Bigarren laurdena: 42-35. Hirugarren laurdena: 52-55. Laugarren laurdena: 68-75.


Ugarte jaurtiketa egiten, Morais begira duela. JOSETXO ARANTZABAL

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Ondo jokatu zuten mahoneroek, baina ezin izan zuten liderra gainditu. Unai Iñarra entrenatzailea pozik zegoen jokalarien lanarekin partidu amaieran eta, horrela jarraituz gero, azkeneko postuetatik irtengo direla uste du.

Bergarak indar gutxirekin jokatu zituen lehenengo minutuak. Hala, taldea indartzeko asmoarekin, zonakako defentsa egitera pasa ziren etxeko jokalariak. Sistema aldaketak emaitza ona eman zien; ondorioz, atsedenaldira zazpi puntuko aldearekin irisi ziren.

**HIRUGARREN LAURDENEAN, LO**

Aldagelatik bueltan, etxeko jokalariek lo hartu zuten; aukera hori aprobetxatu zuten aurkariek markagailuari buelta eman eta aurretik jartzeko. Hala, 10-20ko partziala egin zuten. Esan daiteke, hor bukatu zela lehia.

**AZKEN LAURDENA**

Laugarren eta azken laurdenean etxeko jokalariak gogotsu ibili ziren, baina Zarautz liderraren aurka ezin izan zuten ezer egin. 16-20 partziala egin zuten; modu horretan, markagailua txukuntzea lortu zuten. Azken emaitza 68-75 izan zen.

**PARTIDU ONA**

Unai Iñarra entrenatzailea pozik zegoen jokalariek egindako lanarekin: "Beste partidu batzuetan baino intentsitate handiagorekin jokatu dugu. Bagenekien zaila izango zela liderraren aurkako lehia, baina irudi ona eman dugu", azaldu zigun partidu amaieran. Sailkapeneko azkeneko postuetan sartuta daude mahoneroak. Zulotik irteteko hurrengo partiduak irabaztea ezinbestekoa izango dute. "Datorren astean ere partidu gogorra daukagu, baina ondorengoak gure aurkari zuzenen kontra izango dira, eta horiek dira derrigor irabazi beharrekoak", dio Iñarrak.

Bergara sailkapeneko 12. tokian dago eta 16 puntu ditu. Oraindik, liga asko geratzen da.

**AUTONOMIKOA**

## Aloñak ezin izan zuen erasoa eutsi

Bilboko taldeak joko gogorra egin zuen eta menderatu egin zuen Aloña Mendi

SUELBAT

**88-72**

ALOÑA MENDI

**A.E.** > BERGARA

Partidu txarra. Horrela laburtu daiteke zapatuan Aloña Mendik Bilbon jokatu zuen lehia.

Bilboko Suelbat taldea indartsua da, fisiko askokoa. Hori aprobetxatuz, joko gogorra egin zuten eta oñatiarrek ezin izan zuten saskia behar beste zulatu. Bigarren laurdenerako, 35-14 aurretik jarri ziren bilbotarrak.

**FALTA TEKNIKO ASKO**

Bilbotarrek, batez ere, eraso ona egin zuten; oñatiarrek defentsa ona edo txarra egin, beti saskiratzea lortzen zuten Bilboko jokalariek.

Oñatiarrak kexu ziren, batez ere, laugarren laurdenean epaileak egindako lanarekin. "Lau falta tekniko adierazi digute, eta eurei bat ere ez", zioen haserre Igartuak.


JOSETXO ARANTZABAL

## Añorga liderra eta aurkaria mendean hartuta, aurrera egin du Eskoriatzak

Eskoriatzak 59-49 irabazi zion zapatuan Añorga liderrari Intxaurtxuetan. Eskoriatzako neskek oso partidu ona egin zuten; batez ere defentsan ibili ziren ziur eta gogor. Modu horretan, erasoan egindako hutsegiteak estaltzea lortu zuen Fernando Rasok zuzentzen duen taldeak. Lehenengo minututik izan ziren gehiago etxekoak. Esan behar da, Añorga taldearekin lehia bizia duela Eskoriatzak. Hala, zapatuko garaipenak balio bikoitza izan zuen. Hiru partidu falta zaizkie lehenengo fasea amaitzeko.

**LEHENENGO MAILA** > 14. JARDUNALDIA

## Kafes Aitona liderrak jipoi ederra eman dio Javi Zurbanoren taldeari

Ezer gutxi egin zuten arrasatearrek Donostiako taldearen aurka; Arrasatekoak azken-aurrekoak dira sailkapenean

KAFES AITONA

**99-57**

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

**A.E.** > BERGARA

Bi taldeen arteko aldea nabarmen igarri zen zapatuko lehian. Donostiarrak liderrak dira, eta Arrasatekoak, ostera, azkenaurreko postuan daude. Javi Zurbanoren mutilek ezer gutxi egin zuten lehia irabazteko.

Hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik donostiarrak. Batez ere, defentsa ahula egin zuen MUkoek; hala, zulo horiek aprobetxatuta, ia 100 puntu egin zituzten aurkariek.

**ERASOAN, ZORTE TXARRA**

Arrasateko taldeak defentsa txarra egin, eta erasoan zorterik ez zuela izan esan daiteke. Jaurtiketetan ez ziren eraginkorrak izan, batez ere, hiruko jaurtiketetan.

Gainera, esan behar da, Zurbanok haserre bukatu zuela lehia: azkeneko minutuetan, epaileak kanporatu egin zuen Arrasateko entrenatzailea.

**ESKUBALOIA** > 14. JARDUNALDIA

# Aloña Mendik lau puntutatik bakarra irabazi du

Elurragatik atzeratutako partidua zapatuan jokatu zuten; eta, atzo, domeka, ligako 14. jardunaldia jokatu zuten oñatiarrek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Joan berri dena ez da aste bukaera ona izan Aloña Mendiko mutilentzat; ez, behintzat, emankorra. Jokoan izan dituzten lau puntutatik bakarra eskuratu dute oñatiarrek.

Atzo, domeka, ligako 14. jardunaldiko lehia jokatu zuten Benitoren mutilek, Donibane Majestik taldearen aurka. 32-36 galdu zuten oñatiarrek. Gol askoko lehia izan zen atzokoa baina, jokoari dagokionez, oñatiarrak ez ziren fin ibili.

**ZAPATUAN, BERDINDU**

Zapatuan, elurragatik atzeratutako partidua jokatu zuten Decotena Pulpo taldearen kontra. Lehia guztian markagailuan aurretik izan ziren etxekoak, partidua irabaziko zutela ematen zuen, baina azkenean berdinketarekin konformatu behar izan zuten (27-27).

Lehia amaitzeko bi minutu falta zirela, irabazten zebiltzan oñatiarrak, baina azkenean erritmoa ezin izan zuten eutsi eta puntu bakarra eskuratu zuten.

**BESTE EMAITZA BATZUK**

Gipuzkoako txapeldun izan berri diren kadete mailako mutilek 28-25 galdu zuten Usurbilen. Esan behar da, zapatu arratsaldean Asobal ligako partidua hasi aurretik, kadete mailako mutilek Zubikoara joandakoen txaloak jaso zituztela. Emakumezkoetan, gazteek 32-19 galdu zuten eta kadeteek ere galdu, 30-26.



Aloña Mendiko Joxe, penaltia jaurtitzen. JOSETXO ARANTZABAL

> EUSKADIKO TXAPELKETA

### Ford Mugarrik 36-42 irabazi zion Usurbilgo taldeari haien etxean

Edu Orgazen taldeak partidu ona eginda irabazi zion Usurbili. Lehen zatian joko ona egin zuten, eta bigarrenean, prestakuntza fisikoaz baliatu ziren aurkaria mendean hartzeko. Atsedenera 18-18 iritsi ziren, eta aldagelatik bueltan, aurre hartu zuten markagailuan.

> EUSKADIKO TXAPELKETA

### Aloña Mendiko neskek ezin izan zioten Urdaibairi irabazi

Urdaibairen aurka 27-19 galdu zuten zapatuan Aloña Mendiko senior mailako neskek. Urdaibai taldea sailkapeneko liderra da; eta, ondorioz, bi taldeen arteko aldea nabaria izan zen. Hori kontuan hartuta, oñatiarrek joko polita egin zutela azpimarratu behar da.



JOSETXO ARANTZABAL

## Bergarak samur irabazi zuen (39-25)

Josetxo Muniategi pozik zegoen taldeak etxean egindako lanarekin. Lehia samurra izan zen Irungo taldearen aurka jokatutakoa. Batez ere, defentsan ibili ziren gogor mahoneroak, eta teknikoki ere ondo jokatu zuten. Domekako garaipenarekin, bost partidu jarraian irabazi ditu Bergarak; hori dela-eta, Muniategi pozik zegoen. Datorren asteko lehia irabaztea derrigorra dela dio aurrekoekiko aldea mantentzeko.

## Futbola

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Amorebieta** | **45** | 23 |
| 2. **Real Sociedad B** | **44** | 23 |
| 3. **Zamudio** | **40** | 23 |
| 4. **Beasain** | **39** | 23 |
| 5. **Cultural de Durango** | **38** | 23 |
| 6. **Portugalete** | **37** | 23 |
| 7. **Gernika** | **37** | 23 |
| 8. **Amurrio** | **34** | 23 |
| 9. **Elgoibar** | **34** | 23 |
| 10. **Basconia** | **33** | 23 |
| 11. **Leioa** | **30** | 23 |
| 12. **Santurtzi** | **29** | 23 |
| 13. **Zalla** | **28** | 23 |
| 14. **Arenas Getxo** | **28** | 23 |
| 15. **Aretxabaleta** | **27** | 23 |
| 16. **Lagun Onak** | **26** | 23 |
| 17. **Laudio** | **25** | 23 |
| 18. **Eibar B** | **22** | 23 |
| 19. **Retuerto Sport** | **21** | 23 |
| 20. **Salvatierra** | **9** | 22 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Amorebieta-**Aretxabaleta** | 2-0 |
| Real Sociedad-Salvatierra | 4-0 |
| Arenas de Getxo-Portugalete | 0-1 |
| Eibar-Amurrio | 2-2 |
| Santurtzi-Elgoibar | 0-1 |
| Retuerto Sport-Leioa | 0-1 |
| Lagun Onak-Beasain | 0-0 |
| Gernika-Durango | 0-0 |
| Zalla-Basconia | 2-0 |
| Laudio-Zamudio | 0-1 |

**Hurrengoak**

**Aretxabaleta**-Real Sociedad B

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Pasaia** | **40** | 18 |
| 2. **Zarautz** | **38** | 19 |
| 3. **Aurrera** | **38** | 19 |
| 4. **Idiazabal** | **32** | 18 |
| 5. **Tolosa** | **32** | 18 |
| 6. **Ordizia** | **27** | 18 |
| 7. **Oiartzun** | **26** | 18 |
| 8. **Berio** | **24** | 18 |
| 9. **Bergara** | **23** | 18 |
| 10. **Hernani** | **22** | 18 |
| 11. **Trintxerpe** | **22** | 18 |
| 12. **Mondra** | **22** | 18 |
| 13. **Aloña Mendi** | **21** | 18 |
| 14. **EHU Vasconia** | **21** | 18 |
| 15. **Hondarribia** | **20** | 19 |
| 16. **Euskalduna** | **16** | 18 |
| 17. **Beti Gazte** | **15** | 18 |
| 18. **Real Union** | **14** | 19 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Euskalduna-Trintxerpe | 1-2 |
| Aurrera-EHU Vasconia | 0-1 |
| Berio-Idiazabal | 1-2 |
| **Aloña Mendi**-Zarautz | 2-1 |
| **Bergara**-Ordizia | 1-1 |
| Tolosa-Hernani | 2-1 |
| Hondarribia-Oiartzun | 0-3 |
| Pasaia-**Mondra** | 2-1 |
| Beti Gazte-Real Union | 1-0 |

**Hurrengoak**

Idiazabal-**Aloña Mendi**
Zarautz-**Bergara**
**Mondra**-Real Union

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Aretxabaleta-Antiguoko | 2-2 |
| **GAZTEEN EUSKAL LIGA** | |
| Zarautz-Bergara | 4-0 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Antzuola-Lagun Onak | 1-0 |
| Urola-Aretxabaleta | 4-2 |
| **LEHEN ERREGIONALA, IGOERA** | |
| Mondra-Intxurre | 1-0 |
| Amaroz-Bergara | 1-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA, KOPA** | |
| UDA Arizmendi-Danena | 1-1 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA** | |
| Ilintxa-Aloña Mendi | 3-4 |
| Mondra-Sporting Herrera | 4-0 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA, IGOERA FASEA** | |
| Aretxabaleta B Arizmendi-Urnieta | 4-3 |
| **GAZTEAK, KOPA** | |
| Bergara B-Arizmendi | 3-2 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA, IGOERA** | |
| Vasconia-Bergara | 2-2 |
| Aretxabaleta Arizmendi-Aurrera | 3-1 |
| **OHOREZKO KADETEAK KOPA ETA JAITSIERA** | |
| Aloña Mendi-Sanse | 3-1 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA, IGOERA** | |
| Sporting Herrera-Aloña Mendi | 7-1 |
| Touring-Arrasate | 3-0 |
| **EMAKUMEZKOEN IGOERA FASEA** | |
| Zumaiako-Mondra | 0-3 |
| Lagun Onak-Arizmendi | 8-0 |

## saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA MUTILAK** | |
| Kafes Aitona- MU | 99-57 |
| **SENIOR AUTONOMIKOA** | |
| Suelbat-Aloña Mendi | 88-72 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Soraluce BKE-Zarautz | 68-75 |
| Ruibal-Mondragon Unib. | 62-60 |
| Gabi Jatetxea-Aloña Mendi | 71-80 |
| Katu Kale-Soraluce | 59-38 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Eskoriatza-Añorga | 59-49 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| MU B-Andraitz | 56-68 |
| Soraluce BKE B-Zarautz | 57-62 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Bera Bera | 38-40 |
| **KADETE MUTILAK (ERRENDIMEND.)** | |
| MU A-KRAFFT | 62-45 |
| **KADETEAK MUTILAK (PARTAIDETZA)** | |
| Aloña Mendi-Epi | 56-62 |

## eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA, GIZONAK** | |
| Usurbil-Ford Mugarri | 36-42 |
| **EUSKADIKO TXAP. EMAKUMEZKOAK** | |
| Urdaibai-Verkol Aloña Mendi | 27-19 |
| **EUSK. GAZTE EMAKUMEZKOAK** | |
| Eibar-Verkol Aloña | 32-19 |
| **EUSK. KADETE EMAKUMEZKOAK** | |
| Elgoibar-Verkol Aloña | 30-26 |
| **GIPUZKOAKO LEHEN TERRITORIALA** | |
| Soraluce BKE-Irungo Gazteak | 39-25 |
| Izarraitz Aloña Mendi-Donibane | 32-36 |
| Izarraitz Aloña Mendi-Decotena Pulpo | 27-27 |

## errugbia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| Arrasate | atsedena |

Harmailatik
**Debagoieneko kirola GOITBn**
Astelehenero 22:15ean.
Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!



**OÑATI**

# Saskibaloian jokatu zuten zapatuan Oñatiko gaztetxoek

**SAIOAREKIN GUSTURA** Zubikoa kiroldegian bildu ziren gaztetxoak eta pozik aritu ziren saskibaloian

**UMEZ GAINEZKA** Guztira 26 taldek hartu zuten parte; talde bakoitzeko, hamar bat lagunek

**AZKOAGAINEN FUTBOLA** Kiroldegian saskibaloian aritu ziren bitartean, Azkoagainen futbolean egin zuten

NAROA ODRIOZOLA> OÑATI

Kirol-arropak berreskuratuta, gogoz hartu dute Eskola Kirola Oñatiko gaztetxoek eta zapatuko saioa horren adierazle izan zen. Zapatuetan gaztetxoentzat iratzargailuak goiz jotzen duen arren, pozez eta ilusioz biltzen dira guztiak kirola egiteko.

Zubikoan bildu ziren hirugarren mailako gaztetxoak. Bi txanda besterik egon ez ziren arren, umez gainezko egon zen kiroldegia. Lehenengo txanda goizeko 9:30ean izan zen eta bigarrena 10:30ean.

Kiroldegiko bi kantxak okupatu zituzten gaztetxoek. Txanda bakoitzeko, hamabi talde bildu ziren, guztira.

Zubikoan saskibaloian jokatzen zuten bitartean, Azkoagainen futbolean ziharduten seigarren mailako gazteek. Bertan, nesken bi talde eta mutilen lau talde egon ziren. Bi kirol modalitateak aintzat hartuta, ia berrogei taldek parte hartu zuten zapatuko Eskola Kiroleko saioan.

**ZAPATU GOIZETAN, KIROLA**

Zapatu goizetan, ohetik jaikitakoan, kirol arropak jantzi eta kiroldegira gerturatzen dira Oñatiko ikastetxe ezberdinetako gaztetxoak. Kirol batzuk gogokoago dituzten arren, guztietan ilusioz aritzen dira umeak.

Kiroldegiko kantxetako harmailak ez dira hutsik egoten, gaztetxoen gurasoek betetzen dituzte-eta. Orain, zapatura arte, Eskola Kiroleko saio berriaren zain egon beharko dute.



N.O.

**Aloña.** Zutik: Ander, Mikel, Xabier eta Urko. Makurtuta: Aritz, Iker, Ibon eta Egoitz.



N.O.

**Udala.** Zutik: Markel, Ander, Joseba, Aritz eta Mikel. Makurtuta: Manex, Aitor, Julen eta Julen.



N.O.

**Aratz.** Zutik: Oier, Haritz, Josu, Iñigo eta Julen. Makurtuta: Hasier, Carlos, Markel, Jabi eta Iñaki.



N.O.

**Katuak.** Zutik: Olatz, Alaitz eta Lorea. Makurtuta: Intza eta Elene.

## GUSTUKO DUZUE ESKOLA KIROLA?



**Iñigo eta Carlos**
Aratz

Saskibaloian hasi aurretik topatu genituen Iñigo eta Carlos. Eskola Kirola gustuko dutela esan ziguten biek. Saskibaloiagatik galdetzean, arau asko dituelako apur bat zaila dela esan ziguten. Horregatik, nahiago dute futbola.



**Beñat, Jairo, Joseba eta Ander**
Urbia

Beraien taldekideek jokatzen zuten bitartean, lau mutil hauek atseden hartzen zuten, eserlekuetan. Eta atsedena hartzeaz gain, animoak ematen ari ziren taldekideei. Orduan hurbildu ginen beraiengana. Beñatek, Jairok, Josebak eta Anderrek gogoko dute kirola egitea eta, beraz, baita Eskola Kirola ere. Adierazi zigutenez, gustura ari ziren saskibaloian jokatzen. Hala ere, laukote honek nahiago du futbolean egitea.



**Kirian, Eritz eta Vittor**
Oltza

Lehendabiziko txanda hasi baino lehen hitz egin genuen Kirianekin, Eritzekin eta Vittorrekin. Esan zigutenez, gogoko dute Eskola Kirola. Atsegin dute saskibaloia, baina gehiengoak bezala, aukeran, nahiago dute futbola.



**Ibon eta Xabier**
Aloña

Ibonek eta Xabierrek ere gogoko dute Eskola Kirola, baina iritzi ezberdina dute kirol gustukoena aukeratzerako orduan: Ibonek, pilota eta futbola ditu gustukoen; Xabierri, aldiz, futbola gustatzen zaio gehien.

**Mikel Otero** > Bergarako kapitaina

# "Dagokion tokian dago Bergara; preferenteko taldea da"




Mikel Oterok zortzi urte egin ditu Bergarako talde nagusian; aurtengoa azkena izango da. A.E.

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

**Mikel Otero Bergara futbol taldeko kapitaina da azkeneko bost urteetan; aurten, lesioak direla-eta, futbola utziko duela esan digu. Harekin izan gara denboraldiaz berbetan, eta Manu Diaz entrenatzaileak egin duen lana azaldu digu.**

**Denboraldi erdia eginda, nola baloratzen duzu taldeak orain arte egindako lana?**

Oso ondo. Kontuan izan behar da aurten igo garela mailaz eta taldeko ia gehienek ez zutela ezagutzen ohorezko erregional maila. Gainera, alde handia dago ohorezko erregionalaren eta erregional preferentearen artean.

Gure helburua mantentzea da, hasieran bezala… baina orain, lasaiago gaude. Egia da bi partidu jarraian galduz gero beheko postuetan sartzen zarela; eta baita alderantziz ere. Liga oso berdinduta dago.

**Mailari neurria hartu diozuela esan daiteke.**

Hasierako partiduetan gauzak nola joango ziren begira egon ginen: adibidez, jokalari gazteak nola moldatuko ziren begira… Gainera, lehenengo jardunaldietan mailako talde indartsuenen kontra jokatu genuen: Ordizia, Hernani eta Zarautz. Baina ondo hartu diogu neurria mailari; gainera, partidu onak egin ditugu. Sailkapenaren erdialdean gaude, ondoen egon daitekeen tokian.

**Bi mailen arteko aldea handia da?**

Ohorezko erregionalean fitxaketak ikusten dira… eta jokalari beterano asko, urte asko daramatzatenak; talde serioagoak direla esan daiteke. Erregional preferentean, lau talde indartsu daude, beste guztien gainetik nabarmentzen direnak. Baina ohorezko erregionalean talde guztiak nahiko berdintsuak dira.

**Gainera, zuk zeuk jokatu izan zenuen lehengo preferentean.**

Nik preferente mailan jokatu izan dut aurretik; hortaz, banekien ez zela erregionala –erregional preferentea– bezala izango.

**Orain, dagokizuen tokian zaudete. Bergara ohorezko erregional mailako taldea da, ez?**

Bai, beti izan da preferente mailakoa, eta, gainera, gora begira egon izan dena. Ez dakit zergatik jaitsi ginen… Egia esan, urte hartan, nire ustez, oso talde ona genuen. Gertatzen dena da lehenengo hamar partiduetan ez genuela bat bera ere irabazi… eta, azkenean, joera txar baten sartzen zara. Behin jaitsita, zaila da igotzea.

**Zein izan da taldea horren ondo ibiltzearen gakoa?**

Azkeneko hiru urteetan talde bera gabiltza entrenatzen; esan daiteke lana aurrez egin dugula. Manu Diazek orain dela hiru urte hartu zuen taldea. Denok elkar ezagutzen dugu… ez da talde berria, ia denak ezagunak gara.

Adibidez, preferentetik erregionalera jaitsi ginenean sei jokalari bakarrik geratu ginen taldean; hortaz, zerotik hasi behar izan genuen. Hala ere, urte hartan promozioa jokatu genuen.

**Sailkapenari begira, zein da zuen kontrarioa?**

Egia esan, sailkapenari begira jarrita, ia denak gara aurkari. Behera begira jarrita lau puntu daude jaitsiera postuetara, baina igoera postuetara ere lau edo bost puntu daude. Bi edo hiru talde nabarmendu dira, baina beste guztiak antzera gabiltza.

**Zure ustez, aurten ze taldek eman du ezustekoa?**

Oiartzun hor goian dago, eta gurekin batera aurten igo den taldea da. Bestalde, begira non dagoen Aloña… Egia esan, horrenbeste urte preferentean dabiltzanak zure maila berean daudela ikusteak animuak ematen ditu.

**Zein da Bergararen alde indartsua?**

Denbora luzea goaz elkarrekin jokatzen, eta gure arteko erlazioa oso ona da. Denok elkar ezagutzen dugu eta, gainera, edonork joka dezake. Beti dago norbait nabarmentzen dena, baina denak gara antzerakoak.

**Gainera, etxeko partiduetan sendo ibiltzea eta puntuak lortzea ezinbestekoa izango da.**

Etxeko partiduak irabazi egin behar ditugu; kanpoan irabaztea zailagoa da, baina, egia esan, ez gara gaizki ibili. Esan behar da orain kanpoan ditugula partidu zailenak.

**Derbiak politak dira; nola ikusi dituzu Aloña eta Mondra?**

Derbiak oso onak izaten dira jokatzeko. Orain arte bi jokatu ditugu eta berdindu egin ditugu biak. Mondra orain ondo dabil, baina begira Aloña... Orain dela urte gutxi goian zegoen taldea da eta orain, berriz, ikusi non dagoen. Joera txarra hartu dute.

**"Preferentean jokatu izan nuen aurrez, eta banekien hau ez zela erregionala"**

**"Sailkapenari begira, talde guztiak aurkari zuzenak direla esan daiteke"**

**"Etxeko partiduak irabazi egin behar ditugu; izan ere, kanpoan irabaztea zailagoa da"**

**"Ezustekoa hartu dut Aloñarekin; orain dela urte gutxi goian zegoen, eta begira orain"**



Ume koadrila bat naturan murgilduta. REVISTACARRUSEL.CL

**HEZKUNTZA** > WALDORF

# Waldorf sistemak homologazioa lortu du

Azterketarik gabeko hezkuntza sistema da, eta, intelektuaz gain, ekimen indarra eta sentimendua dira pedagogia horren oinarri

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE
Waldorf izeneko pedagogia 90 urte dituen hezkuntza sistema da, azterketarik gabekoa. Arabako Trokoniz herriko Geroa ikastolan erabiltzen dute. Intelektuaz gain, sentimendua eta ekimen indarra dira hezkuntza sistema horren oinarriak.

**AZTERKETARIK GABE**
Waldorf sisteman ez dute azterketarik egiten. "Hemen egunero egiten dugu azterketa. Aurreko egunean azaldutakoari buruz galdetzen diegu egunero ikasleei eta haien erantzunetan ikusten dugu guk bezperan azaldutakoa ulertu duten edo ez. Behin ulertu dutela ikusita, bere koadernoan jasotzen du ikasle bakoitzak", azaldu du Ainitze Balentziagak, Geroa ikastolako irakasleak.

Intelektua, ekimen indarra eta sentimendua hartzen ditu oinarri sistema pedagogiko horrek eta ematen dituzten eskolak ezberdinak dira ikastetxe gehienetan ematen dituztenekin konparatuta. "Irakasleok ongietorria egiten diegu ikasleei goizero, eta martxan jartzeko bidea hasten dugu gero. Azken berriei buruz hitz egiten hasten dugu eguna, asteko planeta, zuhaitza, lekalea ... gogoratzen ditugu segidan eta ondoren atal erritmikoarekin hasten gara, ariketak egiten. Olerki bat ere errezitatzen dugu goizero: Lehen Hezkuntzako lehenengo lau mailetan olerki bat, eta beste bat bosgarren mailatik Bigarren Hezkuntzara arte. Azkenik, koordinazio eta musika ariketak egiten ditugu. Behin hori bukatuta, aurreko eguneko ikasgaia errepasatzen dugu eta gero, ikasgai berria landu", azaldu du Balentziagak.

**KONTZERTAZIORAKO BIDEAN**
Trokonizko eskolak laugarren ikasturtea hasi zuen irailean, eta azken urte honetan lortu du homologazioa. "Kanpotik arraroa iruditu arren, gainerako eskolek ematen dituzten ikasgai berberak ematen ditugu guk ere, aldea emateko moduan dago. Homologazioa lortu dugu eta orain kontzertazioa lortzeko bidean gaude", azaldu du Jose Antonio Pagaldai irakasleak. "Madrilen, esaterako, badago eskola bat batxilergo maila arteko ikasketak ematen dituena. Unibertsitatera joateko moduan ateratzen dira ikasleak gure eskoletatik", zehaztu gura izan du Ainitze Balentziagak.

Waldorf pedagogiak Alemanian du oinarria, 1919an. "Zigarretak egiten zituen Stuttgarteko enpresa gizon batek, bere langileen seme-alabendako eskola bat sortzea eskatu zion Rudolf Steiner filosofo austriarrari", dio Pagaldaik.

DATUA

**43**

**IKASLE TROKONIZEN**

Trokonizko (Araba) Geroa ikastola-Escuela libre eskolan Waldorf pedagogia darabilte azken lau urteetan eta oraingo ikasturtea 43 ikaslerekin hasi dute. Zapatuan ate irekien eguna egingo dute.

**KIROLA** > KOLABORAZIOA

# "Goiza pasatzea" ez da beti izaten goiza pasatzea

Seme-alaben partidua ikustea goiza pasatzea izaten da guraso askorendako, baina lehiaren emaitzak zentzua aldatzen dio zenbaitetan

**O.E.** > ARRASATE
"Goiza pasatzera", erantzuten ei dute guraso askok zapatu eta domeka goizetan euren seme-alaben partiduak ikustera doazenean. Esaera horren zentzua, baina, beste bat bihurtzen da askotan, Borja Moiua eta Josu Murgoitio *Guraso.com* webguneko kirol kolaboratzaileek ondorioztatu duten moduan.

**EMOZIOAK**
Hori azaltzeko edozein kirolek balio badu ere, futbolean emozio aldaketa horiek beste kirol baten baino hobeto azaleratzen direla ikusi dute aipatutako bi kolaboratzaileek.

"Minutuek aurrera egin ahala, tenperatura igotzen doa. Hasiera baten, guraso bakoitzak bere seme edo alabaren gainean begiak jarri eta animatu egiten du, noizbehinka txalo zaparrada bat eginda. Baina partidua aurrera doa eta markagailuak ez du emaitza onik adierazten goiza pasatzera joan direnendako. Orduan, termometroak beste gradu batzuk egiten ditu gora. Jada ez diogu bakarrik gure oinordekoari so egiten, gure begiradak arbitroari begira hasiak dira. Markagailua ez dago gure alde, beste taldea ondo ari da eta gu, ordea... Ingurukoek entzuteko moduan arbitroaren erabaki bakoitzaren ondoren komentarioren bat egiteko unea iritsi da. Partidua bukatzear dago eta ez dago hau altxatuko duen gizasemerik. Entrenatzaileari egurra emateko ordua heldu da. Eta berdin segi partidua bukatu arte. Gure seme-alabak ezin dira izan gure frustrazio eta etxeko miseria guztien sendagarri. Goiz-pasa joatea beste kontu bat da", idatzi dute Moiua oñatiarrak eta Murgoitio elorriarrak.



Umeak elkarren kontrako partidua jokatzen. GOIENKARIA

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> ANTZERKIA ESPALOIAN**
Ospe handiko aktoreak izan ziren, 'Desnudos en Central Park'-ekin > 31



**> DES-KONTROL**
Gogor eraso egin zieten taldeko kideei bariku gauean Barakaldon > 32



**> ARIZONA BABY**
Amaia antzokiko *hall*-ak gainezka egin zuen rock psikodeliko doinuekin > 32

# Debagoieneko hormetatik, musikan historia egin da

**MUSIKA ZALETASUNA**
Sekulako zaletasuna eta grina dago Debagoieneko herri guztietan

**UDALEN LOKALAK**
Musika taldeen eskariei erantzunez, Udalek gazteendako lokalak dituzte



Argazkian, Goiko Estazioko musika taldeen eraikinaren eta lokal berrituen inaugurazioko kontzertuko une bat. ARTXIBOA

**MAIDER ARREGI** > BERGARA

Debagoieneko musika lokaletan historia egin da. Izan ere, Euskal Herriko musika irauli duten talde asko ibarreko lokaletako hormak astintzen hasi ziren. Hortxe ditugu RIP, Latzen, Des-Kontrol, Gose, Urretxindorra, Hor Konpon edota Berakatz Band taldeak, besteak beste.

Gainera, horietako askok atzerrian ere oihartzuna izan dute eta oraingo talde askoren isla eta oinarri dira.

**ARRASATEKO 'DEPOSITTUE'**

Arrasaten urte asko daramatzate hamarkada ezberdinetako taldeek Udalak utzitako lokaletan entseatzen. Egun, Deposgaz elkarteak kudeatzen ditu lokalak Udalarekin elkarlanean. Elkarteak berak adosten ditu kuotak, garbiketa, mantenua eta beste. Elkarteko karguak zozketatu egiten dituzte taldeen artean. Lokaletan entseatzeko bete beharreko baldintzetako bat da: taldekideen kopuru bat arrasatearra izatea.

Hasieran, Mojategi inguruan dagoen *Deposittu*ko lokalean hasten dira taldeak entseatzen. Ondoren, Uharkapeko lokalen batean bajaren bat balego, hara joaten dira. "Oso gustura gaude lokalaren funtzionamendu eta mantenimenduarekin. Arrasateko musika talde gehienak elkartzea eta autogestioaren bitartez lokalak aurrera eramatea oso positiboa da", azaldu digu Anger taldeko Arkaitz Biainek.

Denborarekin gauza asko hobetu direla gaineratu digu. Dagoeneko lokaletan entseatzen ez duen arren, Enboskada taldeko abeslari Oxel Arrietak azaldu digu alarma jarri dutela-eta, musika taldeak pozik daudela. Uharkapen 10 lokal daude eta horietako bat DJ-endako dago egokituta; *Deposittu*an, berriz, lau Guztira, 30 talde inguruk entseatzen dute Arrasaten.

**BERGARAKO GOIKO ESTAZIOA**

Zalantzarik gabe, eskari handienetarikoa Bergarako Goiko Estazioko lokal berrituak dauka. Bertan 22 taldek entseatzen dute, zortzi lokaletan; guztira, 85 pertsonak. Musika entsegu lokalen erabilera, Udala eta Bergarako musika taldeek osatutako Goiko Rock Ekartearen artean hitzartu da. Hala, bete beharreko baldintzen artean dago hilean 10 euro ordaindu beharra, erabilpenaren gastuei aurre egiteko.

Bestalde, elkarteko musika taldeek adostu dute lokal bakoitzean zein taldek entseatuko duen eta ordutegia. Nagore Narbaiza Hezkuntza teknikariak azaldu digu: "Lokal hauek berritzerakoan Udalaren helburu nagusia izan da gazteen sormen musikala bultzatzea; aisialdirako eskaintza bat gehiago ematea". Udalak otsaileko bileran egingo du taldeekin batera balorazioa eta 2010ean elkarrekin landu ditzaketen gaiak jorratuko ditu. Lord Witch taldeko gitarra-jotzaile *Uge* da elkarteko presidentea, eta oso balorazio positiboa egiten duela azaldu digu.

Urte asko eman ditu *Uge*k entsegu lokal ezberdinetan. Oraindik gogoratzen da Seminario ondoko lokaletan entseatzen zuteneko garaietaz. "Ezin gara kexatu, Goiko Estazioko lokalak primeran daude eta baldintzak ezin hobeak. Ordutegia gure beharren arabera moldatzen dugu eta zorte bat da. Harremana ere bikaina da Udalarekin eta esfortzu handia egin du gure eskaerari erantzuten. Gainera, lokala berritzeko lanak egiten ari ziren bitartean Jam aretoan entseatzeko aukera eman zigun".

DATUA

**85**

**LAUROGEITA BOST**

Bergarako Goiko Estazioan 85 musikari inguruk entseatzen dute. Guztira, 22 taldek eman du izena bertako 8 lokal berrituetan entseatzeko. Oso pozik daude erantzunarekin.

**OÑATIKO 'EROCKALDE'**

*Erockaldeko* lokalak dira entzutetsuenak seguruenez. Bertatik Latzen, Amonal, Potemkin, Show Bussines, Sharon Stoner edota Malenkonia moduko taldeak irten dira azken hamarkadetan. Udalak Herri Eskola azpian daukan lokalak, besteak beste, musika taldeendako ditu utzita.

Bitariko batzordea dago osatuta. Autogestioa taldeen esku geratzen da eta mantenimendua, berriz, Udalaren esku. Horixe azaldu digu German Meabe Kultura teknikariak. Taldeek ez dute kuotarik ordaintzen. 10 bat lokal daude eta 20 bat taldek entseatzen dute. Azken urteetan lokal berriak ere egin dira *Erockalden*. *Txirli* Golpe de Estado taldeko kideak adierazi digunez, gustura daude lokaletan, baina ordutegia malguagoa izatea gustatuko litzaieke: "Goizetan ezin dugu entseatu umeak eskolan daudelako, ordutegi mugatua daukagu". Bestalde, musikariek adierazi digute hezetasun eta intsonorizazio arazoak konpontzea gustatuko litzaiekeela.

**ESKORIATZA ETA ARETXABALETA**

Eskoriatzan, musika taldeen eskaria txikiagoa da, baina alkateak azaldu digunez, beti saiatzen dira erantzuna ematen musika taldeei. Scobers taldeko Iñaki Kortazarrek gustura daudela kontatu digu: "Heriotzak entseatzen zuen tokian gaude eta oso pozik Udalak emandako aukera eta baldintzekin. Beti izan ditu-

(30. orrialdean jarraitzen du)

## Euskal musika Debagoienetik mundura

(29. orrialdetik dator)
gu alde horretatik erraztasunak". Bai Eskoriatzan eta bai Aretxabaletan Udalaren baldintzetako batzuk dira taldekideen bi herenak herrikoak izatea, lekua konpartitzea, ordutegia errespetatzea eta fidantza bat ordaintzea.

Maider Etxaniz, Eskoriatza eta Aretxabaletako Gazteria teknikariak azaldu digunez, "beti egon da musika talde asko eta hori ona da; gazteendako aberatsa da denak elkarrekin batzeko tokia izatea ere. Ingurukoekin elkarbizitza ona bermatzea ere ezinbestekoa da guretzat.Udalak eskari guztiei erantzuteko borondatea dauka, beti ere lehentasun eta zailtasunen arabera".

**ANTZUOLAN, LAZARETON**
Antzuolan eskaria ez da handia, baina Udalak 2009az geroztik Lazareton dagoen lokala eskaintzen die herriko taldeei entseguetarako. Lehen Olarango lokalean entseatzen zuten baina iaztik, Lazaretora pasa dira. Trukean, Udalak jarritako baldintzak bete beharko dituzte; besteak beste, lokala garbitu, zaindu eta ordutegia errespetatu beharko dute.

Klakson eta Los Viernes al Ron dira lokala erabiltzen duten taldeak. Harreman oso ona dutela azaldu digu Udaleko Jone Larrañaga Kultura teknikariak. "Lokalaren truke, Torresoroan emanaldia egingo dute bi taldeek herritarrek gozatu dezaten".


Latzen talde oñatiarra Erockalden hasi zen historia egiten; argazkian, Eskoriatzan emandako emanaldia . ARTXIBOA

**ARAMAION, KULTURA ETXE AZPIAN**
Aramaioko kultur etxe azpian dagoen lokalean ere historia egin dela esan daiteke, zergatik ez. Izan ere, Xementerio taldeak hortxe entseatzen zuen orain dela gutxi arte. Egun, Aramaioko hiru taldek entseatzen dute toki horretan.

Gorroto taldeko Jon Abarrategiren arabera, Udalak baldintza onak ematen ditu eta gustura daude: "Malgutasuna daukagu entseatzeko eta baldintzak onak dira. Hala ere, esan behar da lokaletik kanpo beste talde pare bat dagoela entseatzeko tokirik gabe". Ainara Inuntziaga Kultura zinegotziak azaldu moduan, Udala pozik dago, lokal horietako fruituak ikusita: "Aipagarria da, esaterako, Eguzkierripa Rock jaialdian herriko taldeek egiten duten lan bikaina".

"Baldintza moduan, ordutegia errespetatu behar dute gauetan. Izan ere, alboan etxeak daude eta auzokoei enbarazu egitea saihestu nahi dugu", gehitu du Inuntziagak.

**ELGETAKO ESKOLA ZAHARRA**
Elgetan, Eskola Zaharrean dago lokala. Hori da Udalak herriko musika taldeei eskaini diena. Ostiada oi! taldeak 10 urte daramatza taula gainean eta bertan entseatzen. Azaldu digute: "Errendimendu bikaina atera diogu lokalari eta oso gustura gaude". Eurez gain, herriko gainerako taldeek ere erabili izan dute lokala: Punteroi, Sotamano edota Perbersions taldeek, besteak beste. Elgetako Udalak jartzen duen baldintzetako bat da: lokal hori entseatzeko bakarrik erabiltzea.

**LEITZ GATZAGAN, EGOKITUTA**
Leintz Gatzagako Udalaren kasua bestelakoa da. Baditu gazteendako lokak baina ez dira musika taldeendako.

Hala ere, talderen batek entseatzeko lokala eskatu izan duenean, Udalak lokala egokitu eta moldatu egin du taldeak entsea dezan eta, modu horretan, eskaerari erantzuna eman. Baldintzak alde bien artean adosten dituzte.

Udaletik esan digute: "Musika talderen batek behar izanez gero, egokitzen dugu lokal bat". Une honetan, ez dago eskari handiegirik, baina dagoenean beti erantzun du Leintz Gatzagako Udalak.

ESANAK

### "Musikarako zaletasuna beti egon da eta guztiz aberasgarria da gazteak elkarrekin lokalean batzea"

**Maider Etxaniz** > Gazteria teknikaria

---

Endika Lahaine > Bumpada Sound

# "Musikak balio du herrien artean zubiak sortzeko"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Aniztasun Eguna ospatu zuten zapatuan Bergaran. Horren harira, gauean, Bumpada Sound taldeak eta Euskal Herria Anitza kolektiboak 'Anitzak hitzak' lan berria aurkeztu zuten Zabalotegin. Endika Lahaine abeslariak euren proiektuaren berri eman digu.**

**Zabalotegi aretora joandakoak pozik geratu ziren zuen lanarekin!**
*Anitzak hitzak* diskoaren ikuskizuna aurkeztu genuen Zabalotegin, eta erantzuna oso ona izan zen. Beharbada, areto bat ez da leku egokiena gurea bezalako ikuskizun batentzat, baina jende asko hurbildu zen, eta amaieran esan zigutenez, oso gustukoa izan zuten gure lana.

***Anitzak hitzak* diskoak zer eskaintzen du?**
Gure ustez, eskaintzen duena da ikuspegi zabal bat, Euskal Herrian aurkitu daitekeen errealitatearen ikuspegi zabala. Musika eta letrak hartuta, guk bizi dugun errealitatea islatzen saiatzen gara. Musika mota asko egiten dugu; adibidez, rap, flamenkoa, rock, reage...

**Esan daiteke, kuriosoa dela egiten duzuena. Ez da egunero ikusten bertsoa eta hip-hopa nahastea, adibidez.**
Bai, kuriosoa da. Baina, kontzertuaren arabera sartzen dugu bertsolaria; hau da, ez da gure ikuskizun guztietan egoten, ez da bertso-hop bat. Beste elementu edo instrumentu bat da bertsolaria gure ikuskizunean.

**"Euskal Herrian aurkitu daitekeen errealitatearen ikuspegi zabala erakusten dugu"**

**"Bertsoa eta hip-hopa nahasten ditugunean, bertsoa beste instrumentu bat da"**

**Zergatik egiten duzue nahasketa hau? Ze behar ikusi duzue?**
Anitzak ekimenak esan zigun ea prest egongo ginatekeen horrelako proiektu musikal bat bideratzeko. Gure asmoa zen eurek planteatzen zutena bideratzea eta, era berean, errealitatera eramatea musika mailan.

Gure lagunekin landu eta atera dugu diskoa. Horretarako sortu dugu Euskal Herria Anitza kolektiboa. Ez dira kolaboratzaile hutsak, parte-hartzaileak dira.

**Proiektu honekin, zer da esan gura duzuena?**
Musika transmititu gura dugu. Guri balio digu, eta uste dugu mundu osoan balio duela elkartrukeak sortzeko; baita herrien arteko zubiak lotzeko ere.

**Baduzue proiekturik esku artean?**
Gure lana, orain, diskoa defendatzea izango da. Uste dut aterako dugula beste disko bat.


Endika Lahaine abeslaria, Zabalotegiko kontzertuko une batean. JOSETXO ARANTZABAL

**KRONIKA** > 'DESNUDOS EN CENTRAL PARK' ELGETAN

# Ospe handiko aktoreak Espaloian

**NON:** Espaloia kafe antzokian
**EGUNA:** barikua, urtarrilak 22
**ZENBAT JENDE:** aretoa ia beteta
**IRAUPENA:** ordu eta erdi



Manuel Galiana eta Emma Ozores aktoreek antzeztu zituzten Elgetan, Gerry eta Lola obrako pertsonaia nagusiak. JOSETXO ARANTZABAL

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Gaur egun, asko dira euren burua ezagutzera emateko edozer gauza egiteko prest daudenak. Eta hedabideek ondo baino hobeto aprobetxatzen dute osperako jendeak duen grina hori. Premisa horien bien bueltan eraikita dago barikuan Elgetan ikusgai egon zen *Desnudos en Central Park* antzezlana.

Sekula errekonozimendurik jaso ez duen idazle batek bere ustez bere bizitza aldatuko duen erabakia hartu du: trasteak hartu eta, emaztearekin batera, Manhattaneko Central Park-era joan da bizi izatera.

**AMUA, AKTORE EZAGUNAK**

Manuel Galianak hartzen du antzezlanean pisu handiena. Gerry pertsonaia antzezten du, idazlea. Loli emaztea, berriz, Emma Ozoresek antzezten du.

Aktore ezagunak dira, ospe handikoak, eta zalantza barik izen oso erakargarriak antzezlana ikustera joateko. Lan bikaina egiten dute. Obra elkarrizketaz beterik dago, eta aktoreei nabari zaie testua ondo ezagutzen dutela. Elkarrizketa horiek, baina, amaigabeak egiten dira, gehienbat lehenengo ekitaldietan. Komedia da *Desnudos en Central Park* eta baditu barre egiteko zenbait ateraldi, baina bigarren irakurketa bat ere egin daiteke zertxobait dramatikoagoa.

"Begiratu nazazue, badut eskubidea une batez zuen begirada eskatzeko", dio Gerry idazleak etsipen une baten. Haserre dago inork bere lanari kasurik egiten ez diolako. Bizi osoko lanari begiradatxo bat ere ez.

**OSPEA IRAGANKORRA DA**

Lehenengo egunetan hedabideen arreta lortu arren, laster desagertzen da medioetatik Central Parkeko bikotea. Zer egin? Etsipenak bultzatuta azken pauso bat emateko gomendioa egiten die kazetari batek: biluzteko.

Eta irtenbidea izan daitekeela sinistuta, pauso hori emateko erabakia hartzen du bikoteak. Hedabide guztiak deitu eta biluztu egiten dira Central Park erdian. Baina minutu erdi irauten du euren presentziak komunikabideetan. Berehala sortzen da morbo gehiago eragiten duen albistea. Eta Gerry eta Lola ahaztu egiten dituzte atzera ere.

Aipatu beharra dago ere antzezlanean Maria Jose Alfonso aktore ezagunak egiten duen lana. Izen handiko aktoreak, erdi mailako antzezlan batean.

## Antzokiz antzoki urtebete egin duen antzezlana

Bi saio egin zituzten barikuan Elgetan. Egun berezia zen: urtea betetzen zen antzezlana Barakaldon estreinatu zutela. "Harrera ona izan duen antzezlana da", adierazi du Manuel Galianak. "Urtea bete dugu ia aste bukaera oro emanaldia egiten, eta hori ez da oso maiz gertatzen". Sekretua zein den galdetuta, zalantza agertu dute aktoreek. "Orokorrean aretoak bete egiten dira antzezlan honetan, zorte handikoak gara", esan du Emma Ozoresek. "Nik uste jendeak barre egiteko gogoa duela, entretenitzeko eta dibertitzeko gogoz dagoela".



*Desnudos en Central Park* antzezlaneko aktoreak Espaloian. LARRAITZ ZEBERIO

### IKUS-ENTZULEEN IRITZIA



**Luis Mari Arantzeta eta Juan Luis Arizmendiarrieta**
Elgeta

"Nota ipintzekotan 7,5 jarriko nioke. Barre apurtxo bat egin dugu eta aktore ezagunak ikusi ditugu", esan du Arantzetak. "Bukaera aldean hobeto egon da hasieran baino; hasiera motela egin zait", adierazi du Arizmendiarrietak. Koadrilan joaten omen dira antzerkira, herrira baten bat ekartzen dutenean.



**Nonila Alonso, Marian Alonso eta Jose Mari Lavado**
Eibar

"Obra kaskarra iruditu zaigu", esan dute Alonsotarrek. "Umore aldetik zertxobait gehiago izatea espero nuen", azaldu digu Lavadok: "Aktore bikainak dira. Aspalditik ezagutzen ditugu eta aurrez aurre ikusi nahi genituen. Bikainak dira, baina obra ez da nik espero nuena izan".



**Kontxi Gorrotxategi**
Elgeta

"Zer esango dizut? Aspergarri samarra iruditu zait. Aktoreak bai, oso onak dira. Manuel Galiana, Emma Ozores, Maria Jose Alfonso... baina niri obra ez zait gustatu. Gehiago espero nuen".



**Alejandro Cristobal**
Elgeta

Ingurukoek animatuta izan da antzerkia ikusten. "Gustatu zait. Ez zen ikaragarri barregarria, baina gustura egon naiz. Aktoreak ez nituen ezagutzen, baina ospetsuak direla esan didate".

**KRONIKA** > ARIZONA BABY

# Perfekzioa basapiztia bilakatuta



Javi Arizona, *frontman* paregabea da eta badaki publikoa poltsikoratzen. J.A

**NON:** Amaia antzokian.
**EGUNA:** Barikua, urtarrilak 22.
**ZENBAT JENDE:** 150 lagun inguru.
**IRAUPENA:** ordu bete.

**MAIDER ARREGI** > ARRASATE

Arizona, horixe da burura etortzen zaigun tokia eta hitza Arizona Baby taldearen hegoaldeko rock doinu psikodelikoa akustikoan entzuterakoan. Baina ez dira amerikarrak, jendearen harridurarako Valladolidekoak, *Pucelakoak* dira. Amaia antzokiko *hall*-a gainezka. *Where the sun* abesti itsaskorrarekin hasi zuten emanaldia iluntze freskoa gorigori jarriz.

Abeslariaren ahots urratu baina era berean erakargarri eta goxoak, berehala bereganatu zituen bertaratutakoak. Ordubetez, Amerika hegoaldeko mundu zirraragarrira eta True Blood saio bikaineko protagonistak izatera eraman gintuzten Arizona Baby taldeko mutilek.

Erakargarritasuna, taula gainean dute *Pucelakoek*, eta ikusleekin *feed back* bikaina lortzen maisuak dira. Javi abeslaria oso gustura eta berriro Arrasatera etorriko direla agindutа, pozik azaldu zen jasotako erantzunarekin. "Ondarroako Tunnel 483 taldeari esker harreman oso polita daukagu Euskal Herriarekin. Egia esan ez genuen horrelako harrera bikaina espero eta gustura aritu gara. Lekuaren akustikoa ere paregabea da".

Ez zaie estilo bakar batean kokatzea gustatzen, baina Soundgarden edo Johnny Cash bezalako artista handien influentzia uka ezina da. "Gure lana bi hitzetan deskribatzea ez zaigu gustatzen, nortasun propioa izatea da nahi duguna; baina, talde eta testuinguru alternatiboen eragina nabarmena da gure lanean, ezkuta ezina".

*Second to none* bigarren lana aurkeztu zuten barikuan, baina, *Songs to sing along,* lehen diskoko abestiak entzuteko aukera aparta izan zen. *Shiralee* edo *Runaway*ren erritmoz ikuslea dantzan jarri zuten. Teknikoki perfekzioa bilatzen dute baina izpiritu bihurria azaleratzea ezin dute ezkutatu. "Oso teknikoak gara baina izpiritu *punkia* daukagu eszenatokian. Zuzenekoak maite ditugu eta dinamika bat oinarri, transmititzea da gure helburua". Arizonako mutilek existentzialismoa, gizakiaren fobia eta maitasunaz hitz egiten dute. "Abestia entzuten duen edonor identifikatuta sentitzea da gure ustez musikak daukan aspektu politenetako bat".

Devendra Banhart *Kitch* handia etengabe gogorarazten duen *frontman*ari galdetuta, barre egiten du eta beretzako hori entzutea lore bat dela aitortzen digu. "Devendra nire idoloa da, ikono bat da John Lenonenkin batera".

ESANAK

**"Devendra Banhart nire idoloa da eta ohore bat da berarekin lotu eta identifikatzen nautela esatea"**

**Javi Arizona** > Arizona Baby

**LAN BERRIA PRESTATZEN**

Arizona Baby taldeko mutilek 2005ean kaleratu zuten *Songs to sing along* lehen lana. Diskoaren banaketa taldekideek egin zuten kontzertuetan. Hala, dagoeneko katalogotik kenduta dago eta ezinezkoa da lortzea. Horregatik, berriro editatu eta salgai jartzea da taldekideen helburua. Hori bai, lan berri bat kaleratzeko lanari ere ekingo diote. "Abestiak egiten hasiko gara eta konponketa gehiago izango duela aurreratu dezaket". Coen anaien jarraitzaile sutsuak Arrasatera itzuliko direla agindu digute. Orain, Arizona eta Mexikora joango dira lan berrirako inspirazio bila. Nahi duzuenera arte Arizona!

**ERASOA** > DES-KONTROL TALDEAREN AURKA

# "Honek ez dauka izenik; ondo prestatutako erasoa izan da, argi zuten egin nahi zutena"

Egubakoitz gauean, Arrasateko Des-Kontrol taldeko kideak Ospitalera eraman zituzten Barakaldon kontzertu aurretik ezezagun batzuek burdinezko barrekin eraso egin ostean

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Arrasateko musika talde ezaguneko kideek ezin izan zuten kontzerturik egin egubakoitzean Barakaldoko San Vicente auzoko jaietan, txosnetan. Horren arrazoia izan zen kontzertua hasi aurretik 50 bat ezezagunek burdinazko barra, botila eta *ukabil* amerikarrekin bortizki erasotu zituztela. Taldekide guztiak etxean daude, baina guztiek zauri eta kolpe handiak dituzte, eta denbora beharko dute horiek guztiak sendatzeko.

Taldekideek, ASTELEHENEKO GOIENKARIAri jakinarazi diotenez, orain dela bizpahiru aste ezezagun batzuek San Vicente auzoko jai batzordera jo zuten Des-Kontrol taldearen kontzertua bertan behera uzteko esanez. Antolatzaileak zalantzan egon ziren zer egin, baina, gerora, aurrera egitea erabaki zuten. Arrasatearrei ere galdetu zieten, eta hauek ere jotzearen alde agertu ziren.

Ezagun da azken urteotan giza talde batek Des-Kontrol taldea faxistatzat edo anbiguotzat duela eta haien kontrako difamazio eta boikot kanpaina zabaldu duela.

Horri erantzuna emateko, Arrasateko taldeak disko bat kaleratu zuen Euskal Herriko alor askotako musikari, kirolari eta bestelako artisten atxikimenduarekin.

**50 PERTSONEN ERASOA**

Egubakoitzean arrasatearrak Barakaldora joan, soinu probak egin eta tabernetan ibili ostean, antolatzaileekin eta beste taldeekin afaltzera joan ziren. Afaltzen zeudela, antolatzaile batek jakinarazi zien txosnagune inguruan 50 bat pertsona zain zituztela taldekoei kontra egiteko asmotan. "Ez genuen sinistu horrenbeste izango zirenik, eta are eta gutxiago gu erasotzeko asmotan etorriko zirenik. Bakarrik probokatzera etorri zirela pentsatu genuen", azaldu dute arrasatearrek. "Txosnagunera joateko korridore antzeko baten aurkitu genituen eta han gutako bati zuzendu ziren. Berak ezer esan aurretik, atzetik burdin barra batekin buruan jo zuten eta lurrera ziplo jausi zen. Jarraian, besteoi gauza bera egin ziguten. 50 bat izango ziren, batzuk aurpegia estalita, burdinazko barrekin, botilekin, *ukabil* amerikarrekin, ostikadak lurrean geundela... Oso azkarra izan zen guztia, eta badirudi oso ondo planifikatuta zutela guztia".

"Handik alde egin eta gutako batzuk, odoletan eta kamisetak apurtuta, inguruko taberna batzuetan babestu ginen. Taldekideren bat anbulantzian eraman zuten eta beste batzuk auzokideek eraman gintuzten ospitalera", azaldu dute musikariek.

**MIN LARRIA EGITEKO HELBURUA**

Des-Kontrolekoen esanetan, musikariak artatu zituzten osasun zerbitzuek ohartarazi zieten buruan jasotako kolpeetako asko min oso larria egiteko puntu zehatzetan izan zirela. "Taldekideetako batek zortzi puntu ditu buruan; beste batek lau puntu buruan eta mokorrean zauri handi bat; hirugarren batek bi puntu buruan, kolpea sudurrean eta ubeldurak begian eta atzamarretan; eta laugarrenak eskua apurtuta, zauriak lepoan eta belarrian eta kolpe ugari bizkarrean".

Orain ikustear da zenbat denbora beharko duten zauriak sendatzeko. "Ea ahalik eta lasterren sendatzen garen. Jendeak gertatutakoa jakitea nahi dugu, honek ez dauka izenik; eta laster erabakiko dugu eraso honen aurrean zer egin".

ESANAK

**"Jendeak jakin behar du gertatutakoa, honek ez dauka izenik; eta laster erabakiko dugu zer egin honen aurrean"**

**Des-Kontrol** > Taldekideen hitzak

GURE TALDEAK

## Potemkin



Ezkerretik eskuinera, Alexis, Iban, Aixibar, Iker eta Mikel. POTEMKIN

# "Diskoa ilunagoa da, baina Potemkin kutsua mantenduz"

Potemkin oñatiarrek 'Gauaren zaindariak' diskoa kaleratu dute; taldearen bigarren lana da eta eguenean aurkeztuko dute hedabideen aurrean

Diskoa salgai dago Oñatiko Aker tabernan, baina 'www.myspace.com/potemkinrock' webgunetik hiru kantu eta argazkiak jaits daitezke

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

**Aixibarrek, Alexisek, Ibanek, Ikerrek eta Mikelek osatzen dute Potemkin. *Gauaren zaindariak* izeneko diskoa atera berri dute. Haiekin egin dugu berba.**

**Gustura zaudete diskoarekin?**

Noski. Karlos Osinagaren gidaritzapean beti egiten dugu lan gustura, oso profesionala da-eta. Diseinua Ruben Idigorasek eta Xabi Picok egin digute, eta oso harro gaude bukaeran eman dioten itxurarekin, erakutsi nahi genuena ondo islatu dute-eta.

**Diskoa erosten duenak zer entzungo du?**

Berriz ere, Potemkin doinua. Agian, pixka bat ilunagoa da, baina lehen diskoko kutsua mantenduz. Soinu aldetik trinkoagoa, gogorragoa da. Diskoak 12 abesti ditu, eta melodiak eta koruak eta bi gitarren arteko doinuak asko landu ditugu. Soinu hobea lortu dugu. Gure ustez, talde baten eboluzioan egin beharreko aurrerapausoak dira.

Diskoaren aurkezpena eguenean egingo dugu hedabideen aurrean.

**Letrak zeri buruzkoak dira?**

Gai ezberdinak daude: hala nola, parrandak, *striptease*-a, eta emakumeen kontrako indarkeria (*Ehiztari ehizatua*). *Gauaren zaindariak* kantuan gure inguruan ikusten ditugun arazoetatik aldentzeko musika erabiltzen dugula kontatzen dugu. 12 abesti daude diskoan: bi (*Mugak apurtzera* eta *Esnatzean*) Gorka Lazkanok idatzi ditu eta beste bat (*Mila begirada*) Golpe de Estado taldeko Txirlik. Gainerakoak guk idatzi ditugu.

**Diskoa auto-ekoizpena da. Zergatik egin duzue aukera hori, borondatez ala derrigortuta?**

Diskoetxeak lehen gehiago arriskatzen ziren. Orain, zailagoa da. Borondatez edo derrigortuta egin dugun erantzutea ez da erraza. Jakinaren gainean geunden ez zela erraza izango, eta ez gara diskoetxetara joan.

**Denbora luzea pasa da azken diskoa egin zenutenetik. Zertan eman duzue denbora?**

Azken diskoa 2005ean grabatu genuen eta ordutik gauza asko pasatu dira. Joxe Mari eta Iker Latzenekin bueltatu ziren agurbira egiteko. Ordurako bagenekien Joxe Marik ez zuela taldean segituko; pentsatu genuen baxujotzaile berria behar genuela.

**Taldean aldaketak izan dituzue, hortaz.**

Joxe Mariren ordez Los Cretinos taldean ibilitako Alexis Alonso sartu zen. Gainera, taldeak indar handiagoa har zezan, beste gitarra-jotzaile bat behar genuela adostu genuen, eta Mikel Fernandez hartu genuen.

**Musikan zerbait aldatu da?**

Alexis eta Mikel sartu ostean bide berria hasi dugu, baina orain arte izan dugun kutsua mantenduz. Abestien tempoa aldatu dugu. Orain, geldoagoak dira abestiak, baina intentsitate handiagokoak. Ahotsekin erregistro ezberdinak landu ditugu eta emaitza ona dela uste dugu.

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Bortitzak. Energiaz beteta igotzen gara oholtzara. Ondo pasatzen dugu eta entzuleei horixe transmititzen diegu.

**Kontzerturik lotu duzue?**

Hilaren 30ean, zapatuan, Zornotzako Idaba aretoan joko dugu. Baina aurreragoko kontzertuak *www.potemkinrock.blogspot.com* edo *www.myspace.com/potemkinrock* webguneetan jarriko ditugu. Era berean, argazkiak eta hiru kantu jaits daitezke.

Oraingoz, Aker tabernan eros daiteke diskoa, baina laster beste toki batzuetan ere jarriko dugu salgai.




### Hard rocka eta gitarra distiratsuak

Hartzen moduan hibernatu ostean, Oñatiko talde indartsua bueltan dator; bazen ordua! Joxe Mari baxu-jotzailea Los Cretinos-en ibilitako Alexisek ordezkatu du; eta bigarren gitarra bat (Mikel Fernandez) batu da taldera.

Hala, emaitza lehen baino gitarreroagoa da, eta, zalantza barik, hard rockeroagoa. Kantu bizienetan punteatze ugari sartu dituzte, eta The Cult, Hellacopters zein Gluecifer ekarri dizkidate gogora. Baina melodia barra-barra dago eta baita giro ilun zein *sabbatheroagoak* ere.

**Iker Barandiaran.**

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Sagasti auzoan 90 metro koadroko etxea salgai edo errentan: 3 logela, 2 bainugela, 2 balkoi, sukaldea, egongela eta despentsa. Igogailua eta garaje itxiarekin. Jantzita. Deitu 687 11 07 21 edo 617 00 37 30 telefono zenbakietara.

**Aramaio.** 70 metro koadroko etxebizitza saldu edo errentan ematen da. Etxe berria da. Bi logela, ganbara eta garajearekin. Dena jantzita. Eguzkitsua. Deitu 679 45 57 62 edo 664 74 90 23 telefono zenbakietara.

**Aretxabaleta.** 100 metro koadroko etxebizitza salgai Markolen. Lau logela, bi komun, sukaldea eta egongela, ganbara, garajea eta bi terraza handi (150 $m^2$). Jantzita utziko genuke. Deitu 650 34 89 85 telefonora.

**Bergara.** Apartamentua salgai San Antonion. Sukaldea, egongela, logela bat, komuna, balkoia eta trastelekua. 46 $m^2$. Guztiz berriztatua eta jantzita. Deitu 635 70 49 74 telefono zenbakira.

**Irurtzun.** Eraberritutako pisua salgai Irurtzunen. 3 logela, 2 balkoi, sukaldea jantzita. Prezioa 150.000 euro. Deitu 699-02 03 63 telefonora.

**Oñati.** Bidebarrieta kalean apartamentua salgai. Sukaldea, egongela, komuna eta logela bat. Oso eguzkitsua. 607 58 00 99 edo 625 70 54 44.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, sukalde-jangela, egongela, komuna eta trastelekua. 2009an berriztatua, prezio onean. Deitu 676 19 91 54 telefono zenbakira.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Barrenkalen. Guztiz berritua, bi logela eta altzariekin. 629 38 29 96.

**Oñati.** Etxea saldu edo errentan ematen da. Hiru logela, komun bat, sukaldea eta egongela. Garajea aukeran. Guztiz berriztatua. 665 72 87 89 edo 657 72 25 70.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Hiru logelako etxebizitza hartuko nuke errentan. 4 pertsonarentzat. 618 14 71 34.

**Bergara edo Arrasate.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 639 94 48 65 edo 615 57 81 54.

**Bergara.** Etxebizitza alokatuko nuke. 609 38 86 47.

**Bergara.** Etxebizitza alokatuko nuke. 671 33 75 54.

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 657 08 96 69.

**Iruñea.** Gutxienez bi gela dituena, eta argitsua. E-posta: *marutegi@yahoo.com*

**Oñati.** Bikote batekk etxea hartuko luke errentan, hiru gela eta igogailuarekin. 665 75 59 13.

### 105. ETXEAK OSATU

**Altsasu.** Pisu konpartitu batean logela eskaintzen da, egongela, sukalde eta komun handiko etxean, Altsasun, herri erdian. Animatu eta deitu 608 57 97 70 telefonora.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. Deitu 630 71 35 83 telefonora.

**Arrasate.** Oso egoera onean dagoen etxebizitza osatzeko pertson bat behar da. Egongela eta sukalde handiak eta bi bainugela. Eguzkitsua. Wi-fiarekin. Unibertsitatetik gertu. 699 28 99 06.

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu alokagai. 630 71 35 83

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. 670 59 73 62

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko. Erdialdean dago eta oso egoera onean. 300 euro, gastu guztiak barne. Otsailetik aurrera. 606 74 42 37

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com**
**www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU/ALOKATU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Bergara**. Bi logelako apartamentu berrituan logela bat errentan ematen da. 250 euro. Deitu 626 86 67 36 telefono zenbakira.

**Donostian** etxe bila, errentan hartzeko, denbora luzerako. Deitu 661 33 85 87 telefono zenbakira.

**Eibar.** Iepa! Lana dela-eta konpartitzeko pisu bila nabil Eibar edo inguruetan. Pisukide bila bazabiltza deitu 652 73 58 09 telefono zenbakira

**Errenteria-Orereta.** Galtzaborda auzoan pisua konpartitzeko pisukide bila nabil. Deitu 943 52 08 07 telefonora.

**Iruñea.** Iruñeko Aralar kalean pisua osatzeko langile baten bila gabiltza. 220 euro + gastuak. Deitu 660 97 01 12 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santakurtz 25-27an. Prezio negoziagarria. Deitu 630 46 36 71 telefonora.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia Lezaman (Santakurtz 24). 16.000 euro negoziagarriak. Aukera aparta. 647 08 00 16.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje irekia ematen da errentan Aldaigainen. 14:00etatik aurrera deitu 680 84 09 45 zenbakira.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Lorentzon. Deitu 665 73 51 59 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 656 77 46 60.

**Bergara.** Neska bergararra behar dugu arratsaldeetan umeak zaintzeko. 675 70 50 43

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakumea behar dugu. Deitu 943 76 53 55 zenbakira.

**Basauri.** Basaurin etxeko lanak egin eta haur bat zaintzeko pertsona euskalduna behar dugu; astelehenetik ostiralera bitartean 4 egunez, eta eguneko ordubetez ariko litzateke, goizeko 07:30ak eta 8:30ak bitartean. Ezinbestekoa euskara menderatzea. Telefonoa: 618 54 87 15 (Asier).

**Mungia.** Laukarizen (Mungian) etxeko lanak egiteko eta ume bat zaintzeko pertsona bat behar dugu. 5 egun astero. Kontratua eskaintzen dugu eta gizarte segurantza ordaindua ere bai. Euskalduna izatea ezinbestekoa. Telefonoa: 609-43 99 54 (Xabier).

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume serio eta arduratsua gertu, orduka garbiketak egiteko edo jatetxeetan plantxan zein sukalde laguntzaile jarduteko. 647 16 40 49.

**Arrasate.** Arrasateko neska gazte euskalduna arratsaldeetan umeak zaintzeko, etxeak edota atariak garbitzeko, prest. Esperientzia handikoa. Deitu 618 41 24 79 telefonora.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu, 15:00etatik aurrera garbitasun zein plantxa lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko. 699 54 17 27.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Urte askotako esperientzia. Deitu 662 07 31 68 telefonora.

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientzia duena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsalde haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuek deitu zenbaki honetara: 606 42 64 14.

**Bergara.** Neska gertu, etxeko lanak egiteko. Deitu 660 57 33 92 zenbakira.

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu, umeak edo pertsona nagusiak arratsaldez zaintzeko. Deitu 695 78 22 47 edo 943 76 17 17 telefono zenbakietara eta Itziarrengatik galdetu.

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuak zaintzeko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. Deitu 637 28 58 52 zenbakira.

**Bergara.** Garbiketarako, pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko eta tabernari moduan lan egiteko gertu egongo nintzateke. Deitu 671 71 90 03 telefonora.

**Bergara.** Garbiketa eta pertsona edadetuen zainketa lanak egiteko gertu nago, 13:00etatik aurrera. 691 03 25 02.

**Bergara.** Bergarako emakume arduratsua gertu, garbiketa lanak egiteko. Deitu 690 05 79 07 telefonora.

**Bilbo.** Sukaldaritzako ikaslea, janari manipulatzaile karnetarekin, prest nago sukalde laguntzaile, pintxoak egiteko, zerbitzari edota tabernari lanak egiteko. Asteburuetan libre nago. Deitu 625 11 20 71 telefonora.

**Deba.** Emakume euskalduna ospitalean jendea orduka zaintzeko prest. Telefono zenbakia: 665-74 18 66. Marian.

**Debagoiena.** Bergaran edo Arrasaten Nagusiak zainduko nituzke, egunez. Deitu 943 53 29 18 edo 696 84 19 51 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea edozein lanetarako gertu. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Deitu 606-64 16 09 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauez edo bestela. Legezko paperak dauzkat. Deitu 638 89 98 60 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea gertu ospitalean gauez gaixoak zaintzeko. Deitu 676 07 23 72 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu ospitalean dauden gaixo zein nagusi edo umeak zaintzeko. Deitu gauetan, mesedez, 943 71 46 24 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edota zerbitzari lanak egiteko. Zerbitzari titulazioa daukat. Esperientziarekin eta informe onekin. Deitu 671 35 22 60 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak edo ume zein nagusiak zainduko nituzke. Deitu 637 12 15 18 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak, sukalde laguntzaile edo etxeko lanak egingo nituzke. Deitu 630-20 12 03 zenbakira.

**Debagoiena.** Kamioi gidari aritzeko gertu. Hainbat baimen ditut: makinak, garabiak, kamioiak, eta abar. Urte askotako esperientzia. Deitu 630 65 30 22 telefono zenbakira eta Antoniorengatik galdetu.

**Debagoiena.** Mutil esperientziaduna nagusiak zaintzeko edo garbiketak egiteko prest. Etxean bizi izaten edo orduka. Baserrietara joateko arazo barik. Deitu 648 06 84 71 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu nagusi edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Baserrietan ere bai. Etxean bizi izateko prest nengoke. Interesatuek deitu ezazue 690-70 63 39 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritzan lan egiteko. Esperientzia eta txostenak ditut. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumeak lan egingo luke sukaldean, nagusiak zaintzen edo garbitasun lanak egiten: bulegoak, etxeak eta abar. Enpresa zein partikularrekin. Deitu 661 48 86 74 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Gerontologia sektorean lan egiteko gertu emakume arduratsua, esperientziaduna eta erreferentziaduna. Arratsaldez egingo luke lan. Deitu 943 79 04 69 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** 45 urteko emakume euskalduna gertu nagusi edo umeak zaintzeko, goizez, 13:00ak arte. Autoa daukat. Aretxabaleta, Arrasate edo Eskoriatza. Deitu ezazu 943 79 54 21 edo 619 42 75 21 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Deitu 637 18 07 23 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko erreferentzia onekin. Paperak ditut. Lanaldi osoa edo murriztua egingo nuke. 696 19 05 15.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak zaintzeko, orduka edo etxean bertan bizi izateko prest. Paperekin. 606 64 16 09

**Debagoiena.** Etxean bertan bizi izaten zein orduka lan egingo nuke. Legezko paperak ditut. 663-65 78 43

**Debagoiena.** Neska euskalduna pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Arratsaldetan,astebukaeratan eta jai egunetan. Auxiliar laguntzaile titulua. Itxaso. Deitu ezazu 943 74 82 09 telefono zenbakira.

**Donostia.** Neska euskalduna, haur hezitzailea, haurrak zaintzeko prest. Donostia eta inguruko herrietan, edozein ordutegitan. Edozein gauzatarako deitu inongo konpromisorik gabe. 616-38 31 64

**Gernika-Lumo.** Erizain laguntzailea geriatrian lan bila dabil Gernika-Lumo aldean. Eskarmentu handia zaintze lanetan. Orduka zein egun osorako. Telefonoa: 645 70 40 20 (Marisa).

**Irun.** Bidasoaldea. Emakume euskaldun eta arduratsua. Haurrak edo adineko pertsonak zainduko lituzke goizez zein arratsaldez. Baita etxeko lanak egin ere. Gidabaimena eta autoa baditut. Deitu lasai 622 06 33 48 telefono zenbakira.

**Irun.** Bidasoaldea - Emakume euskaldun eta arduratsua. Haurrak edo adineko pertsonak zainduko lituzke goizez zein arratsaldez. Baita etxeko lanak egin ere. Gidabaimena eta autoa ba ditut. Deitu lasai 622-06 33 48 telefonora.

**Sakana.** Haurrak zaintzeko eta plantxatzeko prest nagoen emakumea naiz. Deitu 651 47 27 21 telefonora.

**Zarautz.** Gizon euskalduna gertu lanerako, asteburuetan ere lan egiteko prest. Edozein lan: Lorezain, mahastietan eta abar. Deitu ezazu 658 73 08 08 telefono zenbakira.

**Zumarraga.** Erregulazio eta kontrol-sistema automatikoan titulatua naiz. Elektrikari eta mantenu lanetan esperientziduna. Edozein beharretarako 667 03 52 16 zenbakira deitu. Ramon.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka 85 $m^2$. Berritua.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Alkabieta 88 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Aranerreka 80 $m^2$. Terrazarekin.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
- Zubiaurre 52 $m^2$. Berritua.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, 196.200€.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Aranerreka, 80 $m^2$, oso ondo.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea aukeran.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Iparragirre, apartamentua, 40 $m^2$, berria, garajea eta trastelekua.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 $m^2$.
- San Antonio, 65 $m^2$, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 $m^2$, eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- Jatetxea erdialdean bezeroekin. Salgai edo errentan ematen da.
- Basarte. 69 $m^2$. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 $m^2$. Apartamentua. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

Ikolan lanaldi
ALDIBATEKO LANA • TRABAJO TEMPORAL
**ALDIBATEKO LANA**
**943-16 20 48**
Senpere,7 (zentru komertziala)
BEASAIN
Ikusi lan eskaintzak:
www.ikolanaldi.com

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke. DBHko 4. maila. 18:00etatik aurrera deitu. Pilar. 943 76 16 42

**Bergara.** Matematika eta euskara eskola partikularrak emateko norbait behar dut. 6. maila. 652 75 68 95.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Eskola partikularrak ematen ditut Musakola eta Santa Marina inguruan. Deitu 696 37 92 29 telefonora.

**Arrasate.** Goi ingeniaritza ikasten duen neska arduratsua Arrasaten eskola partikularrak emateko prest. Deitu arratsaldeetan. 625 74 91 50

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Maila guztiak. Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. Deitu 630 71 35 83 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Elkarrizketa lantzeko ere bai. Deitu 654 94 87 26 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko irakaslea errefortzurako eta azterketak gainditzeko eskolak emateko prest. Oso merke. Arantzazu. 616 12 56 29

**Bergara.** Kimikan lizentziaduna naiz eta matematika, fisika, kimika, geologia eta natur zientzietako eskola partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. Irakaskuntzan esperientziaduna. Deitu ezazu 648 06 79 85 telefono zenbakira.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingeniaritzako ikasle euskalduna Batxilergo eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea, Matematikak.

**Elgoibar.** Ingeleseko klaseak ematen dira. Eskolarako laguntza, azterketa ofizialen prestakuntza, Ingeles komertziala... Adin guztiak. Ordutegi malgua (goiz eta arratsaldez). Deitu: 65276 32 64 telefono zenbakira.

**Gasteiz.** Euskal Filologiako bigarren mailan dagoen ikasle bat klase partikularrak emateko eskaintzen da. Deitu 661 18 24 26 telefono zenbakira.

**Gernika-Lumo.** Klase partilularrak emango nituzke Gernikan zein inguruko herrietan, oro har, Busturialdean. Edozein gauzatarako deitu inolako konpromiso barik zenbaki honetara: 680 53 84 82.

**Gernika-Lumo.** Esperientziadun irakasleak talde txikitako klase partikularrak eskaintzen ditu Gernikan, lehen hezkuntza eta DBHko ikasleentzako. 656 77 20 12. (Nahia)

**Ingeleseko klaseak.** Ingeleseko Klaseak ematen dira. Eskolarako laguntza, azterketa ofizialen prestakuntza, ingeles Komertziala... Adin guztiak. Ordutegi malgua (goiz edo arratsaldez). 652 76 32 64.

### 503. BESTELAKOAK

**Hizkuntza ikasketak, trukean.** Nik dudan frantses maila hobetu nahi nuke (2. maila hasteko egongo nintzateke) eta trukean beste pertsona baten euskara maila hobetzen lagunduko nuke. Truke honetarako norbait prest balego idatz dezala *pelloastiz@hotmail.com* posta elektronikora edo 618 09 62 04 telefonora hots egin deitu hauetan dugun maila hobetuko baita, ziur.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Kawasaki Z750 salgai.** 2007 urtekoa. Kolore beltza. Oso egoera onean. 12.000 kilometro. Azterketa denak etxe ofizialean eginak. 5.500 euro. Deitu 660 33 77 16 telefonora.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Zaldi hispaniar-arabiarra** salgai. Monturakoa. 7 urte. Zuria. 616 00 34 29.

**Txakurkumeak salgai.** Gorbeia txakurkumeak salgai. Deitu 665 70 78 58 telefonora.

### 703. EMAN

**Txakurkumeak** ematen dira opari. Bi hilabetekoak. Arrasaten. Deitu 608 74 43 52 telefono zenbakira.

### 704. BESTELAKOAK

**Bi setter** eme daude jasoak, aurreko astelehenetik, urtarrilak 11. Zuri-beltzak dira. Deitu 625 70 86 49 telefonora.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bikiendako aulkia** salgai. Jane etxekoa. Urdin iluna. Hiru gurpilduna. 200 euro. Deitu 650 57 36 07 telefonora.

**Bizikleta.** Errepideko bizikleta gorria salgai. Egoera onean. Merke. Deitu 943 79 11 24 telefono zenbakira.

**Erremailadora** industriala salgai. Egoera onean. Prezioa adosteko. Antzuolan. Deitu 685 77 08 46 telefonora.

**Eskiak.** Dynastar Vitesse etxekoak, Look fijazioekin, 1,85 m neurrikoak: 60 euro. Eta Rossignol etxekoak, Rossignol fijazioekin, 1,78 m neurrikoak: 60 euro. Eskiatzen hasteko oso aproposak. 690 83 98 53.

**Eskiatzeko buzoa** salgai. 10 neurrikoa. 15 euro. Gore-Tex eskularruak opari. Deitu 656 78 64 64 zenbakira.

**Eskiatzeko ekipo** berria salgai. Eskiak: Salomon Space Framer 33. Salomon fijazioak. 1,66 m neurrikoak. Botak: Atomic. 40-41 neurrikoak. Berriak. 300 euro. Makilak eta zorroa opari. 690 83 98 53.

**Narruzko txupa beltza salgai.** M neurrikoa. Ia berria (bi aldiz jantzia). 35 euro. Deitu telefono zenbaki honetara: 626 28 68 13.

**Karabana** salgai. Lau plazakoa. Egoera onean. Deitu 658 75 58 23 telefonora.

**Snow taula** salgai, Kay Wright markakoa. 1,55 metroko altuera. 130 euro. Deitu 630 29 16 01 telefonora.

**Snow taula** salgai. 1,51 metroko altuera. 175 euro. Deitu 630 29 16 01 zenbakira.

**Soinua salgai.** Bigarren eskukoa. Polverini markakoa, beltza. Motxila eta guzti. 800 euro. Aproposa ikasleentzat. 686 23 92 87 edo 943 76 44 69.

**Somierra.** Ikean 2008. urtean erositako oherako somierra salgai. Oso egoera onean. 150x190 neurrikoa. 100 euro, negoziagarriak. Harremanetarako deitu telefono zenbaki hauetara: 635 12 87 82 edo 943 25 05 79.

**Tabike-armairua.** Tabike-armairua salgai.Debagoienean. Interesa duenak deitu telefono zenbaki honetara: 670 08 12 16

### 802. EROSI

**Pastoralen liburuxkak erosten ditut.** Honako pastoralen liburuxkak erosiko nituzke: *Xiberoko Jauna* (2008), *Atharratze Jauregian* (1997) eta *Santa Kruz* (1992). Prezioa adostuko dugu. Harremanetarako telefonoa: 656 72 68 70.

**Moisesa.** Moisesa erosiko nuke. Harremanetan jartzeko deitu telefono zenbaki honetara: 650 57 36 07.

**Aretxabaleta** inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izan eskero deitu telefono zenbaki honetara: 696 32 63 13

**Getaria** inguruan baratzerako lur sail bat erosi edo alokatuko genuke. Harremanetan jartzeko deitu 652 702 828 telefonora.

**4x4rako erremolke eder baten bila.** Aupa denoi, erremolke berriak izugarri garestiak dira, baten batek ba al dauka bigarren eskuko bat salgai? 2 edo 2,5 metro luzerakoa, 750 kg ingurukoa, paperekin? (NIVA batentzako) Deitu 606 58 33 26 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Egongelako mahaia oparitzen dut.** Baxua, kristalezkoa eta altzairuzkoa. 635 72 58 14.

### 804. HARTU

**Umeendako segurtasun aulkia behar dut.** Kotxerako umeendako segurtasun aulkia behar dut. 1-3 taldekoa. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 650 57 36 07.

**Batxilergoko Kimikako liburua hartuko nuke.** Ibaizabal argitaletxeak argitaratutako K2 Natur eta Osasun zientzietako kimika liburua (i.bai proiektua) hartuko nuke. Emateko prest bazaude, mesedez idatzi mezu bat *maitezesa@gmail.com* helbidera, Maiteri zuzendutako mezu bat. Eskerrik asko.

### 806. GALDU

**Autoko giltza** galdu nuen abenduaren 15ean, asteartean, San Andres auzotik Arimazubi (San Viator Txiki) ikastolara bidean. Deitu 618 49 28 56 edo 943 79 58 98 telefono zenbakietara.

**Eraztuneko harria.** Zubiaurre eta Ozaeta artean (Bergara) eraztuneko amatista harria galdu nuen.Deitu 637 77 45 57 telefono zenbakira.

**Betaurrekoak galdu, Etxarrin.** Aurreko ostiralean betaurreko graduatu batzuk galdu ziren Etxarri Aranatzen. Funda marroian gordeta daude. Opatu dituenak Beleixe irratian utz ditzala edo 948 46 08 32 telefonora hots egin dezala.

**Berokia galdu ,Altsasun.** Mutil baten beroki beltza eta berdea galdu da Altsasun. Aurkitu edo ikusi baduzu deitu 629 15 43 09 telefonora.

**Urrezko domina, Altsasun.** Urrezko domina aurkitu da Altsasun. Karratua da. Alde batean *(Javi, 7-3-03)* agertzen da grabaturik eta bestean gizonezkoaren erretratua. Informaziorako jo Guaixera edo deitu 948 56 42 75 telefono zenbakira.

**Nintendo Ds grisa.** Urriaren 12an Nintendo Ds grisa galdu zen Zarautzen, bere babes poltsa urdinean zegoen, joko ta guzti,aurkitu baduzue mesedez 685 71 75 62 telefonoradeitu.

**Eskiak.** Martitzenean, hilaren 12an, K2 Fujative trabesiarako eskiak ahaztu nituen Arantzazun. Norbaitek topatu baditu, dei diezadala. Eskerrik asko. Deitu 652 75 66 97 edo 669 78 17 81 telefono zenbakietara.

**Lepoko zapia** galdu nuen abendu bukaeran. Grisa eta beltza da. Arrasaten edo Oñatin. Deitu 637 90 57 15 zenbakira.

**Omega erlojua** galdu nuen Bergaran, igandean, urtarrilaren 10ean. Atzeko aldean 'PG' inizialak dauzka eta ondorengo datak: 1932-1982. Zubietatik Oxirondo merkatura artean galdu nuen. Guretzat balio handikoa da. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez: Deitu 669 73 84 02 telefono zenbakira.

**Sakelako telefonoa** galdu nuen Bergaran, autobus geltoki inguruan, urtarrilaren 18an (astelehena). Nokia beltza da. Saritukoda SIM txartela, behintzat, bueltatzea. Deitu 676 66 02 66 telefono zenbakira.

### 807. AURKITU

**Argazki kamera Untzillaitzen.** Pasa den urtarrilaren 10ean, igandean, argazki kamera bat aurkitu nuen Untzillaitzetik Mañariarantz jaisten. Harremanetan jartzeko deitu 944 56 03 04 telefono zenbakira.

**Betaurreko gorriak aurkitu dira Arrasaten.** Arrasateko Eroski inguruan, Musakolan, abendu hasieran. Graduatuak dira eta kaxa batean zeuden. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 943 74 18 69.

**Bizikleta bat agertu da Oñatin.** Bizikleta beltza agertu zen abenduko zubian, Lazarraga kalean. Nahiko berria da. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 626 17 73 55.

**Kartera topatu, Altsasun.** Urtarrilaren 9an Altsasuko Foruen plazan karteratxo bat topatu genuen. Galdu duenak Guaixen galde dezake.

**Kaskoa aurkitu nuen Oñatin.** Kaskoa aurkitu nuen Oatiko plazan, azaroaren 15ean, domekan, iturri ondoan. Bizikletan ibiltzekoa. Zurea bada, deitu zenbaki honetara: 658 75 64 65.-

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. Interesatuek idatzi mezu bat *mgpelmaz@gmail.com* helbidera.

### 808. BESTELAKOAK

**Basauri-Gasteiz.** Basauri-Gasteiz bidea kotxez konpartitzeko lagun bila nabil. Lakua inguruan lan egiten dut, eta goizeko 07:15 inguruan irtengo nintzateke Basauritik Gasteizera. Arratsaldean Gasteiztik 17:00etarako irtengo nintzateke Basaurira. Autoa konpartitu nahi baduzu deitu Anari 685 73 17 18 telefono zenbakira.

**Bergaratik Donostiara, egunero.** Bergaratik Donostiara egunero lanera (Errotaburura) joateko jende bila nabil. Autoa konpartitu nahi baduzu deitu 679 86 51 36 telefono zenbakira lan ordutegian, 08:00-15:00.

**Gasteiztik Arrasatera.** Urtarrilean Gasteiz erdialdetik Arrasatera 22:00etan joateko auto bila nabil. Autoa konpartitu nahi baduzu deitu 695 70 51 42 telefono zenbakira.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten gara. Momentu honetan 3 pertsona joaten garaauto berean. Autoa konpartitzea nahi baduzu deitu 635 20 33 14 telefono zenbakira.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin ezazu! Baita zure herriko jai edo ikuskizunetan gu egotea nahi baduzu ere. Kontakturako idatzi mezu bat *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com* helbide honetara.

Iñaki Etxezarraga
'Etxe'

**ILUNPEAN**
Martitzenean, urtarrilaren 26an, 22:15ean.
Eguaztenean, urtarrilaren 27an, 15:10ean.

**Jon Berezibarrek aurkeztuta**

Goitb
Goiena Telebista

*Ikustekoa!*



## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | | | | 6 |
| 4 | | 5 | 7 | 8 | 9 | 2 | | 3 |
| | | | | 2 | 6 | 4 | | 9 |
| | | 1 | | 9 | 5 | | 2 | |
| 9 | | 2 | 8 | 6 | | 7 | 3 | |
| | | 8 | | 4 | 7 | 6 | | 1 |
| 5 | | 3 | 4 | | 8 | | | |
| | | | 6 | 7 | | | 5 | |
| | | | | | | | | |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Mehatxu egile
Xedera, lakioa
Utzi
Noka, genien
Salatzera behartua
Ebatsia
Hego
Bi ken bat
Sonbreirua
Arrain mota
Banan-banan
Lehen sagardo
Ez eme
Edari alkoholduna
* Irudiko ontzia
Gipuzkoan, dut
Ezkabarteko auzoa
Gadolinioa
Arabako udalerria
Zenb. ez ordinala
1
50

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Nafarroako Pirinioko mendia.





## hizki salda

Europako bost ibai.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | E | H | J | W | C | P | N | P |
| D | A | N | U | B | I | O | F | X |
| V | V | G | A | Y | I | L | M | X |
| A | F | E | T | W | X | H | O | B |
| V | R | E | U | S | S | Z | E | R |
| A | H | B | Z | G | T | Z | U | N |
| V | I | J | K | C | K | J | M | N |
| G | N | B | X | T | J | J | I | M |
| V | O | L | G | A | H | O | L | X |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| G | E | H | J | W | C | P | N | P |
| D | A | N | U | B | I | O | F | X |
| V | V | G | A | Y | I | L | M | X |
| A | F | E | T | W | X | H | O | B |
| V | R | E | U | S | S | Z | E | R |
| A | H | B | Z | G | T | Z | U | N |
| V | I | J | K | C | K | J | M | N |
| G | N | B | X | T | J | J | I | M |
| V | O | L | G | A | H | O | L | X |

**Hieroglifoa:** Hiru Erregeen Mahaia

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | 8 | 9 | 1 | 3 | 4 | 5 | 7 | 6 |
| 4 | 6 | 5 | 7 | 8 | 9 | 2 | 1 | 3 |
| 1 | 3 | 7 | 5 | 2 | 6 | 4 | 8 | 9 |
| 6 | 7 | 1 | 3 | 9 | 5 | 8 | 2 | 4 |
| 9 | 4 | 2 | 8 | 6 | 1 | 7 | 3 | 5 |
| 3 | 5 | 8 | 2 | 4 | 7 | 6 | 9 | 1 |
| 5 | 2 | 3 | 4 | 1 | 8 | 9 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 4 | 6 | 7 | 3 | 1 | 5 | 2 |
| 7 | 1 | 6 | 9 | 5 | 2 | 3 | 4 | 8 |



M L S
S E G A D A
H E G A L
K B A N A K A
L A P A T I A R
P I T X E R R A
D E T A N O T Z
L A G R A N I
K A R D I N A L A

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Zure egitasmoek arrakasta izango dute oinarri sendoak badauzkate. Maitasun kontuetan, ondo: bikotekidea badaukazu, oso zoriontsu ibiliko zarete elkarrekin.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Ingurukoek ez daukate zure arazoen errua. Kontuz ibili, bikotekidearekin batez ere, liskarrik nahi ez baduzu. Adi, ea zer sinatzen duzun, iruzur egin diezazukete eta...

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Lehendik egindako ahaleginen emaitzak batzen hasiko zaren arren, jarraitu gogor beharrean zure helburuak lortzeko. Beharbada bidaia egingo duzu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Arazoak, beharrean; nagusiekin liskarrak izango dituzu, ez dituztelako zure proposamenak onartuko. Osasun gorabeherak direla eta, osagilearenera joan beharko duzu.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Jokaera zaharkituak baztertzen badituzu eta onura ekarriko dizuten zure inguruko aldaketak onartzen badituzu, guztiak onera egingo du.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Atsekabetuta eta nahiko lur jota zabiltza, eta ondorioz, bakarrik egoteko gogoa edukiko duzu. Ez zaitez ezertan hasi, ez da-eta unerik onena.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Oso pozik ibiliko zara, izan ere, besteek zure ideiak kontuan izateaz gain, nahi dituzun helburuak lortuko dituzu. Onerako aldaketak, maitasun kontuetan.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Arazoak, diruarekin: batetik, gutizietan larregi gastatuko duzu; eta bestetik, Ogasunekoek edo beste erakunderen batekoek, zorretan duzun dirua eskatuko dizute.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Hartu modu onean etorriko zaizkizun aldaketak, onerako izango dira-eta, beharrean batez ere. Jende berria ezagutuko duzu, eta elkarrekin ondo konponduko zarete.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Urak eragindako kalteren bat dela-eta, konponketak egin beharko dituzu etxean. Kontraturen bat sinatzeko asmoa bazeneukan, atzeratu,, ahal izanez gero.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Sormen gaitasun handia eta gauzak egiteko gogoa. Maitasun kontuetan, ondo: bikotekidea badaukazu, zuen harremanaren onerako izango diren aldaketak egingo dituzue.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Zure asmoekin aurrera egin nahi baduzu, pixka bat moldatu beharko dituzu. Ideia on asko dituzu, baina ez inori kontatu.

## gazte zerbitzua

**BEKAK**

**> Irakasle bisitariak.** 2010-2011 ikasturtean zehar Amerikako Estatu Batuetako eta Kanadako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan irakasle bisitariak izateko plazak. Baldintzak: lizentziatuak edo irakasleak izatea eta ingelesa jakitea, ahoz zein idatziz. Epea: urtarrilaren 26a.

**> Ikertzaileak.** 2010-2011 ikasturtean ikertzaile bisitariek Glasgow-eko Unibertsitateko Centre for Cultural Policy Research-en emango dituzten egonaldiak finantzatzeko dirulaguntzak emateko deialdia. Lanaren barruan, ikertzaile bisitariak, besteak beste, kultura, komunikazioa eta komunikabideak landu ahal izango ditu. Epea: urtarrilaren 29a.

**LANA**

**> Irakasleak.** EPE 2010 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketako teknikoak. Guztira 451 lanpostu eskainiko dira, A taldekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegokoak) eta B taldekoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegokoak). Epea: otsailaren 1a.

**> Euskara itzultzaileak.** Nafarroako Foru Komunitatea. Euskara itzultzaile-interpretari izateko 6 lanpostu. Epea: otsailaren 3a.

**> Begiraleak.** "Ruta Quetzal BBVA 2010" programan parte hartu nahi baduzu, aurkeztu curriculuma 2010ko otsailaren 16a baino lehen.

**LEHIAKETAK**

**> Huhezinema laburrak.** Mondragon Unibertsitatea. Film laburren sariketa: gai librean, animazioa, fikzioa edo dokumentalak onartuko dira, bideo edo zine formatuan, urtarrilaren 1etik aurrera ekoitzitakoak. Gehienez, 30 minutuko iraupena. Lanak jasotzeko epea: martxoaren 12a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 25



**> Caritas erakundea, gaur 'Magazinea'-n**
**19:45**

Caritas Elizaren laguntza erakundeko ordezkariak elkarrizketatuko ditu Txomin Madinak gaurko *Goiena Magazinea*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Onein.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Kalekantoi.
**15:45** Ikusmira.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Kalekantoi.
**18:15** Sakonduz.
**18:45** Ilunpean.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kiroleroak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Gipuzkoakultura.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 26



**> LABeko idazkari orokorrari elkarrizketa**
**19:45**

Gaur, martitzena, LAB sindikatuko idazkari orokor Ainhoa Etxaideri elkarrizketa egingo dio Eneko Azkaratek.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** On Ein.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Ikusten.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Kulturzulo-Eskuokin.
**18:15** Gipuzkoakultura.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Harmailatik.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** 28 Klip.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 27



**> Iñaki Etxezarraga, 'Ilunpean'-en**
**15:10**

*Ilunpean* saioan, Iñaki Etxezarraga *Etxe* musikari berriztarra izango da gaurko gonbidatua. Jon Berezibarrekin egongo da.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusmira.
**14:15** Erreportajea.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Sakonduz.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:35** Harmailatik.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Ilunpean.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Kalekantoi
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Eguena, 28



**> Juan Mari Beltranen 'Ttakun ttan ttakun'**
**22:15**

Juan Mari Beltranen *Ttakun ttan ttakun* txalaparta-ikuskizunaren gaineko erreportajea izango da *Gipuzkoakultura*-n.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkoakultura.
**16:15** Ikusmira.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Sakonduz.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskaldunak hizketan.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoakultura.
**22:45** Kulturzulo-Eskuokin.
**23:20** Itsasoari begira
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 29



**> Bailarako gaurkotasuna, GOITBn**
**14:45, 16:45, 18:45**

Debagoieneko albiste garrantzitsuenak entzuteko aukera duzue *Berriak* albistegian, Larraitz Zeberiok aurkeztuta.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** On ein.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ur eta Lur.
**15:45** Itsasoari begira.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Sakonduz.
**22:45** Udazken loreak.
**23:15** Kale kantoi.
**23:45** Magazinea
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**> Haur antzerkirako eta bi kontzertutarako sarrerak**
**10:00**

Urtarrilaren 30ean Amaia Antzokian izango den *Sarean Sun Sun* haur antzerkirako sarrerak dauzka irratiak, entzuleen artean zozketatzeko. Eta sarrerak izango dira ere, 3 Aretoko kontzertuetarako: 29an, Anti nowhere league eta Gorroto; eta 30ean, Sound of Silence eta Vicepresidentes taldeak.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia.
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak.
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**EUSKAL TELEBISTA** > PROGRAMAZIOA ETA IRUDIA

# Informatiboen dekoratu berriak gaur erakutsiko ditu Euskal Telebistak

Gaur ere jarriko ditu antenan bi saio berri: 'Azpimarra', gaurkotasuneko saioa, eta 'El Conquis, la aventura'

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Gaur, astelehena, da ETBk aukeratu duen eguna bere informatiboen dekoratu berriak aurkezteko. Dekoratu berriekin, ETBren helburua da "lidergo, modernotasun eta gertutasun kontzeptuak indartuko dituen irudi berri bat lortzea", katearen esanetan. Era berean, "gainerako kateekiko eta orain arteko irudiarekiko aldaketa" bilatzen du. "Informatiboen irudi azkar eta dinamikoa bilatzen dugu, gaurkotasunagatik erakargarri egingo dena, baina sendotasuna transmitituko duena", esan du ETBk.

**MADDALEN IRIARTEREN SAIOA**

Programazioan ere berrikuntzak daude ETBn. Hala, gaur bi saio jarriko dira antenan: batetik, *Azpimarra* (astelehenetik eguenera, 20:30), Maddalen Iriarterekin. Gaurkotasuneko saio bat izango da, eta debatea eta analisia dira ardatzak. Hainbat hizlari pasatuko dira saiotik: politologoak, soziologoak, unibertsitate irakasleak, legebiltzarkideak... Eta, bestetik, *El Conquis, la aventura* (astelehenetan, 23:00), domekako *El Conquistador del Fin del Mundo* saioan gertatu denaren gaineko programa.

## telealbisteak

> TELESAILA

### 'La Señora'-ren ikusle asko, protagonista hil dela-eta haserre

Behingoz, amodiozko istorio bat ardatz duen telesail batek ez du *happy end*-ik izan. Eta hori ez da gehienen gustukoa izan. TVE katearen *La señora* telesailaren oraingo sasoia (telesailak jarraitu egingo du) emakumezko protagonistaren heriotzarekin bukatu zen joan den astelehenean. Beste inongo katek baino ikusentzule gehiago izan zituen –5.200.000, eta 5.595.000 protagonistaren hilzoriaren momentuan–, baina horietako asko kexatu egin dira gerora Interneteko foroetan. RTVEko webgunean bertan ere, bukaera zer iruditu zitzaien galdetu zien kateak ikusleei, eta egubakoitzean, kapitulu hura eman eta bost egunera, dagoeneko 2.700 erantzun inguru zituen galdera horrek. Haserrea, tristura edo sinesgaiztasuna adierazten dute askok.

> NBC KATEA

### AEBetako aurkezleen ika-mikak katearen krisia larriagotzen du

NBC katearen *The tonight show* gaueko entretenimendu saioaren aurkezle aldaketak eta euren arteko ika-mikak kate haren krisia areagotu egin du egunotan. NBCk 45 milioi euro ordaindu behar izan dizkio orain arteko aurkezle Conan O'Brien-i katetik joan zedin, lekua Jay Lenori uzteko. Leno zen aurkezlea orain zazpi hilabete arte, eta *prime time*-era pasatzeko utzi zuen gaueko saioa, baina saio berrian porrot egin du Lenok, eta gauera itzultzea erabaki du, O'Brien-en kalterako. Erabakia jakin zenetik, O'Brien-ek ikusle gehiago irabazi ditu.

Orain, NBC kateak ikusi beharko du ea Jay Lenok garai baten izan zuen erakargarritasuna berreskuratzen duen. Dena dela, azkenaldian hainbat porrot izan ditu kate horrek, eta honakoak bere krisia areagotu du.

## zorion agurrak



OÑATI
**Alaitz Uribeetxeberria**
Urtarrilaren 18an, 19 urte. Zorionak eta ondo pasa zure egunean. Muxu handi bat etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Aritz Oianguren**
Urtarrilaren 18an, 27 urte. Katxi-zorionak! Zorionak koadrila danan partetik! Eta preparatu zapatuko afairako! Opari pila bat jasokozu-ta!



OÑATI
**Miriam Arregi**
Urtarrilaren 19an, 23 urte. Zorionak eta urte askotarako, Miriam! Egun on-ona pasatu deizula eta 23 tirakada eta patxo handi-handi bat kuadrillakuon partetik!



OÑATI
**Julen Uribeetxeberria**
Urtarrilaren 20an, 16 urte. Zorionak eta ondo pasa zure egunean, etxekoen partetik.



OÑATI
**Haizea Arzamendi**
Urtarrilaren 21ean, 2 urte. Zorionak, Haizea! Familiako guztien eta Naroa eta Maiaren partetik, txokolatezko eta marrubizko muxu pila.



ARRASATE
**Markel Fernandez eta Maddi Mijangos**
Markelek urtarrilaren 19an, 4 urte eta Maddik 21ean, 5. Arizmendi, Arima zubiko lagun eta Argitxoren partetik, mila kilo zorion!



BERGARA
**Beñat Villar**
Urtarrilaren 21ean, 5 urte. Zorionak eta muxu ugari etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Itsaso Villar**
Urtarrilaren 21ean, 5 urte. Zorionak eta muxu ugari etxeko guztien partetik.



BERGARA
**Irene Valle**
Urtarrilaren 22an, 7 urte. Zorionak eta ondo pasa eguna Oscar, Goiatz eta Maiteren partetik.



BERGARA
**Markel Garmendia**
Urtarrilaren 24an, 12 urte. Zorionak, *kanpe-on*! Aitatxo, amatxo eta sorginaren partetik.



ARRASATE
**Leire Carrascosa**
Urtarrilaren 24an, 7 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



BERGARA
**Margarita Iñurrategi**
Urtarrilaren 25ean, 84 urte. Domekan txipiroiak eta pastela, umm... Etxekoen partetik, zorionak, amama!



ARRASATE
**Ainhoa Sagasta**
Urtarrilaren 25ean, 28 urte. Zorionak, gura dozunian gurekin jolastera etorri zaitez. Marrubizko muxu handi bat. Zuriak asko garen Anartz eta Jon.



ARRASATE
**Ainhoa Carrascosa**
Urtarrilaren 25ean, 11 urte. Zorionak familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Marina Axpe**
Urtarrilaren 25ean, urtebete. Zorionak bitxito! Muxu asko aitatxo eta amatxoren partetik zure lehen urtebetetze egunean.



BERGARA
**Mikel Molina**
Urtarrilaren 25ean, 6 urte. Zorionak, politxoi! Tia Pakiren partetik.



ARRASATE
**Leire Meñika**
Urtarrilaren 25ean, 7 urte. Zorionak, printzesa! Ondo pasatu zure egunean. Gelako nesken partetik.



ARRASATE
**Paula Heriz**
Urtarrilaren 26an, 20 urte. Zorinak, prexioxa! 20 urte jada gure neskak. Ondo pasatu eta patxo pila Zigarrolakuen partetik.



ARRASATE
**Eider Prieto**Urtarrilaren 26an, 7 urte. Zorionak familia eta lagun guztien partetik. Ondo pasatu zure egunean!



ARRASATE
**Jone Miren Arizabaleta**
Urtarrilaren 26an. Amatxo, egun oso ona pasa eta urte asko hartu! Segi zaren moduko maitagarri izaten! Patxo eta besarkada handia Amalur, Gaizka, aitatxo eta etxeko danon partetik!



ARRASATE
**Aimar Agirre**
Urtarrilaren 26an, 4 urte. Zorionak eta patxo handia familiakoen partetik!



BERGARA
**Irati Iriondo**
Urtarrilaren 27an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat familia guztiaren partetik.



OÑATI
**Izar Bikuña**
Urtarrilaren 27an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Zu bezelako tarta goxo batekin ospatu zure 6. urtebetetzea ! Muxu majiko bat etxekoen partetik.



ARRASATE
**Asier Apaolaza**
Urtarrilaren 28an, 38 urte. Zorionak *vieja-les*. Harrapatu gaituzu. Ondo pasatu. Malen, Izaro, Ainhoa eta Romuren partetik.



ESKORIATZA
**Aitor Olmo**
Urtarrilaren 28an, 26 urte. Zorionak, Aitor, eta egun eder bat pasa etxekuen partetik! Zuretako be urtiek pasetan diela! Muxuak.



ARRASATE
**Mikel Santiago**
Urtarrilaren 28an, 11 urte. Zorionak, Mikel, eta patxo handi bat familia guztiaren partetik.



ESKORIATZA
**Iker Jimenez**
Urtarrilaren 28an, urtebete. Zorionak, polit hori, etxekoen partetik. Muxu handi bat!



ESKORIATZA
**Ekaitz Andres**
Urtarrilaren 28an, 6 urte. Zorionak eta laztan handi bat etxeko guztion partetik.



ARRASATE
**Alaitz eta Manex Bengoa**
Urtarrilaren 29an, 7 urte. Zorionak, bikote. Ondo-ondo pasa eguna eta merendola ederra prestatu. Muxu pila bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Begoña Idigoras**
Urtarrilaren 29an, 58 urte. Zorionak, ama! Ez ahaztu, zeure eguna bazkai elegante batekin zelebraitteko prest gauzela! Danon partetik eta batez be, Uxue eta Elaiaren partetik, mila muxu!



BERGARA
**Jone Ibarra**
Urtarrilaren 30ean, 9 urte. Zorionak, polittori! Ondo-ondo pasa egun berezi hori. Patxo potolo-potoloa etxekoen eta, bereziki, Gorkaren partetik.



ARRASATE
**Hodei Garitaonaindia**
Urtarrilaren 30ean, 2 urte. Zorionak zure bigarren urtebetetzean etxekoen partetik, bereziki Ixone eta Urkik. Patxo handi-handia.



OÑATI
**Jagoba Txintxurreta**
Urtarrilaren 31n, 17 urte. Zorionak, Jagoba! Ondo-ondo pasatu eguna etxekuen partetik!



URRETXU
**Itziar Zabaleta**
Urtarrilaren 31n, 4 urte. Zorionak eta patxoak gure etxeko printzesari. Tio, tia, Edurne eta, bereziki, Markelen partetik.



BERGARA
**Marijo Rodriguez**
Urtarrilaren 31n, 29 urte. Zorionak! Ondo-ondo pasa zure eguna. Muxu potolo-potoloa eta *fosfi-fosfi*, zure lagunen partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu.
Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

## asteburuko albuma



**Txotxongilo emanaldia.** Kaos Teatro taldearen eskutik, txotxongiloak gertutik ezagutzeko aukera izan da Bergaran aste bukaeran. Zapatuan, Marianico el Corto izeneko txotxongiloa –argazkian duzuena– gazte zein helduak xaxatzen aritu zen San Martin plazan. Barre algara edarrak egin zituzten aitonarekin batera. Domekan, berriz, Zabalotegi aretoan, *Fase Rem*, emanaldia ikusteko aukera izan zuten gaztetxoek. Peio pertsonaiarekin amets egin zuten bertaratutakoek.

## joan zaigu

### Jose Mari Sarasua



**Kooperatiba munduan, elkartasun proiektuetan eta euskararen alorrean lan handia egindakoa**

Gaixotasun luze baten ondoren hil da Jose Mari Sarasua Gasteizen, 72 urterekin. Ezaguna zen Aretxabaletan, herrian egindako lanarengatik kooperatiba munduan, elkartasun proiektuetan eta euskararen alorrean.

Bertsozalea ere bazela azaldu digute Jose Maria Sarasuaren gertukoek.

Aretxabaletako Hiruatx Gobernuz Kanpoko Erakundeko kide zen Jose Mari Sarasua. Hala, Hiruatxen eta Mundukideren sorreran parte hartu zuen beste kide batzuekin batera. Baita Copreciren sorkuntzan ere. Euskararekin lotutako ekitaldietan parte hartu ohi zuen eta Otalora jauregian zuzendari izan zen.

Jose Mari Sarasuaren senide eta lagunek, lasaia eta eskuzabala zela nabarmendu nahi izan dute.

OROIGARRIA

### Jose Mari Sarasua Zumeta

Mundukide Fundazioko fundatzailea.

2010eko urtarrilaren 22an hil zen.

*Mundukideko Patronato, langile, bolondres, eta lagunen artean jarraituko du zure elkartasunak eta aurrera egiteko indarrak.*

mundukide fundazioa



Arrasaten, 2010eko urtarrilaren 22an.

OROIGARRIA

### Esther Balanzategi Arregi

*Udazken koloreetan,*
*landen lurrinak zeharkatuz,*
*hitaz oroit eta higan nauk,*
*hain soil hire heriotzean,*
*hain xume, adiorik gabeko*
*partitzea.*



Hire koadrila.
Arrasaten, 2010ko urtarrilaren 25ean.

## jaiotakoak



**Danel Ertzilla Nieva**
Arrasate > 4,080 kilo. Urtarrilaren 18an. Gurasoak: Maite (Basauri) eta Jose Ramon (Arrasate). Argazkian, Danel jaioberria, sehaskan.



**Elene Okina Garcia**
Elorrio > 3,700 kilo. Urtarrilaren 18an. Gurasoak: Yolanda (Elorrio) eta Juan Mari (Aretxabaleta). Argazkian, Elene jaioberria, lotan.



**Liher Rodriguez Pera**
Bergara > 2,800 kilo. Urtarrilaren 18an. Gurasoak: Sandra (Bergara) eta Hugo (Bergara). Argazkian, Liher jaioberria, sehaskan lo.



**Marcos Silverio Alvarez Coronado**
Arrasate > 4,080 kilo. Urtarrilaren 19an. Gurasoak: Conchi (Arrasate) eta Silverio (Arrasate). Argazkian, Marcos Silverio jaioberria, sehaskan.



**Hodei Zabala Miguelez**
Arrasate > 3,100 kilo. Urtarrilaren 18an. Gurasoak: Itsaso (Soraluze) eta Hibai (Arrasate). Argazkian, Hodei jaioberria, aitarekin.



**Amaiur Campo Agirre**
Oñati > 3,500 kilo. Urtarrilaren 19an. Gurasoak: Ainhoa (Oñati) eta Aitor (Oñati). Argazkian, Amaiur jaioberria, sehaskan.



**Eider Elortza Astola**
Arrasate > 4,570 kilo. Urtarrilaren 19an. Gurasoak: Aitziber (Aramaio) eta Haritz (Arrasate). Argazkian, Eider jaioberria, sehaskan lo.



**Amaiur Gorostiza Aranburuzabala**
Arrasate > 3, 500 kilo. Urtarrilaren 19an. Gurasoak: Idoia (Arrasate) eta Iker (Arrasate). Argazkian, Amaiur jaioberria, gurasoekin.



**Manex Mendizabal Larrañaga**
Arrasate > 3,080 kilo. Urtarrilaren 21ean. Gurasoak: Aintzane (Osintxu) eta Ekaitz (Arrasate). Argazkian, Manex jaioberria.



**Julen Navarro Gomez**
Aretxabaleta > 2,900 kilo. Urtarrilaren 10ean. Gurasoak: Henar (Aretxabaleta) eta Javi (Granada). Argazkian, Julen jaioberria, Marenekin.

BABESLEA



IKUSI MAKUSI
Umeen paradisua
Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

ASTELEHENEKO
Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2010-01-25

**Iñaki Etxezarraga 'Etxe'** > Musikaria

# "Autoestimua handitzen zaizu 600 ikuslerekin"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Bostekoa luzatzen ageri da Etxe bere azken laneko azalean. Gonbidapena da *Heldu eskutik;* harekin bidaia egiteko. Hurrengo geltokia, gainera, gertu datorkigu, egubakoitzean bertan zuzenean izango dugueta Espaloian, Elgetan. Etxe eta haren "etxelariak" izango ditugu kafe antzokian. Telebistarako ere grabatuko dute kontzertua eta DVDan ateratzeko asmoa daukate.**

**Agertoki gainean seguru antzean ikusi ohi zaitugu. Igo aurretik ere halatsu egoten zara?**

Aurten inoiz baino urduriago egon naiz, disko berriarekin, lehen aldiz jo nuenean. Sekula ere ez naiz horrela egon. Okerrera doaz, beraz, nerbio-kontuak, aurreko gauean ezin izan nuen eta lorik egin. Laugarren kanturra arte ezin izan nituen nerbioak barnetik atera. Baina kontzertu aurretik lar lasai egotea ere ez da kontu ona. Irten baino lehenago taldekide guztiak besarkada handi baten batzen gara, eta aurrera! Futbol partiduetan moduan izaten da, lasaitzeko.

**Urduriago non, plaza huts baten ala lepo betetako aretoetan?**

Kontzertu bakoitza berezia da, baina aretoa beteta badago urduriago ateratzen zara.

**Etxe, baina, taldea ala bakarlaria da?**

Azkenaldian honela hasten ditut kontzertuak: "Gabon, gu Etxe eta etxelariak gara". Proiektuaren pisu handiena neuk badaramat ere, lana laurona da.

**Nola berotzen dituzu ikusleak?**

Egia da hasten zarenean beti egon ohi dela agertokiaren eta ikusle lerroaren artean hutsune bat. Pasatu izan zaigu plaza baten zazpi lagunen aurrean jotzea, eta hori oso gogorra da, baina antzoki baten 600 pertsonarentzat ere jo dugu eta hori beste muturra da: autoestimuak gora egin eta guztia ematen duzu halakoetan. Jendearekin konektatzerakoan berotzen da giroa.

**Zuzenean adrenalina hori guztia bota eta gero, zer?**

Azken kontzertuetan gertatu izan zaigu aldagelara erretiratu eta hustuta sentitu garela, guztia emanda, eta plazer hutsa da. Gogoan dut zirrara bera sentitzen nuela azterketa gaitz bat ondo egiten nuenean: sofa hartu, garagardotxo bat... eta zerua. Lehen, agian, gehiago irteten ginen juergara, baina orain, patxadan, kontzertua komentatzen geratzen gara lokalean.

SOSLAIA

## Atsedenik ez

Springsteen Bilbon jotzen ikusitakoan errebelazioa izan zuen Etxek. Hark ere 60 urterekin *The Boss*-en letxe egon gura du eta gogorik ez zaio falta. Musikaren harra heavyarekin piztu zitzaion eta ia atseden hartu barik hiru disko kaleratu ditu bata bestearen ostean. Ametsetan, Springsteen; baina oinak, lurrean. Badaki lanari eutsiz gero aurrera egingo duela. Urtebete isilik egon dela dio, hori hiato ikaragarri luzea izango balitz bezala. Nekea zer den oraindik ez du jakin.



Musikarekin –ezta musikaz ere– ez da nekatzen Etxe. JONE INUNTZIAGA

### ai, ene!



**Munduko ibai zikinena**

Irudikoa munduko ibai zikinena izan daiteke. Indonesiako hiriburuaren ondoan dagoen erreka bat da; eta, ikus daitekeen bezala, zaborrez gainezka dago. Irudia izugarria dela argi dago, eta zer pentsatua ematen du.

http://www.sarda.es

### biharamuna

Iñigo Biain

## Heriotza bat, bost ataletan

1492/12/25: Santa Maria maniobratzen hasi da, baina Cristobal Colonen itsasontzi handia urpera doa. Hondakinekin, 20 egun lehenago aurkitu eta La Española bezala bataiatu zuten irlatxo hartan, espainiar inperioaren lehen gotorlekua eraikitzen dute. 1697/09/20: La Española izandako, eta momentu horretan Santo Domingo izena duen irlaren mendebaldeko erdia aldatuko dio Espainiak Frantziari Kataluniaren truke. Saint Domingue bezala birbataiatuko dute. 1804/01/01: Saint Domingue, armak hartuta, Haiti izatera pasako da, Amerikan askatasuna lortzen duen lehen herrialdea (garai hartako 150 milioi franko/urreren truke). 1914/07/28: EEBBetako armada eta Citibank, eskutik helduta sartzen dira Haitira, eta gupidagabe xurgatzen dute 1934ra arte. Ordutik kaos politiko-ekonomikoa da nagusi herrialdean. 2010/01/12: Lurrikara ikaragarri batek Haiti birrintzen du, herrialde txirotua heriotzaren atariraino bultzatuz. Eta hori gutxi balitz, bigarren lurrikara bat, EEBBen okupazio maskaratua, Frantziaren zelo kolonialistak, eta Europako Presidente espainiarra elkartasuna aldarrikatuz. Herritarron elkartasuna? Lehenik buelta diezaiotela beraiek Haitiri azken bost mendeetan lapurtu dioten guztia, eta gero hitz egingo dugu elkartasunaz ...



### eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +08 | +04 |

Arratsaldean eta gauean zaparradak botako ditu, Kantauri isurialdean batez ere. Elur-kota 700-800 metro inguruan kokatuko da.

www.euskalmet.net

